Ez bakarrik pilotaria, olerkaria ere ezagutua zen Euskal Herrian, Iparraldean bederen:

“Plusieurs fois il avait avantageusement figuré dans les joues littéraires qui, chaque année, ont lieu a Urrugne. Ses poésies se faisaient remarquer par une certaine verve et un tour qui portait un cachet d’originalité toute particulière”.

Lehenbiziko lore jokoak 1853-an izan ziren. Ukan zuten arrakasta. Izan ziren kalapitak lehen sariaren irabazlea Celhabe Bardozekoa ez zela kantuaeren egilea, bigarren sariaren irabazlea Landerretche Mauleko artxi-pretra edo erretor nagusia ez zelarik agertu bere sariaren hartzeko. Etxahun-ek ez zuelakotz saria ereman, bortizki jorratu zituen saristatuak eta epai mahaikoak bere “Bi berseten egitez” deritzan kantuan (17).

Ez dakigu lehiaketa horretan parte hartu zuen Léon Elissamburu-k. Haren izena ez da agertzen ere 1854-ekoan, 1855-ekoan aldiz bai. Urte hartan, gaia da: emazte edaleak edo prentsak dioen bezala: “Le sujet de poésie basque mis au concours de cette année est une chanson qui ne dépasse pas cinquante vers contre les femmes qui aiment le vin” (18).

Hamazazpi kantu etorri ziren, Bardozetik asko, hiru Léon Dajas ikasle batek igorriak, bertze biga Laurent Daguerre bertze ikasle batek, Ziburutik, Urruñatik biga Martin Arrupe-k eginak eta irabazlea izan zen Léon Elissamburu “brigadier des douanes à Urrugne” *Emazte edalea*

---

(17) J. HARITSCHELHAR, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etxahun*, Bilbao, 1970, 458-471 orr.

(18) *Le Mémorial des Pyrénées*, Pau, 1855eko abuztuaren 16an.

kantuaren egilea saristatua izan zela 1855-eko azaroaren 21ean; hala dio eskuz idatzirik kantu inprimatuaren Pariseko liburutegi nazionalako aleak (19).

Airea da “Hau da ikhazketako mandoaren traza”, aire alegera, aire atsegina, gaiari ongi doakiona. Zortzi bertsu ditu kantuak, bakoitzak sei neurtitz dauzkala, lau neurtitz luze 12 silabakoak (7 + 5) eta bi labur, 5 silabakoak: (7 + 5) – (7 + 5) – 5 – (7 + 5) – 5 – (7 + 5) bertsuaren egitura, rimak edo asonantziak direlarik (a – a – b – b – b – b).

Hona Duvoisin kapitainaren iritzia:

“Deux compositions dans lesquelles ces défauts (des sermons ou des tirades catoniennes, sans avenir ni sel, Duvoisin-en arabera) se font le moins sentir, nous viennent de M. Léon Elissamburu, brigadier ambulante des douanes à Urrugne. Une versification facile et correcte, une facture qui sent la bonne manière et une certaine culture de la langue, distinguent ces pièces parmi toutes les autres et les distancent d’assez loin. Les touches n’y sont pas assez légères, les coups de pinceau assez délicats; après tout, le poète parvient à se soutenir dans la sphère dans laquelle il est entré et c’est surtout par là qu’il l’emporte sur ses concurrents qui offrent d’aussi bons traits que lui, mais que leurs propres inégalités placent à des rangs inférieurs.

A propos des compositions de M. Elissamburu, nous dirons deux mots sur l’uniformité de la rime dans les couplets en langue basque.

Un défaut que le lecteur ne saisit pas tout d’abord dans la première pièce de M. Elissamburu, mais que l’oreille exercée de l’amateur de chant basque pardonne avec peine, c’est le changement de rime au troisième vers de chaque stance. L’uniformité de la rime est exigée, non pas tant par l’usage que par notre rythme poétique. Cela se conçoit d’autant mieux que nos vers étant ordinairement fort longs, l’uniformité de la rime rachète ce défaut ou le dissimule.

L’air du *charbonnier* choisi par M. Elissamburu permettrait peut-être mieux que tout autre un changement de rime au milieu du couplet qu’il scinde là. Le troisième vers devant se rattacher par le sens aux deux qui le précèdent, le changement opéré après le second vers fait mal à l’oreille. Les quatrains de la seconde composition de M. Elissamburu ont également deux

---

(19) *Celte basque 164*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 50.

rimes chacun. Nous ne l'en louons pas et nous lui dirons qu'il n'y a de mérite réel que dans la difficulté vaincue" (20).

Duvoisin-en arabera, Léon Elissamburu-k bi kantu igorri zituen. Ohartzen naiz bertze bat badela 39. orrialdean F.E. izenpetua. Beharbada L.E. sinatua zen eta nik gaizki irakurtu nuen. Behar liteke hurbilagozik ikusi. Dena den, hauxe da:

Zortzico airean.

“Ezagutua izan den escual herritan  
Edana garasti den dembora haukitan”

Orotara 48 neurtitz, bi neurtitzetarik aldatuz errima. Dirudienez hori daiteke Duvoisin-ek aipatzen duena (21), baina ez naiz batere segur, F.E. sinatua delakotz egiazki.

1856. urtean, Louis Lucien Bonaparte printzea Urruñan egon zen eta saristatu zituen pilotariak eta olerkariak. Urte hartako gaia: herriko bestak. Donibane Lohizuneko medikua, Larralde jauna, Bordaxuri Hazpandarraren semeak saria irabazi zuen. Léon Elissamburu-k kantu bat igorri zuen. Kantu honi buruz hona zer pentsatzen zuen Duvoisin Kapitainak:

“Le lauréat de l'année dernière n'a pas fait défaut au concours de cette année. Léon Elissamburu a envoyé dix quatrains d'une bonne facture et dont le tour est frappé au coin d'une certaine originalité d'un effet agréable. Sa versification est facile et correcte; elle rompt la monotonie dont la plupart des autres concurrents ne sont pas exempts. Léon Elissamburu eut vivement disputé le prix si un joueur plus puissant n'eut point paru dans la lice” (22).

Egia erran, ez da Elissamburu-ren kantua hamar bertsutakoa Duvoisin-ek zioen bezala, baina zortzi bertsu zeuzkan. Hona nola hasten den:

“Bozcario haundi bat bada gure baithan  
Ceren Eliza bestac diren herri huntan  
Nola eguinac garen ez diogu erran  
Atxeguin gaindizcoac gaitu hola eman (biz)”.

Airea: “Satararra naicela oroc badakite” eta sinatua da Elissamburu, brigadier des douanes. Acotz (23).

(20) *Celte basque 164*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 48.

(21) *Celte basque 164*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 39.

(22) *N.A.F. 21.747*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 262-263.

(23) *Celte basque 164*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 65.

Ez zen lehiaketarik izan 1857-an. 1858-ko lore jokoetan agertzen da berriz Léon Elissamburu eta aipamen onak ukaiten ditu bere bi kantuentzat.

“Elissamburu, lauréat de 1855, auteur de la *Crinoline* et de la *guerre de Russie*.

Lehena, krinolinaz mintzo dena, “Hau da ikhazketako mandoaren traza” airean egina da.

Berxuak nahi ditut orai athera,  
Ichilik banindago banuke pena,  
bainan neke da,  
Krinolinaz baizikan solasik ez da,  
hauche da besta,  
Satanek etzezaken bertzerik pentsa (24).

Dirudienez, irakurtu zituzkeen Elissamburu-k Duvoisin-en kritikak bertsu osoa errima edo asonantzia berarekin egina baita eta ez 1855-ean bezala bi errimekin.

Bigarrenak bortz bertsu dauzka bederatzi neurtitzekoak bi errima agertzen direlarik bertsu bakoitzean. Hona lehen bertsuak:

“Rusiako emperadorea mintzarazi duk yendia  
bai eta truble handian eman kasik Uropa guzia.  
Ikusirik huela kontra Frantzia,  
Hirur nazionentzat buru yarria  
Lan tzarrean sarthu hintzela bahuen bai urrikia  
Beldurrez eta bethikotz gal, Nikola izen handia  
Lehen bezala orai ere Franxesaz haiz orhoituko  
Nola urez hala leyhorrez ez dukala bentzutuko  
Ez dukala bentzutuko (biz) (25)

Sinatua da: fait par L.E.

Hirugarren kantu bat, bederatzi bertsutakoa agertzen da ere esku iskribuetan, lau neurtitz dauzkala bertsu bakoitzak (7 + 6) oinekoa.

“Ni ere baniagok entzunik berria  
Noiz aguerturen zaikun goardian yarria  
Ongui berantexirik lan horren hastea,  
ez diat errech yasan iragan urthea.”

Lana eta alferkeria da kantuaren gaia eta sinatua da Elissamburu, brigadier des douanes, Acotz (26).

(24) *Cette basque 164*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 131.

(25) *Cette basque 164*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 124.

(26) *Cette basque 164*, Bibliothèque Nationale, Paris, F.º 133.



Asma daiteke kantu bat igorri zuela Léon Elissamburu-k 1859-ko lore jokoetara. Ez da agertzen saristatuetan ez eta aipamen onetan. Zortziko bat da, interesgarria egituraren aldetik: 7 - 6 - 7 - 6 - 7 - 6 - 7 - 6 neurtitz bakoitzak errima daukalarik, errima gurutzatuak naski (a b a b c d c d).

Ama doloreskoa  
 Ez nauzu ikhusten  
 Ni maluros umea  
 Preso nola naizen  
 Zu ez nahiz sinhexi  
 Zure eguietan  
 Zer dudan ardiexi  
 Ene eguietan (27).

Orotarat, zazpi bertsu “Elissamburu brigadier des douanes” sinatuak.

1860-ean agertzen da lehen aldikotz Jean-Baptiste Elissamburu koplarien gudian eta lehen saria irabazten du “Gazte hilcera dohana” kantuarekin. Inprimatuak ziren orrialdetan irabazle gisa irakur daiteke Harlouch izena. Errakuntza bat izan zen Duvoisin Kapitainak aitortzen duena *Le Courier de Bayonne* delakoa:

“On nous prie de rectifier une erreur commise au sujet du nom de l’auteur de la poésie basque qui a remporté le premier prix au concours d’Urrugne. Cette pièce était anonyme et sans épigraphe; la même main qui avait copié et signé la chanson de M. Harlouch l’avait transcrite; de plus, les deux pièces ayant été présentées ensemble au concours, on se croyait suffisamment fondé pour l’attribuer à M. Harlouch. Mais on s’est trompé; cette chanson a été composée par M. Jean-Baptiste Elissamburu, lieutenant au 54e de ligne, frère de M. Léon Elissamburu, brigadier des douanes qui a obtenu la mention honorable et qui eut le premier prix en 1855.

Nous félicitons notre compatriote de conserver sous le drapeau et loin du pays l’amour de sa belle langue maternelle et de la cultiver avec tant de succès. Nous lui savons gré de venir rehausser l’éclat de nos fêtes par le concours de son talent. Qu’il persévère donc à se rappeler son *Escualherria* et à nous envoyer des marques de son souvenir, tout en continuant à mériter par ses qualités militaires l’estime et les récompenses de ses chefs. Nous savons combien il faut de mérite pour arriver en peu de

(27) *Cette basque* 164, Bibliothèque Nationale, Paris, F.° 229-230.

temps au grade où M. Elissamburu est parvenu, lorsque, comme lui, on part le sac sur le dos et sans nul appui.” (28)

Egun berean, *le Courier de Bayonne* horretan agertzen zen “Gazte hilcera dohana” olerkia bere frantses itzulpenarekin (Duvoisin-ek egina, noski) Jean-Baptiste Elissamburu-ren izenarekin.

Bi anaiek parte hartu zuten beraz 1860-eko lore-jokoetan, Léon Elissamburu-k irabazten zuela aipamen ona “Dantzaria” deitu kantuari esker, hau ere inprimatua eta *Le Courier de Bayonne* kazetan argitaratua bere itzulpenarekin (29).

Lehiaketari buruz eginikako artikuluetan, Duvoisin-ek dio:

“M. Elissamburu frère du premier lauréat, lauréat lui-même de 1856 (sic 1855 baitzen) a rajeuni un sujet qui fit naître, il y a quelques années un amas de platitudes et de banalités. Parler de la fête patronale et ne pas faire une rabâcherie est chose fort malaisée. M. Elissamburu a su éviter l'écueil; il a répandu dans ses couplets du sel et de la gaîté, c'est ce qui lui a valu le 3ème prix” (30).

Gustukua zuen beraz Duvoisin-ek “Dantzaria” kantua. Bederatzi bertsu dauzka, zortzi oinekoak, errepika bat erdian: “Rau riu rau, rata-plan, rau riu rau”, Iruñeko bestak oroitarazten duena, kantu bat alegera, gatz eta biperrez apaindua, airea duelarik “Orzirale arraxian, Garruzetik yin ninduyan...”.

\* \* \*

Bakoitzari eman behar zaio zor zaiona. Léon Elissamburu, anaia gehiena da. Hamabi urtez Jean-Baptiste baino zaharragoa da. Badakigu orain zazpi kantu bederen egin dituela lore-joko karietarat. Hor daude esku izkribuak edo inprimatuak izan diren kantuak. Anaia gazteak kendu dio anaia zaharrari bere bizi laburrean (45 urte zituen hil zelarik) ukan zuen fama. Ezagutua zen guarda, pilotari eta olerkari gisa. Txosten honekin pentsatzen dut eman diodala euskal letretan merezi duen lekua.

### Léon ELISSAMBURUren kantuak

1/1855 *Emazte edalea* (lehen saria) Celte basque 164 imp 50  
2/1856 *Bozkario handi bat baita gure baithan* Celte basque 164 ms 65

(28) *Le Courier de Bayonne*, Baiona, 1860eko irailaren 12an.

(29) *Le Courier de Bayonne*, Baiona, 1860eko irailaren 21an.

(30) *Le Courier de Bayonne*, Baiona, 1860eko irailaren 23an.

3/1858	<i>La guerre de Russie</i>	Celte basque 164 ms 124
4/1858	<i>La crinoline</i>	Celte basque 164 ms 131
5/1858	<i>Ni ere baniagok entzunik berria</i>	Celte basque 164 ms 133
6/1859	<i>Ama dohakabea</i>	Celte basque 164 ms 229
7/1860	<i>Dantzaria</i>	Celte basque 164 imp 270



## ELISSAMBURU: *EMAZTE EDALEA* (1)

### 1

#### AIRE HUNTAN: *Hau da ikhasketaco mandoaren traça*

Munduan ikhusten da hainitz bicio,  
Hoberenetic ere deus ez balio;  
    Bainan halere  
Ohituz gueroz hartan, bertceac bertce,  
    Çor edo hartce,  
Ecin arnega daite, arras hil arte. (*Biz.*)

Emazte edalea da higuigarri;  
Dabilan urrhaxetan, hain hirrigarri  
    Haren manera?  
Çokhoz çokho batetic eta bertcera,  
    Sar et'athera:  
Sabeletic ez hotça doha etchera. (*Biz.*)

Flasco muthur luce bat, bethi gordea,  
Ostaturat badaki ongui bidea;  
    Balitz erraile  
Edari churi gorri cembat suerte  
    Ahal lakike,  
Ibiliric senharrac deus yakin gabe. (*Biz.*)

Çaku bat mandatari, bihiz bethea,  
Irauten duen arte badu bakea;  
    Guero behar du  
Ohe eta athorez eguin merkhatu,  
    Dohainic saldu:  
Senharra eguin liro, ahalic balu! (*Biz.*)

---

(\*) BAYONNE — Imprimerie E. LASSERRE.

Emazte edalea alferketari,  
 Hauçorat yoan eta, berri condari.  
 Egun erdiac,  
 Senharra eta haurrac, landan guciac,  
 Erdi goseac:  
 Artha guti heyetaz cintçur luceac. *(Biz.)*

Ama biciotsua, hire haurrentçat  
 Mundurat sorthu hintcen, heyen caltetçat  
 Dudaric gabe.  
 Norc nahi dun har detçan etcheco andre,  
 Ez eguin yabe:  
 Beldurrez hi beçala, diren edale. *(Biz.)*

Emazteki çoroa, hic çahartcean,  
 Egoitçaric ez duken sarri etchcan,  
 Luça etciron.  
 Umekin ere ecin haiteke egon,  
 Deusetan ez hon;  
 Lehengo adichkidec ez nahi nehon. *(Biz.)*

Bici iraganari, ukho eguinic,  
 Sar beraz hire baithan orai beretic;  
 Othoitz Yaincoa,  
 Içan ez hadiela, ez lehengoa,  
 Ez hain flacoa:  
 Etchcan emanen dun, bake osoa. *(Biz.)*

*Elissamburu,  
 brigadier des douanes à Urrugne*

## 2

### **HUNEN AIREA DA: Saratarra naicela oroc badakite**

Bozcario handi bat bada gure baithan,  
 Ceren Eliça bestac diren herri huntan.  
 Nola eguinac garen ez dirogu erran;  
 Axeguin gaindizcoac gaitu hola eman. *(biz)*

Huna beraz non çaren, Besta, ethorria.  
 Aspalditik cintugun ikhusi nahia.  
 Plaçarat eguin duçu gaur gure galdia,  
 Han içanen dugula behar den gucia. *(biz)*

Gazteac heldu gare elkhar beroturic,  
 Lekhu maite hortarat ongui aphainduric.  
 Urtheac ez darocu emaiten egunic,  
 Hunec beçanbat placer eguiten daucunic. *(biz)*

Çuec ere Nescatchac baçohazte arin:  
 norat hari çareten nahi nuke yakin?  
 – Egun herrian besta behar dugu eguin;  
 han yostaturen gare, goacen elkharrekin. (biz)

Gure besta ederra çare maitagarri,  
 Çu gabe ez guinuke nehorc bici nahi.  
 Erremedio onac badituçu bethi,  
 Sendatcen dituztenac hainitz bihotz eri. (biz)

Denbora gucietan hola nauc içatu,  
 Ni maithatu nauena nekez duc çahartu.  
 Beharretan cirenac ditiat Lagundu,  
 Nahi gabe guciac bihotcetic khendu. (biz)

Huna nun den guiçona lau hogoi Urthetan,  
 Muskila beçain hece Oraino bestetan.  
 Gaztean cembait dantça emana placetan,  
 ikhusterat heldu da Urthe gucietan. (biz)

Eguiazki, çu besta, hainitz çare ona  
 ecin daiteke unha çurekin guiçona,  
 heldu baciniçauçu gu ganat ardura,  
 aisa pasa guinero Munduco denbora. (biz)

*Par Elissamburu Brigadier des Douanes  
 Acotz*

### 3

Rusiako Enperadorea - mintzarazi duc yendia,  
 bai eta truble handian eman kasik Uropa guzia:  
 ikhusirik huela kontra Frantzia,  
 hirur nazionentzat buru yarria.

Lan tzarrean Sarthu hintzela, bahuen bai Urrikiak!  
 Beldurrez eta bethikotz gal, Nikola, izen handia.  
 Lehen bezala orai ere Franxesaz haiz orhoituko  
 Nola Urez, hala leyhorrez, ez dukala bentzutuko,  
 ez dukala bentzutuko. (biz)

Franxesak ez dik ez faltatuko podore handiak baitik,  
 Untziak belan harmada onak laster altcharazten ditik  
 ez duk ez Mundu huntan Erresumarik  
 Abantail guehiagoz bethea denik,  
 eta, guidari Napoleon, Nolacoa den badakik?  
 Zeruko hedoi gorenean orai Tronua eman dik.  
 Altcha zatzik beguiak goiti eta erran franxesari,  
 ez dukala ez haren kontra guehiago deusik Nahi,  
 guehiago deusik nahi. (biz)

Rusia hire banaloreak horra beraz zertan diren,  
 Guzien yabe izan nahia, zoin behera yaxi haizen  
 Franxesa zenekotzat hasi muguitzen,  
 hire eremuetan, bai khechu hintzen.

Nahiz mila lecoa behar den, ixasoen trebesatzen,  
 Choilki Aiphamen horrek berak hainitz hinduen loxatzen,  
 orai hor dituk Zebaztopol, bai eta ere Marina,  
 erakusteko on direnak berriz eguiten badira!  
 berriz eguiten badira. (biz)

Gure aitek osabarekin zuten kurrutu Rusia;  
 Mosku erre ez baliote harturen zuten guzia,  
 Harmetarat gueroztik meyoria,  
 bethi segur baitzuten garhaitia,  
 iloba gure buruzagui badukegu bai fidantzia,  
 exai guzien bentzutzeko izanen dugula gloria:  
 izan gaizkon gu ere leyal, yarraikiz arranoari,  
 Frantziaren izena atzetan gora derabilkanari,  
 gora derabilkanari. (biz)

Nazione hainitzak dire Frantziaren yelosian,  
 Zeren eta emana baita bertze guzien gainian,  
 Manatu duelakotz berak Russian,  
 beldurrez eguin dezan Mundu guzian,  
 Printzeak bere gorthetarik daude ikhara bizian  
 agur eta Sumizione buruan eta Mihian.  
 Biba gure Enperadorea, biba bethi Napoleon  
 Zu bezalako aita onik ezin guiniroken Nehon,  
 ezin guiniroken Nehon. (biz)

*Fait par L.E.*

#### 4

#### **AIREA: hau da ikhazketako Mandoaren traza**

Berxuak nahi ditut, orai athera,  
 ichilik banindago banuke pena  
 bainan Neke da!  
 Krenolinaz baizikan Solasik ez da  
 hauche da besta,  
 Satanek etzezaken bertzerik penxa.

Andreak eman zaizku, Krenolinetan,  
 beharragorik etzen, familietan,  
 Guehienetan,  
 horrek onduko gaitik, gure zorretan,  
 botika hetan,  
 Akabo, eroriak gaituk errekan.



Hamalau berga oyhal, ez duk ixusi  
 Krenolina batentzat, ez dela aski,  
 ez gaituk gaizki;  
 Moda hori lehenik nork du ikhasi,  
 eguiten hasi,  
 paga nezakek ongui nor den banaki.

Batzuek aise eta, bertzeak nekez,  
 Bazterrak bethe dira, bai, Krenolinez  
 Gauza ederrez!  
 Gupela bezain zabal dira beherez,  
 Konkorrak gainez!  
 Gorde behar litazke yenden ahalkez.

Iragan egun batez, zen Komedia,  
 plaza baten erdian, ikhusgarria,  
 hango irria;  
 Andre bat zen piayaz yoan nahia,  
 ezin abia!  
 Karrosan etziron sar guibel aldia.

Postillon bat Kaskoina, yuramentuka,  
 bethi Krenolinari eskuz pusaka,  
 Diu bibanka:  
 “Cenbat ehun puskez dun eguina hanka,  
 “hori dun arkha!  
 “Karrosan ez haiteke hola enbarka”

Lehen mintzatzen guinen, gu, alkharrekin,  
 Arthoz ezin ase asea zela gurekin,  
 bazen zer eguin:  
 Orai gure andreak denak Krenolin  
 alabak bardin!  
 Nola hari zaizkigun nork diro yakin.

Urguilu, Malurosa, hi, habilana  
 guri eman arazten hainbertze pena,  
 bai eta guerla  
 Krenolinak emaiten balauk orena  
 hilen haizena,  
 Gal dadien bethikhotz hire izena.

*Eguina lehengoak*

## 5

Ni ere baniagok entzunik berria  
 Noiz aguerturen zaikun goardian yarria,  
 Ongui berantexirik lan horren hastera  
 ez diat errech yasan iragan Urthea.

Boz bat, bethi hari duk oyhuz guizonari,  
Maitha dezala lana eta yarraik hari,  
Ohorez nahi bada Mundu huntan bici  
ez dakiola Urrun ez ibil ihesi.

Ihes eguinez gueroz guizonak lanari  
ez daitekela ongui, segura duk hori  
sinhexi behar dena, likek, eguiazki,  
bertzenaz izanen duk bethikotzat gaizki.

Lanak badik exai bat hainitz Aiphatua,  
Zori gaitzean baita, Sobra hedatua,  
Alferkeria, galkhor, delakotz Sorthua  
errorik gaichtoenez lurra dik hartua.

Alferkeriak ez dik asmatzen deus onik,  
harekin ez duk uros Sekulan guizonik,  
bicio tzarrak ere zabilzkok onkotik  
Phozoinik ere ez duk lanyerosagorik.

Alferkeria zer den, bai, Nolakoa den,  
ikhusia izan duk orai baino lehen,  
Solas ederrez baizen Nehor ez dik ontzen  
eta, itchura falxoz, gazte hainitz galtzen.

Hanbat, nerhabe badik, bereganaturik,  
Orai urrun daudenak Sor lekuetarik  
borz aldiz Urrikituz hari yarraikirik  
Ziotek ez dutela nehon deskanxurik.

Lurrean emana duk guizona laneko  
Denbora guzietan hartaz bizitzeko:  
izan dadien hurbil edo Urrunago,  
hura dik hazkurritzat Mundu huntan deno.

Ala! Alferkeria, zoin haizen tristea  
hobe lukek hi ganik Urrun egoitea,  
hire eguin, erranak guti Sinhestea  
bertzelakoa lukek hainitzen Zortheta.

*Par Elissamburu, Brigadier des Douanes à Acotz*

## 6

Ama dolorezkoa  
ez Nauzu ikhusten  
Ni maluros umea  
Preso, nola naizen  
Zu ez Nahiz Sinhexi,  
Zure eguietan  
Zer dudan ardiexi  
Ene eguietan.

Nigarrez Zaude, ama!  
Nitaz orrhoiturik,  
ez othoi hola pena  
ez da progotchurik:  
Premu, presondeguian  
Nago Sekulako!  
bizi naizen guzian  
ez Naiz atherako.

Oren tristean Nintzen  
duda gabe sorthu,  
exaya ordutik zen  
ene baithan Sarthu  
guidari on batentzat  
Nola; haurrek aita  
hartu Nuen enetzat  
ai! ni enozenta!

Pena zait erraitea  
Ni, zer izan naizen,  
bainan ama maitea!  
zuri dut aithortzen:  
ez ahal da gaizkirik  
lur hunen gainean?  
Nik eguin ez dudarik  
Zuk yakin gabean!

Grazia bat dut ama  
zuri galdeguiten,  
hitz dautzut ez dudala  
bertzerik eguinen.  
Nehork aiphatzen badu  
Nitaz zerbait berri!  
othoi Ukha Nezazu  
hala dut Merezi!

Aita dut indietan,  
ez dakit noiz danik!  
bizi da plazerretan  
ez du deusen Minik,  
haren itzala bera  
izan banu hemen!  
Segur da ez nintzela  
horrela galduren!

Gorputza dut ikharan  
 loxa arimatik!  
 zeren galdu ditudan  
 Diruaren gatik  
 ba! Nintzen ondikotzat  
 hala dohatua!  
 ez ezagutzekotzat  
 zer zen bekhatus!

*Par Elissamburu Brigadier des Douanes*

*AIPHAMEN ONA: ELISSAMBURURI (\*)*

CANTORE HUNENTZAT:

DANTZARIA

7

*AIREA: Orzirale arraxian  
 Garruzetik yin ninduyan, etc.*

Hu-pa, muthillak lorian  
 Nola choriak airean!  
 Heldu nauk zuen erdian,  
 Rau, riu, rau, rata-plau, rau, riu, rau,  
 Heldu nauk zuen erdian,  
 Besta baitugu herrian.

Hu-pa, aleguera gaiten,  
 Soinua hari da yoitent!  
 Yoan gaizkola du erraiten,  
 Rau, riu, etc.  
 Yoan gaizkola du erraiten,  
 Urthean behin bederen.

Hu-pa, huna beraz, plazan,  
 Aurthen ez baikinien izan!  
 Oro hari gaituk dantzan  
 Rau, riu, etc.  
 Oro hari gaituk dantzan,  
 Zaharrak gaztekin balxan.

---

(\*) Bayonne, imprimerie de Veuve Lamagnère, Rue Chegaray, 39.

Hu-pa, arreba Kattalin  
 Orai, ez dun, buruan min,  
 Badabiltzan oinak arin!

Rau, riu, etc.

Badabiltzan oinak arin!  
 Tumpaka ongui badakin.

Hu-pa, Maria, atzo hi  
 Ohetik ez hintzen yeiki,  
 Lanean hartzeko eri

Rau, riu, etc.

Lanean hartzeko eri,  
 Egun gurekin dantzari!

Hu-pa, hic soinularia  
 Ardura duk egarria  
 Hi ere gu iduria!

Rau, riu, etc.

Hi ere gu iduria,  
 Okasionez balia!

Hu-pa, gur'etchean, ama,  
 Oilasko hiltzen hari da!  
 Arnoak ez diro falta,

Rau, riu, etc.

Arnoak ez diro falta,  
 Bizi bada gure aita.

Hu-pa, ama ez dut nahi,  
 Khorda eman lephoari,  
 Gazte nahi naiz ibili,

Rau, riu, etc.

Gazte nahi naiz ibili,  
 Ezkontzaz ez aipha niri!

Hu-pa, etchean bi andre  
 Guerla bizia laiteke;  
 Mokhorra, ama zu ere!

Rau, riu, etc.

Mokhorra, ama zu ere  
 Bake onik ez guinuke.



## J.B. ELISSAMBURU ETA GRATIEN ADEMA

*Saran, 1991-XII-20*

*Piarres Xarritton*

Gratien Adéma eta Jean Baptiste Elissamburu, bi idazle lapurtar ditugu, maiz elkarri kontrajarri direnak: bat apezta eta kalonjea, bestea militarra eta kapitaina, bat erregetiarra eta xuria, bestea errepublikazalea eta gorria. Bizkitartean beste horrenbeste bederen bagenuke errateko, biak uztarri berean parekatu nahi bagenitu: biak berdin euskaltzaleak, biak berdin bertsozaleak, biak Larresoroko ikastegi berean eta irakasle beren aintzinean iraganak.

Horiek oro ordea presaka eta larri-larria ikusiak eta erranak dira, eta menturaz gauzen hurbilgotik ikertzeko ordua etorri zaigu, Elissamburu-ren mendeurrenaren karietara.

Hasteko ohartzen gara, Sara eta Senpereko auzo herrietan, eta biak urte berean, 1828an, senpertia apirilaren 14ean, eta saratarra abuztuaren 14ean, sortu baziren ere, ez zituztela Gratien Adémak eta Jean Baptiste Elissamburuk bizitzeko baldintza berak ohantzean aurkitu: Lehe-na ezen etxe oneko semea zen; aita kaskoina, Haute-Garonne-ko departamenduan jaioa, baina mediku bezala Senperen kokatua, etxeko alaba handiarekin ezkondurik. Honen emaztea eta Gratien tipiaren ama alabaina, Catherine Goyeneche, Jean Blaise Goyeneche (1778-1842), XIX. mendearen lehen herenean Lapurdik izan duen herri-gizon garrantzitsuenarik baten arreba zen. Honen etxean aterbetu ziren bai Josep Bonaparte erregea, 1814ean, bai Don Karlos erregea, 1839an, Hegoaldetik ihesi mugan iragan zirelarik, frantsesa eta espainola, bakoitza bere aldian (1).

Bigarrena, berriz ez zen handietarik, hamargarren haur sortua baitzen, Piarresenean bizi zen Elissamburu-Irazabal familian. Gehiago oraino, doi-doia zazpi urte zituelarik Jean Baptiste tipiak, ama Juana eta aita Mixel guarda, biak hil ziren hilabetea barne, familia desegin zen, eta

---

(1) "Gratien Adéma-Zalduby-ren bizia ta lanak", P. Charritton, *Mundaiz*, 1985, Donostia, n.º 29, 47. orr.

Janbattit tipia, Saran gelditu zen, Dominika, 21 urteko bere arreba gehienarekin. Gero, hortik landa, zer izan zen umezurtzaren bizia Saran, zuzen eta zehatz, ez dakigu. Jean Baptiste Etcheverry, Harizmendiko nausia baitzuen bataioko aitabitxi, erran izan da, honek begia atxiki ziola semebitxiari, burasoen ordeaz, eta eskolatzeko ere, honek zukeela lagundu, Larresoroko ikastetxera bidali baitzuten, baina ez dugu sinesten, eta hona zergatik:

Larresoroko paperak, Uztaritzeko ikastetxean direnak ikertzen direlarik, ikusten da hor, 1841eko urrian 6ean sartzen dela etxe horretan Gratien Adéma; 13 urte dituelarik ordukotz. Elissamburu-ren hatzik ez da ordea paper horietan ageri. 1843ko urrian zaiku agertzen, lehen aldikotz, saratar ikaslearen izena: 15 urte beteak ditu ordukotz, eta 7ean sartu dute. Ondoko ikasturtean ere 6ean dugu oraino gure gizonttoa, bere 16 urteekin, erran nahi baita, zinez maila apalarekin atera zela Sarako eskolatik. Nork edo zerk zuen beraz Larresoro-rat ekarri Janbattit Elissamburu, 1843ko urrietan? —Gure iduriko, bere haurride zaharragoen laguntzak beharbada, Léon eta Jean bi anaia guardenak bereziki, haurride horiek berek lagundu baitzuketen ere Jean Baptiste-n anaia tipiena, Martin, errient izateko doia eskolatzeko. Bestela erran genezake Sarako apezzenbaitek, Costes erretorak (1837-1866) edo Lartigoyen bikariak (1840-1845) ikusi zuela, komuniatzeko katixima egitearekin, buru ona zuela Piarreseneko umezurtzak, eta apezgai on bat egin zezakeela.

Dena dela, Larresoroko paperek salatzen digute oraino, bere frantseza apur bat finkatu ondoan lehen bi urtetan, J.B. Elissamburu, 6etik, 4era iragan zela, jautsian, 1845-1846eko ikasturtean. Adin bereko Gratien Adémak 2.egin zuen urte hartan.

Azken urte bat egiten dute oraino etxe berean, Larresoron, 1846-1847, Gratien Adémak 1. edo erretorika, eta J.B. Elissamburuk 3. Eta horretan amaitzen da bi lagunen Larresoroko egonaldia; senpertzarria Baionako seminariora baitoa filosofia ikasketak egitera apezteko xedetan, saratarra berriz etxera itzultzen, apezgorako bideari uko eginik —bide horren hartzeko gogorik izan bazuen bederen behinere— eta soldadogoko bideari laster lotzeko xedetan.

Ez da dudarik, Larresoroko seminarioan, Janbattit Elissamburuk, bere “adin ederrenean”, iragan zituen lau urteek eragin handia izan zutela haren bizian eta haren obran. Han aurkitu baitzituen gure ustez bere euskaltzaletasunaren eta bere kulturaren oinarriak.

Ez zen ez, egia erran, deus gabe etorria, bere sortetxetik Larresoro-rat, zeren Sarako Jean Mendiburu eskolako errientarengatik ez balin bazen ere, Sarako Amezket edo Piarres Adame, Bidarteko Martin, Hazparneko Bordaxuri edo Katxo, Urruñako Tipy, batzuen bertsoak entzu-



nak, eta menturaz ikasiak, baitzituzken ordukotz, auzoko arto-xuritzetan edo herriko bestetan, 15 urteko "ixtudiant" gazteak. Bazuen beraz zer kanta gure Elissamburuk, Larresoron aurkitu zituen bere adineko lagun zenbaitekin. Hor gaindi zebiltzan alabaina, bere adineko Gratien Adéma bezala, berak baino urte bat gazteago zuten Jean Gorostarsou, ezepletarra (1829-1868), *Orhi-ko xoria* eta beste bizpalau kantu ederrenetarik ontu ondoan, Parisen apez higaturik, bere Senpereko osaba baitan, 40 urteak jo gabe, hil behar zena; edo hiru urte zaharrago zuten Pierre Dourisboure, bezkoiztarra (1825-1890), Vietnam-eko "Bahnar" deitu jendaiaren alde erabili zituen urratsen berri idatzirik utzi diguna; eta orduan Larresorok zeuzkan 140 ikasletarik berak hurbilagoetik ezagutu zituen beste lagunak.

Baina Larresoron baziren ere ikaslez bestalde, irakasle ta buruzagiak: Hor aurkitzen ditugu izen batzu neretzat bederen ezezagunak: Vidal, Loustau, Durruty, Palassie Lartigau, Pascau, de Quevedo, apezzen izenak, beste zenbait ez hala arrotzak, hala nola Maisonnave, lehenik irakasle eta gero buruzagi (1851-1871) izan zenarena Leoutre ekonomiarena (1845-1851) berriz aipatuko dugunarena César Duvoisin (1805-1869) ezepletar apez historialari jakintsunarena, 33tik 45era Larresoron baitzegoen, Jaurethe kanboar apez sainduarena, hau Hazparnen bikari egon ondoan (1818-1821), Larresororat igorria izan zen eta gero han higatu zen 1873 arte, euskarazko bizpalau eliza liburu argitaratzen zituela eta ere euskal ortografiaren berrizalen artean, J.P. Duvoisin-en arabera, aintzindari agertzen zela. Puntu honetaz zeren dugu oroit, ikusten dugularik euskal ortografiaz zer axola izan zuten geroxago bai Elissamburuk, bai Adémak, haren bi ikasle ohiek.

Alta bada ezin dugu ere ahanz nor zuten urte haietan Larresoron buruzagia; Etienne Haramboure, ziburutar apeza (1799-1869), Baionako bikario nagusi izan aintzin, hamasei urtez, 34etik 50era, seminario horretan buru atxiki baitzuten. Eta Elissamburu ta Adémaren historiatik bizpalau puntu altxa ditzakegu hain zuzen, argi adierazten baitute zer gogorekin bideratzen zuen Haramboure buruzagiak bere etxea. Hanbat larderia zainduz, eta etxeko ohiturak begiratu, baina ateak hetsi gabe kanpoko berriei ta gatazkei.

Elisamburuk berak ez digu bere paper ainitzik utzi, baina bada haren kantu bat, batzutan *Infirmierian* deitzen dena eta beste batzutan *Boltixura*, eta orduan zalantzan gabilta Larresoron egin ote zuen ala soldadogoan, baina gure ustez ez da dudarik: Lehen hitza bera, Gratien Adéma Larresoroko lagunari buruz ari baita:

"Erran duzun bezala, *Grazien maitia*,  
Eritasun bat badut nik hainitz handia,  
Mafrundi ta sukarra, bat eta bertzea,  
Deus handirik ez dire, bainan gosetea".

“Gosetea”, hain zuzen aipagai izan dutela bi adiskidek badakigu bestalde. Gosete honen erantzulea bada ez da oraino “Betiri Sants”, “Leoutre” jaun ekonomia baizik, hemen “Leutre” bilakatzen dena 5. bertsoan:

“Eman zarotanean Leutrek afera,  
Gan nintzen berehala erien atera...”

Gero agerturik ere hor gaindi “Boltixur” bat edo beste, asma deza-kegu erraz izengaraitiko zerbait zitekela, umorea laket zuten etxe horretan aise sartua.

Bestalde Jean Haritschelhar-ek argitaratu zuen 1978an, Baionako Erakustokiko aldizkarian “Zumalakarregiren Kantia”, Pariseko “Bibliothèque Nationale” delako artxibategian, J.B. Eliçamburu et Adema, “étudiants de Larressore” titulupean aurkiturik eta geroztik Adéma-ren pape-retan nahaurek atzeman nuen —beste askoren artean— kantu beraren aldaki bat, Labayru-ren 4. “Gauontza” sortan argitaratu dudana (2).

Kantu hori baino lehen ordea, beste bat ere egina zuten elkarrekin, beren Larresoroko azken ikasturtean, bi lapurtar bertsolari gaztek, “Betiri Sants” deitu zutena, “erran nahi baita, 1846ean herri hauetan izan zen miseria”, eta Adémak beiratu duen eskuskribuak ekartzen duen bezala, “Jn Bte Eliçamburu eta Gen Adéma” sinatu aintzin, honela dio 24. eta azken bertsoak:

“Phertsutan hasi gare aurthen bi koplari,  
Ezagutarazteko mundu guziari,  
Zer plantetakoa den Santses de Betiri;  
Huntan finitzen dugu zuen zerbitzari.”

Bi kantu horiek eta beste zenbait ere agertu berri dira beren osotasunean, Klasikoak sailean, Ales Bengoetxeak prestatu duen Adéma Zalduburen kantika ta neurtitzen argitalpenean (3).

Hor ageri da ongi, guhaurk genioen bezala nola Haramboure apezak eta haren lagunek beiratu zuten fidelki beren irakaslekide zenak J.B. Camoussarry ziburutarrak (1815-1842) utzi zien ondoriotasun poetikoa. Ezen bere paperak eta kahierak halako artarekin apaindu eta begiratu dituen Adémari esker ezagutzen baititugu haren bertsoak, ohartzen gara,

---

(2) “Iparraldeko...”, P. Charritton, *XIX. mendeko olerki-bertsogintza*, 1990, “Gauontza sorta”, 4., Labayru, Bilbo, 51, 52. orr.

(1789-1850), Actes du Colloque International d’Etudes Basques “Quelques chansons basques de la première guerre carliste”, J. Haritschelhar, *Euskal Herria*, 1973, Bordeaux, Musée Basque Bayonne, 1978, 223-224. orr.

(3) “Kantikak eta Neurtitzak”, G. ADEMA-ZALDUBY, 1991, A. Bengoetxea, Klasikoak, 1991, 194-201, orr.

1840-1850 urteetan, Larresoroko euskalzaleek miresten, kopiatzen, ikasten eta imitatzen zituzten euskal olerkiak, Camoussarry-ren olerkiak zirela. Erran dugu gure bertsolari gazteek, Elissamburu, Adéma eta Gorostarsouk beste iturbururik ere bazuketela: oroit gaitezen, Hazparneko Katxok bertsoak eman zizkiola 1820-eko (?) goseteari (4) eta Adémak xahartu-ta kondatu zuenaren arabera, 1945-46 ean, Haramboure buruzagiak Iparragirre ekarrerazi zuela Baionatik Larresororat, ikasleen aintzinean kantuz hartzera, horrek erran nahi baitu nik uste, Zumalakarregi ta haren gizonen ta haren balentrien berri bazuketela Larresoroko ikasleek (5), Camoussarry-ren kantua entzun gabe ere.

Azkenik aitor dezakegu beste euskal idazle aintzek bezala —Mogel eta Iturriaga Hegoaldean, Goyetche eta Oxobi Iparraldean— gure bi Larresorrek beste literaturetan bilatzen zituzten ereduak ez zirela baitezpada maila goienekoak, baina soil-soilik alegien mailakoak. Gehiago oraino azkenera, eta landuaren landuz, grazia apur bat emaiten badiote gure Adémak eta Elissamburuk, sariak edekitzerainokoan, 1862 an “Apexa eta lorearekin”, Elissamburuk, 1873 an “Bildotsa eta Otsoa” eta “Belea eta Axeria”-rekin (6), Adémak, aitortu behar da utzi dizkiguten hastapeneko aldakiak, “La Fontaine”-n kalko hutsak direla (7).

“Azkarrenek dute arrozoina beti,  
Esplikaturen dut gauza hau laburki...” (Elissamburu).

edo

“Flakoaren kontra indarra duenak,  
Arrozoinak ditu beti azkarrenak” (Adéma).

Beste graziarik du egia erran 1873.eko aldakiak honela hasten denak:

“Primadera goiz batez, xirripa batera,  
Ama gabe bildotsa gan zen edatera...”.

azkenera uzten duelarik erakaspena:

“Azkarrak duenean partida flakoa,  
Hauzia zoinena den erran gabe doa...”.

Baina zorigaitzez, horretan uzteko partez —apezak azken hitza bere behar-bere katixima luzatzen du gero:

(4) “Frantzian zer den gertatu...”, 1900, M. Etcheto-Katxo Hazparnekoa, *Zazpiak bat, eskualdun kantuak*, Buenos-Aires, 52-54. orr.

(5) “Azpeitia, Les Fêtes Basques de 1893”, *Charles Bernadou*, 1894, Bayonne, 72-73. or.

(6) G. ADEMA-ZALDUBY, op. cit. 109. & 111. orr.

(7) Ikus urrunago G. Adéma-Zalduby ren eskuskribuetarik, Senpereko Dourisboure familiari esker, kopiatu ditugun bi aldakiak.

“Otsoak bildotxari egin zioena,  
Jainkorikan ez balitz, nork liro kondena?”.

Artetik erraiteko, Juan Antonio Mogel batek, apeza izanagatik hau ere, beste amaiera ustegabekoa eransten dio ipuinari: ea zer deritzaizuen?

“Eta bertan helduta gura eban egin  
Mila zati ta piska lau letaginekin.  
Honetara joiala bertan da agertuten  
Eiztari bat eta *dau bala bigaz ilten*:  
Halan kendu eutsazan gure Jaungoikuak  
Otsuari bildotsa jateko goguak!” (8).

Baina bego behin bazterrera, justiziaren egiteko grinak, euskaldun batzuen bihotza gaintitzen duelako historia hori. Alta bazuen Camoussarry-k ere olerki lazgarri bat “Mendekioa” deitua. Baina ez dugu horren kopiarik aurkitzen Larresoroko Adémaren lorategian. Hor daude aldiz “Donibane Lohizuneko gizon gazte baten heriotzeaz” Ziburutar apez gazteak ontu bederatzi bertsoak (9). Elissamburuk hain zuzen gai bera hautatu zuen 1860an Urruñako euskal bestetan lehen saria ereman zuelarik “Gazte hiltzera doana” izeneko kantuaekin. Gratien adiskideak irriño batekin egin zukeen bezala, guk ere parean jar genitzake bi kantuetako lehen bi lerroak:

“Hemeretzi urteak ez ditut orainik  
Eta hurbildua naiz hobirat jadanik...” (Camoussarry).

eta

“Hogoigarren urtera ari naiz hurbiltzen  
Eta nere oinetan tonba dut ikusten...” (Elissamburu).

Baina uste dut, ixilik egon bazen ere, orduan berean Otxalderen herrirat izendatu zuten erretor gaztea, handik hamabost urteen buruan, keinu xorrotx bat igorri nahi izan ziola honek bere bertsolarikide ohiari, “Betirisants” izenarekin eta “Utsalegi” sinaturik, errepublikaren kontrako bertso lerro bortitz bat aurkeztu zuelarik 1875ko euskal bestetara (10).

1879ko euskal jokoetan, Donostian, izan zuen Adémak erantzuna, Elissamburuk, “Lehen eta orai”-ekin, zinez polliki emana, bere adiskide apezari “Jainko legea” oroitarazi behar balio bezala.

(8) Juan Antonio Mogel-en alegiak, *Poesía bascongada*, 1987, “Otsua eta Bildotsa”, J. Kortazar & M. Billelabeitia-ren edizioa, Bilbo, 78-79. orr.

(9) (1815-1842), “Una primera aproximación a su vida y a su obra”, J.B. Camoussarry, 1988, M.G. Artola-Cornu, *A.S.J.U.*, Donostia, 421 & 431. orr.

(10) G. ADEMA-ZALDUBY, op. cit. 158-161. orr.

Baina bizitzeak elkarretarik urrundu bazituen gero Adéma eta Elissamburu, Larresoroko adiskide xaharrak, hona non heriotzeak berriz hurbilduko dituen: 1890.eko uztailean, Gratien Adéma, Atarratzeko apez-nausia, apezpikuak izendatzen du, Baionako katedraleko kalonje, eta ondoko urtean Jan-Battit Elissamburu hil zorian gertatzen delarik, bere Sarako herrian, berehala badoakio Baionatik laguntzera, Gratien apeza, bere adixkide xaharra.

Ondorioz badirudi orduan, Adéma kalonjea ez zela bakarrik Elissamburu aspaldiko lagunarekin baketu, baina adiskidetu zela ere, Guilbeau, eta Elissambururen lagun errepublikazale euskaldun buruzagi batzuekin bederen, ezen hortik hara, eta bururaino, ikusiko ditugu Adéma “xuria” eta Guilbeau “gorria” eskuz-esku lanean, Hendaia eta Hondarribiako euskal ortografiaren aldeko biltzar famatuen antolatzen, 1901 eta 1902 an; Euskalzaleen Biltzarraren sortzen, eta honen buru bezala Zalduby, eta idazkari, Martin Guilbeau jartzen (11).

Erran genezake azkenean, Gratien Adéma eta Jean Baptiste Elissamburu euskaltzale gazteen artean Larresoron, 1845-46. urteetan sortu adixkidantza aberatsak, bere gorabehera guzien gatik, eman zituela heriotzearen haraindiraino emaitza oparoak.

---

(11) MARTIN GILBEAU (1839-1912) Urruñan sortua, 1869.an Donibane Lohizunen mediku jarria gero Donibaneko auzapez sartua, 1878.tik 1888.arte, gazterik euskaltzale eta errepublikazale bezala ezagutua; Jose Manterolaren lankidea, Elissambururen adiskidea eta Gratien Adéma-rekin batean Euskalzaleen Biltzarraren sortzailea.

## ERANSKINAK

## I

## OTSOA ETA BILDOTSA

Azkarrenek dute arrozoina beti

Esplikaturen dut gauza hau laburki.

Bildots inozent bat egarritu-eta,  
 Xirripa batean edaten hasten da,  
 Otso bat heldu da denbora berian,  
 Estomaka arin, gosiak errabian:  
 “Pendant tzarra —dio bildots gaixoari,  
 —Zertako zikindu derautak ur hori?  
 Gaixtakeria hoi behar duk pagatu.”  
 —“Jauna ez zinuke behar hasarratu,  
 Hogoï pausuz zutaz beherago nintzen,  
 Eta ez nerautzun nik ura zikintzen.”  
 —“Zikindu duk, —dio bestia kruelak,  
 —Eta jaz egin tuk hire egin ahalak,  
 Galarazi nahiz nere ohorea,  
 Orai zuzen zautak hire punitzea.”  
 —“Orduan oraino bizi ez banintzen  
 Nondik zure kontra deus egin nezaken?”  
 —“hire anaia duk, hi ez balin bahaiz!”  
 —“Ez dut anaiarik, ume bakarra naiz.”  
 —“Hi ez balin bahaiz, ez anaia ere,  
 Bazakiat, hire aita duk bedere,  
 Zuen xakur, artzain eta ahaidiak,  
 Nere kontra mintzo zarete guziak,  
 Asa! oraikotik, jadanik ordu duk,  
 Hire hobonentzat pekatu behar tuk.”  
 Orduan mustroak bere errabian,  
 Hartzen du bildotsa haginaren artian,  
 Eta erematen desertu batera,  
 Umei emateko, puskatuz, jatera.

J.B. Eliçamburu

## II

## OTSOA ETA BILDOTSA

Flakoaren kontra indarra duenak,  
Arrozoinak ditu beti azkarrenak.

Bildots ttikitto bat behin edatera,  
Bakarrik joana zen xirripa batera;  
Otso bat heldu da denbora berian,  
Estomaka arin, gosiak errabian,  
“Pendart tzarra, —dio bildots gaixoari—  
Zertako zikindu derautak ur hori?  
Gaixtakeria hoi behar duk pagatu.”  
—“Jauna, ez zinuek behar hasarratu,  
Hogoi pausuz zutaz beherago nintzen  
Eta ez nerautzun nik ura zikintzen.”  
—“Zikindu duk, —dio otsoak oihuka,  
Hori ez zakala nere bistan uka!  
Uste duka naski nik ez dakitala,  
Neretzat zer nahi jaz erran dukala,  
Ene ohorea nahiz galarazi!”  
—“Orduan oraino ez banintzen bizi,  
Nola nahi duzu, hori egin nezan?  
Ez naiteke hortaz ni hobendun izan.”  
—“Hire anaia duk, hi ez balin bahaiz!”  
—“Ez dut anaiarik, ume bakarra naiz!”  
—“Hi ez balin bahaiz, ez anaia ere,  
Bazakiat, hire aita duk bedere,  
Aintzin hortan ere hire ahaidiak  
Nere kontra mintzo zitukan guziak!  
Asa, oraikotik behar tuk pekatu,  
Ezen sobra daiat jadanik barkatu!”  
Orduan otsoak, bere errabian,  
Hartzen du bildotsa haginaren artian  
Eta eremaiten oihanpe batera,  
Umei emateko puskatuz, jatera.





## NOR ZEN TTIPI URRUÑARRA

Sara, 1991-XII-20

Piarres Andiazabal

### NOR ZEN TTIPI URRUÑARRA

“Dama gazte xarman bat jiten zaut bixtara,  
Iduritzen baitzeraut zeruko izarra.”

Nork ez du ezagutzen kantu eder hori? Piarres Lafitte zenak agitaratu zuen “Kantuz” liburuan dago, 57 zenbakiarekin, eta kantuaren ondolik beti irakurtu dugu egilearen izena: Ttipi Urruñarra. Baina nor zen delako Ttipi hori, nehork ezin erran. Izengoiti edo ezizen bat zela, ez da dudarik.

Lafitte behin baino gehiagotan entseiatu zen jakiterat nor zen: ikerketa bat egin-arazi zuen 1941-an, haren paperetan aurkitu dudan gutun batek dioen bezala.

Huna beraz Jean Fourcade jaunari igorri zion letra. Jaun hori, sortzez Baionakoa zen, baina urruñar batekin ezkondurik, Urruñan bizi zen. Ordukotz liburu bat bazuen egina: *Sur la frontière d'Espagne - Petite histoire d'un village du Labourd: Urrugne* (1939 Bayonne), eta beste bat apailatzen ari zen.

Piarres Lafitten gutuna Jean Fourcaderi igorria:

Ustaritz le 27 fev. 1941

Mon cher ami,

Je viens vous demander un service... littéraire. Il s'agirait de retrouver des renseignements sur l'ancien versificateur Ttipi d'Urrugne: je crois fort qu'il s'appelait Elissalde. Il fit un chant, paraît-il, pour la réception de l'empereur. Il est en tout cas, l'auteur du n° 57 de *Kantuz*. Tachez de dénicher ses dates de naissance et de mort, le nom de sa maison et ce qu'on raconte encore de lui.

Y a-t-il d'autres versificateurs d'Urrugne? Je crois fort que Harlouchi, auteur du n° 35, était aussi de votre commune. N'y a-t-il pas une

maison Harluchia? Je crois que l'auteur était en Amérique, quand il composa ses chansons...

Je m'excuse de vous lancer ser de telles pistes par le temps qui court. Mais s'il faut attendre le "bon" temps, je crois qu'il vaut mieux renoncer à tout. Bon courage, donc, mon cher ami!

Je vous prie d'agréer mes meilleurs sentiments régionalistes.

*P. Lafitte*

Letra horren ondotik, paper berean Fourcadek emaiten du bere erantzuna: parte bat aise irakur ditake; bestea ez: Ttipi Maingocoborda -journalier - + vers 1880 65 ans? Voir?

Fourcadek emaiten dion erantzuna gutun berean:

“dit par Ttipi à l'arrivée de l'abbé Lissarague en 1876 -  
Herri huntako erretor berri  
Erraiten dautzut egia  
Egun guzietz segitzen duzu  
Jesu Christoren legia”

Gutun horrekin bazen beste bat, Ithurburu, orduan Urruñako bika-rio edo laguntzaile zen apezak igorria...

Urrugne, le 29 mars 1941

Cher Monsieur l'abbé

Prié par M. Fourcade de mener l'enquête dont vous l'aviez chargé, je viens enfin vous répondre. Je vous prierai d'abord d'excuser mon retard provoqué uniquement par mes diverses occupations.

Je vous renvoie votre lettre avec les petites indications que Mr Fourcade y a apposées. En réalité il y a eu à Urrugne deux "Ttipi": le père, un as bertsulari et son fils, moins bon. Du père on connaît peu de choses, étant donné que personne maintenant n'a pu le connaître Le fils (et la fille) que l'on appelait "okherra" l'étaient au propre et au figuré. Borgnes et ce que l'on appelle ici "yende trastiak": ils sont connus surtout par leurs drôleries; Les vers que vous connaissez de Ttipi sont du père. Je suis allé consulter une vieille de 84 ans pour recueillir les chants sur Napoléon III La mémoire lui faisant un peu défaut à cause de son grand âge et de sa maladie, je n'ai pu inscrire que de bribes de ces bertsu:

## Sur Napoléon (1852)

Mila zortzi ehun eta berrogoi-ta hamabi  
 Ezarrinahi zinduzket zombait bertsu berri  
 Ohore emaiteko Napoleoni  
 Zorionean dela gu ganat ethorri  
 Tranquil nahi guinduzkela guziak ezarri

Orai aguertzen zauku guri iguzkia  
 Arguitzen duelarik Frantzia guzia  
 .....

Napoleon Frantzian hirugarren zare  
 Osaba eta iloba Emperadore  
 Gu heien zerbitzatzen ibiliak gare  
 Zerbitzatuko zaitugu adinean zahartuak izanik ere

Napoleon har zazu kuraye  
 gure zergitatzerat beldurrik gabe

Napoleonek hola manatzen du  
 Izan obediente, hola galdatzen du  
 Bertzela nahikotu zorrak zuzendu  
 Hemen zuhurra denak, sinhesten ahal du.

Otrichia yin zauku orai errespetuan  
 Bere beldurrarekin chapela eskuan  
 Napoleon zaharra hil zuten orduan  
 Ez baitzuten phensatzen bertze Napoleonik bazela munduan

Otrichia bezala Anglesa ere  
 Segurra naiz ez dela beldurrik gabe  
 Leheneko aferez orhoitzen dire  
 Napoleon zaharra han galdurik ere  
 Iloba hemen dugu, harendako orde  
 Zoina egin baitute emperadore

Napoleon zaharra huntan zen trompatu  
 Angleterran zuen egoitza hautatu  
 Kriminel bat bezela zuten tratatu  
 Ilobak nahiko tu zorrak pagatu

Egin izan zitzaioten hoimbertzte obra  
 Onikan baterez, gaichtotikan sobra  
 Errencompetsekin iloba hor da  
 Othoi ez berantetsi! Yinen da dembora  
 Zuek izana gatik burua gogorra  
 Arrazoina nork duen agueriko da

Horra hamabi bertsu  
 Urruñatik atheratzen direnak Ttipi baitharikan  
 Nihor gustatzen bada pheza huntarikan  
 Zerbitzaturen ditut nik duanikan  
 Ez da bertze phezarik nere botikan!

*Ttipi*

Sur Arluxi (de la maison Arluchia) on ne sait rien, ou si peu que rien. Il partit en Amérique très jeune et ... c'est tout ce qu'on en sait.

Excusez, cher Monsieur l'abbé, ma documentation réellement défectueuse... j'ai fait de mon mieux. Il paraît que Ttipi a fait des vers fameux sur le jugement dernier que l'on est prêt à me communiquer sur un simple désir.

Votre dévoué P. Ithurburu, vicaire

Beraz ikerketa horrek argi guti eman zion, eta Lafitte bere hartan egonen da: Elissalde zukeela izena gure Ttipik. Eta izen horrekin ekarria da bai Xanti Onaindiaren liburuan (*Milla euskal olerki eder*), bai berriki atera den Patri Urkizuren liburuan. Artetik erran behar da ez dakigula nondik atera duen Onaindiak apaiza zela gure Ttipi.

Horiek hola, Lafitte zenaren paperak miatzen ari nintzelarik, kausitu nituen Maurice Harriet apezak Larresoroko Semenariolari utzi zizkion esku-iskribuak, eta horien artean gutun bat, honi igorria: Monsieur Harriet, directeur du Grand Séminaire, Bayonne. Eta gutun horretan, bertsuak; eta bertsuen ondotik egilearen izena, honela emana:

“Urruñan eguina abustuaren 13an 1853. Martin Halsouet dit Ttipi”.

Bertsuen gaia: Montebideorat joaitea.

Hain xuxen urte hartan izan zen Urruñako bestetako lehen bertsu lehiaketa, Antoine d'Abbadie d'Arrastek eta Urruñako auzapezak eratua, orduko afixa batek dioen bezala:

“Nota: Pilota partida baino lehen, iñanen da goraki eçagut aracia pherxuetaco guduan garaia eraman duena, eta harc eguin pherxuak iñanen dire cantatuac herrico guiçon gazte hortaraco berechi eta irakhaxiez, çoinekin aldizcatuko baita musicari gor-phutz bat: eta ondoan, pherxuetan garaitu duenari emanen çaiçco, Antonio d'ABBADIE yaunaren partezco untçaco urrea eta ohorezco makila”.

Eguina Urruñaco herrico etchean Agorrillaren 29an 1853an.  
 Baldarapheça, A. de LARRALDE - DIUSTEGUY”.

Hau da, dudarik gabe, Elizanbururen omena egin duen kantua, Nere etxea edo Laboraria (Elizanburuk hala zioen) baino Ikusten duzu goizean bezala ezagutuagoa. "Etxe zuria" izenez ere ezagutua.

Kantu honek Euskal Herriaren itzulia egin bide zuen berehala; hain zuzen, ainitz tokitan argitaratua izan bait da, berehala xuberotartua izan bait zen eta arrakastarik handiena bildu ondoren oraindik ere bizi bizirik bait dirau zazpi Euskal Herrietan.

Errotarena Jaunak Euskal Erakustokiko aldizkarian (1941) lan eder bat (10) egin zuen kantu hontaz. Lan horretan dio Elizanburuk bere

---

(10) Guk dakigunez lehen aldikoz aipatzen da hemen esku-liburua.

esku-liburuan aurkezten zuen musika, oraikoa baino zaharragoa, ainitzez ederragoa zela. Errotarenak lan hortan berean kantu osoa esku-liburutik zuzenean kopiaturik ematen du.

Aipagarria ere kantu horren sortzeaz aipatzen den ixtorio xarmant bat: Ihizira joanak omen ziren Elizanburu eta zonbait lagun, Gustave Leremboire barne. Elizanburu bide-gurutze batean utzirik bertzeak han-hemenka barreaturik, horrela pasatu omen zuten eguna. Baina Elizanburuk ez zuen erbirik ikusi, alta bertzeak segur ziren bera egona zen tokitik pasatuak zirela.

Erbirik ikusi ez baina “Nere etxea” kantu eder hori ondu omen zuen gure Saratarrak. Ondoren, Etxegaraian, adiskide eta ihizi-lagun zen Gustave Leremboiren etxean abestu omen zuen delako *Ikusten duzu goizean*.

Gertatua, aldiz, ez bide izan zen horrela. Kantu hori 1862 urtean egina zen (edo lehenago), Elizanburu Euskal Herritik urrun, armadan, zelarik. Gustave Leremboire ez zen Etxegaraian bizi, eta gizon hori, 1847ko ekainaren 13an sortua izanik, ez zituen orduan 14 urte inguru baizik! Ez bide zen adin hortako mutikoa, 34 urtetako gizon baten adiskide eta ihizi-lagun, ez eta ere Etxegaraiaiko etxeko jauna!!

*Maria* (1866 - Elizanburu armadan, 38 urte) - Esku-liburuan hirugarren kantua 6/7/8.

Sarako 1866ko bertso gudian lehen saria ukan zuen poema honek. Kasu honetan ere, kantu-egileak ez zuen bere izena eman eta *Le Courier* kasetak (31.08.1866) egile ez ezagunari galde egiten zion bere burua ager zezan.

Berehala jakin zen Elizanburu zela kantuaren ontzailea.

Elizanbururen izenez argitaratu zuen Manterolak *Cancionero Basco* kantu bilduman 1878an, egilearen beraren itzulpen frantsesarekin batera, eta kantu eta pianoarentzat musika antolamendu batez lagundua. Airea herriak erabiltzen zuen “Ikazketako mandoa” izeneko da.

1885ean *RBPL* aldizkariak publikatu zuen.

*Xori berriketaria* (1869 - Elizanburuk 41 urte) - Esku-liburuan 10. - 20/21.

Xori berriketaria kantua 1869 eko Sarako jokoetara igorria izan zen baina sobera berant. *Le Courier* kasetak (5.09.1869) hala zioen: “Xori berriketaria”, “Jeus” eta “Kanperits” lanak berantegi iritsi dira... bainan heldu den urteko sariketara aurkezten ahal dira...’

1870ean ez zen euskal jokorik izan... Sedaneko gertaerak.



1871ko Sarako bestetan lehen saria bildu zuen kantuak *Xori berriketaria* izena zuen eta Doyarzabal izenpean aurkeztua izan zen. Vinsonek (RL 1872) eta Duvoisinek ere (*Le Courier* kasetan), Doyarzabal egiazko izen bat ez zela, izenorde bat baizik zioten. Geroztik, Elizanbururena bezala onartua izan da.

1897ko buruilaren 13an, Sarako bestetan, Elizanbururen omenezko egun xoragarri bat ospatu zen, Euskaldun Batzarrak (Association Basque) antolaturik. Elkarte honen lehendakari zen (eta Donibane-Lohizuneko auzapez) Guilbeau jaunak egin zuen hitzaldian, bertze gauzen artean hauxe erran zuen: "... Eta bertze hainitzen artean izendatuko ditut: *Maria, Apexa eta Lorea, Xori berriketaria, Eskuara-Eskualduna...* Zer hitz sarkorrak! Zer sentimendu eztiak eta guziz bihotzerat dohatzinak".

Guilbeau jaunaren hitzaldiaren zati hau eman dugu, hain zuzen Dassance jaunaren ustez kantu hori Guilbeaurena da... uste hori Duvoisine n paperetan ikusi zuen ohar batetan oinarritzen duelarik...

*Biba Frantzia* (Esku-liburuan 8. kantua - 17)

Lehen argitaratze ezagutua: *Almanaka* 1891n.

Labaienen ustez 1870ean Frantziako Inperioak jasan zuen zafraldia alemanen eskutik izan zitekeen kantu honen eragile, artean Elizanburu Inperioaren armadako kapitaina bait zen... Dena den kantuan berean "urte guti du" erraten du Alemaniak Frantzia bentzutu zuela adieraziz... beraz, 1873-1874 ingurukoa.

*Lehen eta orai* (1879 - Elizanburu Euskal Herrian da, 51 urte) esku-liburuan 11. kantua - 22/23.

1879an Elizondon ospatu ziren Abadiak antolatutako bestak. Donostian ere, lehen aldikotz, euskal besta handiak izen ziren. Elizanburuk ez zuen deus aurkeztu Elizondon, bai aldiz Donostian. Donostiako sariketetan ba ziren hitz neurtuetako sariak eta ere hitz laxozko lanentzat.

Elizanbururen bi obra izan ziren sariketa horietan aipatuak:

– Hitz laxoz: *Piarres Adame* eleberri ttipiaren pasarte bat.

– Hitz neurtuz: Lehen eta orai.

"Lehen eta orai" dugu bertsuzko soziala ala politikazkoa den Elizanbururen lan bakarra. Erran dugunez Elizanburu Euskal Herriratua zen eta bertan gertatzen ziren politikazko gatazketan parte hartzen zuela gauza ezaguna da. Denboraldi haietako giroak bultzaturik-edo, bertsotan ere, errepublikari buruzko atxikimendua agertu zuen garbiki.

Zergatik igorri ote zituen bertsu horiek Donostiara eta ez Elizondora? Ba ote zen hautu horretan politikazko arrazoinik, ala soilki Manterolaren

adiskidetasunak erakarri zuen Saratarra Donostiara? Lan honen airea ezagutua zen: “Bidarraitana nuzu...”.

*Aingeru bati* Esku-liburuan 9. kantua 18/19.

*Euskal Erria* aldizkariak 1880an argitara eman zuen poema hau, piano eta abotsarentzat eginikako musika eta guzi. Ondoan, Elizanbururen beraren frantses itzulpena.

Noiz egina izan ote zen kantu hau? Ez da ezinezkoa 1880 urtea baino lehenagokoa izatea, baina ez dugu bertze argitasunik hortaz.

*Eskuara eta eskualdunak* - Esku-liburuan 12. kantua 24/25 1880koa “Milazortzi ehun eta lauetan hogoietan, bertsu berri nauk eman dire aire zahar batean”.

1882an *Euskal Erria* aldizkariak argitaratua. Urte berean ere *Revista Euskara* aldizkariak Iruñean.

Kantu hau ditaike Elizanbururengan sortu zen euskaldun kontzientzia berriaren adierazgarria. Izan ere, ordu arte kantatu zituen Herriarekiko amodioa, baita ere gizon-emazteen arteko amodioa. Bertzalde kantatu zuen ere Errepublikaren aldeko atxikimendua etabar.

Lan honetan, lehen aldikotz Euskal Herriaren ideia orokor bat azaltzen zaigu: Guziak bat, mendien bi aldetan... anaiak ziren... aitaso kantabreak... eta azken bertsuari Anaiak gaituk, Eskualdunak, orai ere oxala! Jartzen bagine “Guziak bat” lehenago bezala!!!

Erran behar da urte haietan gertatu zela Ipar aldetik Hego aldera iragan zela euskararen aldeko borroka. 25 urtez Ipar Euskal Herriaren Abadiaren bestak ospatu ondoren, 1879an Elizondon egin ziren goraki. Ordukotz Iruñean Asociacion Euskara elkarteak antolatua zen, eta segidan Abadiarekin hartu-emanetan emanik eta baita ere Donostiako Manterola jaunarekin, Elizondora eraman zuten urte hartako Abadiaren Euskal besta.

Bertara joan ziren ere Abadiak bertzalde Duvoisin eta ere bizkaitarrak, gipuzkoarrak, hots, zapzi probintzietakoak.

Urte horretan handizki irabazi zuen saria poeta bizkaitar berri bat izan zen: Arrese Beitia, (Ama euskeriari azken agurrak!!).

Urte haietako gertakari horiek ez bide utzi zuten gure Elizanburu erantzunik gabe eta *Eskuara eta Eskualdunak* poema horren froga litaik.

*Gizon zuhurra* edo *Zapataina* - Esku-liburuan 5. kantua 10/11.

Erran dugunez gerora Piarres Adame liburuaren barnean (bigarren atalean) emana izan zen kantu eder hau, baina ez da hala gertatzen esku-liburuan.

Lan honen argitaratzerik zaharrena, beraz, 1882 eko *Euskal Erria* aldizkariarena litzake.

*Lau andren besta (amets bat) iragan besta bigarreanean* (Esku-liburuaren 7.kantua - 14/15/16).

Lehen argitaratze ezagutua 1882an *Almanaka* berrian eta geroago: *Euskal Erria* aldizkarian 1897an, Elizanbururen irudia ondoan.

Guilbeau jaunak Saran egin hitzaldian (13.09.1897) Elizanbururena dela dio, eta Lafitte jaunak 1941ean egin hitzaldi batetan ber gauza onartzen du.

*Maite zaitut* (Esku-liburuan 15. kantua - 29).

Jada erran dugun bezala bere kantutegiko azken lana izanik ondotik izkiriatu zuen 1er Octobre 1885 eta sinadura bat.

Sarako 1885eko jokoetan Eyheraburu izenpean aurkeztua.

Duvoisinek *Le Courier* kasetan (12.12.1885) hauxe zioen: “passée au nom de Eyheraburu, elle sent son Elissamburu à une lieue à la ronde”.

Geroztik eta beti Elizanbururena bezala onartua.

1886an *RBPL* aldizkariak argitaratua.

### **Esku-liburuan ez diren lanak**

**Hitz neurtuzkoak:** *Eritegian* edo Boltixurrak, gazte denboretakoa, iduriz.

Hitz laxozkoak: zombait gutun, horietan bat Manterolari egina eta *Euskal Erria* aldizkarian 1880an argitaratua Hartxuria mendiaren izenari buruz. Bertzalde politikazko artikuluak, eta aipatuena Errepublikak bakea da (L’Avenir 2.10.1880) eta Eskualdun batek Eskualduneri (L’Avenir 8.11.1881).

\* \* \*

Labaienen lanaren ondotik, Villasante, Onaindia eta Estornes Lasaren ondotik ere ainitz tokitan agertzen dira hainbat kantu Elizanbururenak bezala.

Horra zoin diren kantu horiek:

A) *Emazte edalea* Urruñan 1855ean lehen saria

*Dantzaria* Urruñan 1860an aipatua.

*Tan tan tan tan rapetaplan* Urruñan 1858an lehen saria.

Lehen biak, *Emazte edalea* eta *Dantzaria* Léon Elizanbururenak (Jean Baptistaren anaia) dira dudarik gabe. Hirugarrena ere menturaz.

Oharra: Léon Elizanburu Ortaizen sortua (1.03.1816, Urruñan bizi izana. Aduanako enpleatua, brigadier gradoraino igana. Uztaritzen ehortzia (13.06.1861) 45 urtetan.

B) *Artzaingoa* Saran 1865ean lehen saria (Larralderen Eri bat erretiratuz geroz)

*Laboraria*, Saran 1866an aipatua.

*Oraiko neskaxa batzu* Saran 1867an lehen saria.

Hiru kantu horiek Jean Berges (edo Vergez) Saratarrak idatziak dira.

Oharra: Jean Berges ez zen Saran sortu ez eta ere ezkondu. Emaztea Urruñarra zuen (Catherine Subelzu). Sarako Agerreko maizter izan zen eta bertan hil zen 1885ko abenduaren 27an, 78 urtetan.

C) *Solferinoko itsua*

1864an, Saran, bigarren saria ukan zuen lan honek. A Sallaberryk izkiriatua.

D) *Xori kaiolatik ihesi goan dena*

Donapaleun 1877an lehen saria. Egilea Darroupe Harluz. 1879an Elizondon bere kantu batek “Adios Amerikari” lehen aipamen ona bildu zuen, eta orduko kasetek horrela zioten: “Amerikarik igorria”.

\* \* \*

## ELIZANBURU NOLAKOA OTE ZEN

Elizanburu eta Sara azkenerako utziaz erran dezadan gure poetari buruz zombait xehetasun ikasi baditugu ere, ez dudala, nik segurik, aski ezagutzen eta badela beraz gaia bertze iker lanentzat.

Halere zombait argitasun nahi nituzke azaldu.

*Fisikoa*. Gizon handiskoa zen, armadako paperetan ageri denez: 1,79. Aurpegia luzezkoa omen zuen, sudurra luzea, ahoa eta kokotza normalak, begiak, biloa, bekainak gaztain kolorekoak. (24.08.1857 ko agiri batetan; 29 urte).

1861ean “Régiment de Grenadiers de la Garde Impériale” delakoan sartzeari buruzko paperetan “très bel homme” zela erraten da bietan.

Eta beti errepikatzen zuten: “robuste”, “vigoureux”, eta holakoak.

Bi argazki izan omen ziren, bata Sarako Herriko-Etxean Labaien jaunak ikusia, bigarrena Gregorio Muxika jaunak argitara emana: bietan militar jantzietan da... Bada bertze itxura bat zibilizatuagoa (edo zibilagoa bederen) Eizagirre jaunak marraztua eta mendeurrenkari lau haizetara zabaldua izan dena.

*Izpiritua.* “Intelligent”, “zélé”, “bon serviteur”, “conduite irréprochable”, “capable” eta holakoak maiz ageri dira armadako paperetan. Bertzalde soldadoen errespetoa eta maitasuna eragiten omen zuen...

Horiek denak irakurri eta iduri luke gure Elizanburu euskaldun estereotipo bat dela...

Zergatik sartu ote zen armadara, 20 urtetan, hein batean eskolatua zen Saratar gaztea? Jakin behar da urte horiek bortitzak izan zirela Pirenetako populazione guzientzat eta Ipar Euskal Herriarentzat ere, eta behar bada Armada aterabide bat baizik ez zen izan. Armada utzi ondoren berriro Saran plantaturik Manterolari egin gutun batetan (12.04.1880) hauxe zion: “Nor eta zer naizen? Euskaldun soldado zahar bat, 30 urtez nere herri maitetik urrun ibili ondoan, berriz ere (agian betikotz) nere Sorlekura bildua. Hogeitaz urte nituelarik izan banitu hamar mila errenta, uste dut ez nuela nere Euskal herri maitea sekulan utziko, eta gerlan edo gerlako gauzetan iragan edo galdu dutan denbora, hobeki iraganen nuela, zuk egiten duzun bezala, gure mintzaira Euskara ederrean zerbait entsaioren egiten. Orai berantegi da”.

Beraz, dolutua bezala agertzen da bere biziaz...

Hor gelditzen dira gerlak... Afrikan (behar bada Kabilian).

Hor gelditzen dira Enperadorearen Armadan eman urteak...

“La Commune” delakoaren errepresio bortitza (Errepublikari berriaren lehen ekintzetarik)...

Orobat, berantegi Enperadorearen kontrako kritika latzak.

Beraz, zinez, ez dakigu xuxen bere ideiak ez ote zituen nagusien aireerat itzulikatzen...

Bego galdea galde bezala...

## ELIZANBURU ETA SARAKO HERRIA

Dakigunez Piarresenean sortu, Adametan lehenik, Granadan ondoren, gero ez dakigu xuxen nun, J.B. Elizanbururen haurtzaroa Saran gertatzen da.

Zazpi urtetan umezurtz, 14/15 urte inguru zituelarik joan zen Larresoroko Semenariora. Larresoroko urte haietan, 1847 urtea arte, han bizi izan zen, eta ez dakigu Sarara maiz joaten zenentz, ez dakigu beraz, gaztaroko urtetan Sarako herriarekin hartu-eman ainitz izan ote zituen. Dena den, gauza ageria da euskara arrunt Saratarra duela eta ez duela, iduriz, buraso baxenabartarren hizkuntzaren influentziarik.

1849an armadara abiatu zitzaigun eta 30 urte egin zituen bertan.

Nolatan hasi ote zen bertso jokoetan parte hartzen?

Ba ditaike Abadiaren besten berri izaitea, bai kaseten bidez, bai eta ere Leon anaiari esker. Hain zuzen ere Leon Aduanako brigadier gradoa erdietsi zuena, Urruñako Frantxbaita etxean bizi izan zen zonbait urtez (Bertan sortu zitzaizkion bi haur 1848 eta 1851 urtetan). Ez da ezina urte haietan J.B. Elizanburu noiz behinka Urruñara joatea, eta Urruñako euskal bestak (1853an abiatu zirenak) ezagutzea. Leon, jadanik erran dugunez, 1855 ean, Urruñako euskal bestetako lehen saria bildu zuen *Emazte edalea* kantuz.

Denbora haietan ba ote zuen Elizanburuk loturarik Sarako herriarekin? Dominique arreba San bizi zen artean...

Baina Elizanburu urrun izan arren, dudarik gabe gogoan ditu bai Sara bere sorterrria bai euskara. Horra Elizanbururen omenez egindako hitzaldian Guilbeau jaunak zer zioen (1897); “Bere ibiltze guzietan eta non nahi gerta zadien, Elizanburu oroitzen zen beti bere Sara maiteaz, eta Eskual Herriaz. Zenbat aldiz urrun Parisen, eta bertze tokitan zelarik ez zuen erraiten ohi bere adixkideri: ‘Bi gauza ditut eskas lurrean zorion osoa izaiteko, emazte bat Eskual Herriko Alaba, eta gero Larrungo mendiaren gerizean etxolatto bat aldapa baten gainean’ eta hala gertatu zitzaion”.

Eta badugu ustea *Agur nere herriari* kantu ederra ondu zuelarik (1861ean Urruñan aurkeztua) Sara zuela gogoan: “agur, agur herria, agur sorlekua, agur nere haurreko, leku maitatua”...

Eta erran genezake ere kanturik ezagutuena den “Nere etxea”, Euskal Herriko edozein etxeari buruz egina izanik ere, Sarari pentsatuz egin zuela.

Baina ez zuen erdietsi, berehala bederen, Sarara itzultzea.

1860ez geroz euskal kultur munduan ezagutua da, baina Euskal Herritik urrun bizi da, han hemenka, armada frantsesana.

Noiz ezagutu ote zuen geroago (1874an) bere emaztea bilakatuko zena? 1860an. Françoise Eyheraburuk 18 urte zituen... (Elizanburuk 32

urte). Harentzat egin ote zituen *Maria* (1866an saritua) eta *Aingeru bati* poemak?

*Piarres Adame* Hitz laxozko lan honetaz erran dezagun bi hitz. Lan honen pasarte bat 1879an Donostiako jokoetara aurkeztu zuen Elizanburuk. Urte honetan Elizanburu Euskal Herrian bizi da.

Ordurako, 1874an, esposatua zen Urruñar batekin, eta Urruñan sortu zen ere 1877an haien seme bakarra Joset Urruñan zombait urte egin ondoren, 1880ko urtarrilerako Saran ziren bertako Lekuederrea etxean.

Urte haietako lana zitekeen *Piarres Adame* liburuxka.

Eleberri ttipi honetan Sararen amodioa erakusten du hastetik bururaino egileak. Hor ageri da, zinez, Elizanburu kanpoan egona izana gatik, bere gaztaroa Larresoroko Semenariotan egina gatik, Sara izan duela betidanik bere Aberria. Erraiten ahal da liburutto hori dela Sarari eginikako kantu eder bat, eta zer kantua! Euskarazko hitz laxozko obrarik ederrenetakoa dugu hori bere ttikian... irakurtzekoa! eta berriz irakurtzekoa!!!

Iduritzen zaigu *Piarres Adame* pertsonaia Sarako herria gizon bilakatua dela, Sarako herritar guzien gauza on eta txarren bilduma bezala edo...

Eta *Piarres Adame* izena duen pertsonaia horren bidez Sarako berri ainitz irakurtzen ahal ditugu, haur ixtorio gisa...

Baina *Piarres Adame* egiazko norbait izan ote zen, egiazki bizi izan ote zen? Hasteko erran dezagun liburuan berean ematen diren xehetasunak ez direla zuzenak, asmatuak baizik (11).

Bertzalde jadanik aipatu dugun Guilbeau jaunaren hitzaldian (1897) hauxe irakurtzen dugu: “zer da, nor da *Piarres Adame*?... Hura da norbait eta nehor ez. Itzkiribatzailek hartzen dute izen bat, obra bat nahi dutenean egin. Orobat egin du *Elissamburuk*. Egia da Sarako herrian, izan omen dela, gizon bat, *Piarres Adame* izena zuena, eta *Elissamburuk* bertze hainitzek bezala ezagutzen zuena. Bainan berriz ere diot *Piarres Adame* dela alegiazko gizon bat, zoina mintzo baita mintzaraztaileak nahi duen bezala.”

---

(11) “Han duk Herriko-Etxeko liburuetan ezarria: *Piarres Adame*, bere aita eta amaren semea, sortua Saran, maiatzaren 14an mila-zazpi-ehun eta hiruetan-hogoi-eta hamazazpian”... “Nere burasoak (Jaunkoak bere lorian dituela!) Etxetxarreko borda (\*) txarragoan zituan maizter, eta baziteian haz ahala haur...”. Xehetasun horiek ez dira egiaztatzen ahal paperetan, ez sortze egunetik, ez eta ere etxearen goiti behitietarik; azkenik ez da heriotzak emanak diren liburutan *Piarres Adame* izenik ageri...

(\*) Donostiako 1879ko jokoan berri ematerakoan eta *Piarres Adame* liburuaren pasarte bat argitaratzerakoan horrela emana zen: “... etxe txar bateko borda txarragoan maizter zituan, eta baziteian haz-ahala haur.”

Guk halere gizon hori ez dela sekulan izan uste dugu eta Dassance jaunarekin bat egiten dugu erran zuelarik:

Elizanbururen sortetxea: **Piarresenea**

Elizanbururen bigarren etxea: **Adameta**

eta beraz bi etxe izen horiez sortu zuela Elizanburuk **Piarres Adame** izena.

Piarres Adame izen hori dela-ta erran dezagun, ondotik maiz erabili zuela Elizanburuk izenordetzat. Ainitz kantu *Piarres Adame* sinaduraz aurkeztuak izan dira. Baita ere zonbait hitz laxozko lanak, gehien bat politikazkoak.

Elizanburu eta Sarako herriaren arteko loturaz ari garelarik nola ez aipa Manterolari egin gutuna Hartxuria mendiaren izenaz. Euskaltzale kartsua eta kultura handiko gizon hori Elizanbururen adiskide zen eta delako Euskal Erria aldizkarian 1880.urtean Elizanburuk egin gutun bat argitaratu zueen irakurle batek Peña de Plata edo Atxuria mendiaz egin galde bati erantzun gisa. Osoan ezin emanez hona hemen letra horren azken lerroak:

“Egundaino ez duke mendi horrek bataioko izen egiazkorik Har-xuria baizen. Peña de Plata izen-goiti bat duke erdaldunek emana. Orai ere badut ustea norbaitek oiuhu egin baleza mendi horren gainetik: Peña de Plata! inguruko oihartzunak, ixilik egon laitezkela, eta oiuhu egitean: Har-xuria! oihartzun guziek ihardes lezaketela, zeren munduaren hastetik hunat, Euskal Herriko mendietan ez baita Eskuara baizik mintzatu nahiz jakintsun batzuek bertzela dioten”.

Eta Elizanburu eta Sara aipatzen bai dugu ezin bazterrera utz Sarako hainbat seme euskal literaturan ezagutuak izan direnak eta Sarako herria luzaz euskaltzale herrietan lehenetarik eman dutena.

Ezagunenetan aipa dezagun XVII.mendean, Haranburu eta Harizmendi hitz neurtuz, eta hitz laxoz Atsular handia, azken hau Saran ez sortua izanik ere Sarako erretor luzaz egona.

XVIII.mendean, Etxeberri Joanes medikua, zenbaitek Atsular bigarrena deitu izan dutena, gain gaineko idazlea izan baitzen.

XIX.mendean, Elizanburuz bertzalde:

*Jean Martin Laurent Diharassary*, Sarako Lehetxipian sortua (1.04.1848). Apeza eta politikan buru-belarri sartua. 1902an hila. Bertze lanen artean “Apezen dretxoak eta eginkizunak eletzionetan”, “Erlisionearen istorioa laburzki”, “Mariaren ilabetea”, “Katexima”...



*Jean Martin Laurent Dithurbide*, Sarako Zugarrriagan sortua (oraiko Ospitala, Dithurbidek berak Herriari eman lurretan, Zugarrriaga etxe zaharra bota ondoren eraikia izan zen). 1883ko azaroaren 18an hila 80 urtetan. "Istorio Saindua" izeneko obra idatzi zuena.

*Joanes Berges*, Agerreko maizterra, Agerrean berean 1885ko abenduaren 27an hila, 78 urtetan, eta guziz ezaguna izan zena. Bertze lanen artean Artzaingoa (1865ko Sarako bestetan lehen saria), Laboraria 1866an Saran aipatua), Oraiko neskatxa batzu (1867an Saran lehen saria) etabar dira ezagunenak. 1879an Elizondoko jokoetan eta Donostiako bestetan parte hartu zuen gure Manexek...

*Agustin Etxeberri*, Sarako Zubietan sortua (22.03.1849), bertze Agustin Etxeberri (osaba) bezala zapataina izan zena. 1871ko urriaren 11n Josephine Laurenzenarekin ezkondu zen, eta Lekaienean (12) bizi eta hil izan zen (3.02.1890).

Etxeberriren obren artean ezagutuenak:

- *Haurra hobi hegian*, 1868an Saran aipatua (19 urte zituen artean!).
- *Haur baten auhenak*, 1869an Saran lehen saria.
- *Kattalin Xume*, 1874an Saran aurkeztua.
- 1879an bai Elizondon bai Donostian bere obrak aurkeztua zituen.
- *Harotzaren kantua*, 1880an Maulen - Deserturra 1880an Beran lehen saria.
- *Maria alegiazkoa*, 1885an Saran aurkeztua.
- *Xorien besta*, 1888an Donostian ohorezko aipamena.

*Manez Etxeto*

- 1865an Sarako jokoetan bere obra bat aipatua izan zen "Primaderaren kantua"...
- 1871n Saran bertsolari gisa Ibarrartekin berdindua.

*Louis Ithurbide*

- 1857an Urruñan Eskaldun baten auhenak (Montebideon emanak).
- 1867an aita Joannateguyrekin batera Euskalduna (Euskaldun seme dena bedi alegera...).

Amezket bertsolaria, Zakolinzankar, Duhaldebehere, Çubilibia bertsolariak...

---

(12) Lekaienea: Egun Kurriertegia izenez ezagutua. 1839 eta ondoko urtetan ere Katalinarenezaharrea izena zuena.

**DOKUMENTUAK****\* Elizanburuaren esku-izkribuak**

– *Esku-liburua* (15 kantu - Piarres Adame elaberria). Data: 1er  
Octobre 1885.

– **Manterolari egin gutunak**

= 22.1.1880

= 2.4.1880

= 16.5.1880

= 17.6.1880

= 30.11.1880

= 10.5.1881

– Frantses Armadako dokumentua “Situation militaire-narration  
faite par l’officier”, Paris, Septembre 1871.

**\* Sarako eliza eta Herriko-Etxeko artxibategiak**

– Sortze - Ezkontza - Heriotze

– Délibérations Conseil Municipal

**\* Urruñako Herriko-Etxeko artxibategiak**

Sortze - Ezkontze - Heriotze.

**\* Frantses lur-armadako “fiche de renseignements” eta bertze ainitz dokumentu****\* “Audience du 28 juin 1859”. J. Haritschelhar jaunak kopiaturiko dokumentu bat.**

**BIBLIOGRAFIA - DOKUMENTAZIOA:****Aldizkariak:**

*Le Courier de Bayonne*  
*Le Messenger*  
*La Semaine*

**Aldizkariak:**

*Euskal Erria*  
 Revista *Euskara*  
*Revue de Linguistique...*  
*R.S.B.A.P.*  
*R.I.E.V.*  
*Bulletin du Musée Basque (BMB)*  
*Gure Herria*

**Liburuak:**

A.M. LABAIEN, *Elizanburu, bere bizitza eta obrak*, Auñamendi, 1978.  
 P. LAFITTE. *Le basque et la littérature d'expression basque*, Le Livre, Bayonne, 1941.  
 MANTEROLA, *Cancionero basco*, 1878-1879.  
 ESTORNES LASA, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, 1969.  
 LUIS VILLASANTE, *Historia de la literatura vasca*, SENDO, 1961, \* 180-182. OR.  
 S. ONAINDIA, *Milla euskal olerki eder*, Karmeldar Idaztiak, 1954, \* 531-557. OR.

**Lan eta artikulua:**

ERTORARENA, "Un manuscrit du poète basque Elissamburu". *Bulletin du Musée Basque*, 1941, \* 37-41. OR.  
 LOUIS DASSANCE, "Recherches sur la filiation du poète J.B. Elissamburu". *Gure Herria*, 1969-5, \* 278-288.  
 F.B. LARZABAL, "J.B. Elissamburu eta Oxalde, bi Gorri". *Iker-2*, 1983\* 323-338 OR.  
 J.B. DARANATZ, "Correspondance du capitaine Duvoisin", *RIEV*.  
 J. HARITSCHELHAR, "Quelques chansons basques de la première Guerre Carliste", *Euskal Herria 1789-1850 - Actes du Collage International D'Etudes Basques S.A.M.B.*, 1978\* 193-227. OR.  
 J. VINSON "Fête de l'Association Basque. A Sare en 1897". *Revue de Linguistique... T. 31*, 15.7.1898 \* 193-223 OR.  
 GREGORIO DE MUJICA, "Elizanburu". *RIEV*, 1917 \* 538-540 OR.  
 JUAN SAN MARTIN, "Enciclopedia G.I. del País Vasco. Oharra". *RSBAP*, 1970 \* 521-522 OR.  
 A.M. LABAIEN, "En torno a Solferinoko itsua". *RSBAP*, 1971 \* 171/173 OR.



**IRUDIEN BIZIA J.B. ELIZANBURUren  
NERE ETXEA-n**

Sara, 1991-XII-21

Aurelia Arkotxa Mortalena

“En moi rêve donc une force rêvante, une force qui a rêvé jadis,  
dans des temps très lointains et qui revient ce soir s’animer dans une  
imagination disponible.”

G. Bachelard  
(*L’Air et les Songes*)

Nork ez du hemen Elizanbururen *Nere etxea* ezagutzen?

Kantu hori, nik ere ttipi-ttipitik entzuna izan dut Oilandoi eta Auza-ko mendiaren gerizapean bizi nintzelarik.

Eta, nahiz nik, bakarrik lehendabiziko bi bertsoak dakizkidan gogoz, aitak, muttiko bat zelarik, Baigorri ikasi zituen kantatzen hamarrak burutik... Amak ere, mugaz bertzaldeko Baztango bailaran, ene amatxi zenaren altzoan ikasi zituen bertsu horiek berak nexka koxkor bat zelarik...

1862-an, laster ehun eta hogeitamar urte beraz, J.B. Elizanburuk *Nere etxea* presentatu zuen Urruñako A. d’Abbadie d’Arrast-ek antolatutako xapelketan, bertze bi kantuekin: “Apexa eta Lorea” eta “Agur Herriari”. Harrigarria da kantu honek segiduan ukan zuen arrakasta zazpi probintzietan.

Gaur ere, D. Landartek dio, kantuak, eta bereziki lehendabiziko bertsoan aurkitzen diren irudiek, harendako izan duten inportantzia:

“Ikusten duzu goizean  
Argia hasten denean  
Menditto baten gainean”  
Euskal Herrian, kantatzen diren  
Kantu guzien artean  
Hori da bertzen aldean  
Nik dutana bihotzean  
Xorutzen bait nau kolpean!” (1)

---

(1) Daniel LANDART, 1991, in *Herria* 2089 zenb. I 31.

Zergatik bada horrelako sekulan ahuldu izan ez den arrakasta? Eta zergatik hainbertzetan aipatzen ote dira lehendabiziko bi bertsoak (2) eta bereziki, lehendabizikoa? Hitz batez, hor dauden irudiek zer neurritan oihartzun sakon bat aurki ote dezakete gure elkarrekilako inkonzientean (3)?

(2) Hauxe da ELIZAN/BURUREN jatorrizko lehendabiziko bi bertsoak:

“Ikusten duzu goizean,  
Argia hasten denean,  
Menditto baten ganean,  
Etxe ttikitto aitzin xuri bat  
-lau haitz handiren artean,  
Iturritto bat aldean,  
Xakur xuri bat atean,  
Han bizi naiz ni bakean!  
  
Nahiz ez den gaztelua  
Maite dut nik sorlekua  
Aiten aitek hautatua;  
Etxetik kanpo zait iduritzen  
-nonbait naizela galdua  
Nola han bainaiz sortua  
Han utziko dut mundua  
Galtzen ez badut zentzua!”

(in Elizanburu-*Ikusten duzu goizean eta bertze...*, 23 or.)

(3) FREUD-i (1856, 1939), zor baldin badiogu inkonzientearen konzeptua, hastapenean haren dizipulu mina zen C.G. JUNG-i (1875-1961) diogu zor elgarrekilako inkonzientearna\*. Hona honek nola ezberdintzen dituen bi konzeptuak:

“On peut distinguer d’abord *l’inconscient personnel* qui renferme toutes les acquisitions de la vie personnelle: ce que nous oublions, ce que nous refoulons, perceptions, pensées et sentiments subliminaux. A côté de ces contenus personnels, il en existe d’autres, qui ne sont pas personnellement acquis; ils proviennent des possibilités congénitales du fonctionnement psychique en général, notamment de la structure héritée du cerveau. Ce sont les connexions mythologiques, des motifs, des images qui se renouvellent partout et sans cesse, sans qu’il y ait tradition, ni migration historique. Je désigne ces contenus en disant qu’ils sont *inconscients collectifs*”. (C.G. JUNG in *Types psychologiques*. 448 or.)

\* Bi psikoanalistek bereziki inkonzienteari buruz dauzkaten ikuspegi ezberdinei buruz, ikus C.G. JUNG en *Ma vie* (173 orrialdetik 197.arte), *Essai d’exploration de l’inconscient, Dialectique du moi et de l’inconscient* e.a.

Bertzalde JUNGEk dio:

“Si elle dispose de sources de toute évidence personnelles, la fantaisie créatrice dispose aussi de l’esprit primitif oublié et depuis longtemps enfoui avec des images particulières révélées dans les mythologies de tous les temps et de tous les peuples. L’ensemble de ces images forme *l’inconscient collectif* donné in *potentia* par hérédité à chaque individu (...). Aussi est-il naturel que nous rapprochions les mythologèmes les plus distants dans le temps et les peuples les plus éloignés d’un système de fantaisie individuelle. La base créatrice est en effet partout la même psyché humaine, le même cerveau humain, qui, avec des variantes relativement de peu d’importance, fonctionne partout de la même manière” (C.G. JUNG en *Métamorphoses de l’âme et ses symboles* 42/43 or.).

Euskal elkarrekilako inkonzientean, ikus A. ORTIZ-OSesen obra.

Hona, *Nere etxean* dauden azpiko egituretan barna bidaia labor hau egitera bultzatu nauten galderak.

## I. BI EREMU SINBOLIKO

### 1. Munduaren erdia

Etxea mendi gainean kokatua dago, nahiz eta usaian ez den horrelako tokirik hautatzen etxe bat eraikitzeke tenorean (4).

Baina, mugimenduan dabilen irudia arketipikoa (5) denez, hemen den gauza inportanteena etxea leku garrantzitsuenean, munduaren erdian, dagoela erakustea da beharrezko. Ez bertzerik.

Mendi kaskoan izatea, zerua eta lurra elkar gurutza ditezkeen eremu sakratuan izatea da (6). Negurri horretan, etxea hemen tenplo da (7), munduaren xilko (8).

Bertze eremu imaginario batek ideia berdina azpimarratuko du.

---

(4) Gure antzinakoek, etxe bat eraikitzeke tenorean, kasu egiten zuten ahal bezainbat leku aterbetsuan eraikia izan zedin. Baina hemen ez da hori kontua, hemen erakutsi behar dena da etxearen inportantzia, beraz, leku egokiena mendi *gaina* izanen da.

(5) JUNGEK *elgarrekilako inkonzientearen* oinarriko irudiak *arketipoak* deitzen ditu. Hona hark berak emanikako xehetasun batzu:

“L’image primordiale, que j’ai par ailleurs appelée aussi “archétype” est (...) toujours collective, c’est à dire commune au moins à tout un peuple ou à toute une époque”. (C.G. JUNG in Types psychologiques 434 or.).

“J’appelle *primordiale* toute image de caractère archaïque, autrement dit qui présente une concordance remarquable avec des motifs mythologiques connus”. (C.G. JUNG in *op. cit.* 214 or.).

“(…) la propagation universelle des archétypes ne s’opère pas simplement par la tradition, le langage et par les migrations mais ils peuvent à tout moment et partout réapparaître spontanément, et cela sous une forme qui n’est nullement influencée par une transmission venue de l’extérieur”. (C.G. JUNG in Les racines de la conscience 94 or.).

(6) Ikus M. ETCEHANDYK hilarri borobilaz dioena:

“Il est un autre aspect de la discoïdale dont il faut essayer de rendre compte. Dans un monument si simple et si rigoureux rien n’est laissé au hasard ou à la fantaisie. Pourquoi donc, traditionnellement, le socle en est-il très souvent trapézoïdal? Dans l’imaginaire religieux la montagne tient une très grande place. Elle est le lieu où la terre s’étire à la rencontre du ciel. (...) La gravir c’est monter au ciel. Innombrables sont les montagnes sacrées, naturelles, ou artificielles comme les ziggourats (...) de Mésopotamie, les pyramides d’Egypte ou des civilisations précolombiennes. La symbolique chrétienne s’inscrit dans cette perspective (...)” (in *Les stèles discoïdales basques* 8/9 or.).

## 2. Lau erditua (9)

Kasu honetan, Elizanbururen testuak jasan dituen aldakuntzek beren garrantzia badute.

Ikus J. CHEVALIER eta A. GHEERBRANDT:

“(La montagne) en tant qu’elle est le centre des hiérophanies atmosphériques et de nombreuses théophanies, (...) participe du symbolisme de la manifestation... Elle est ainsi *rencontre du ciel et de la terre* (...). Vue d’en haut, elle apparaît comme la pointe d’une verticale, elle est le centre du monde, vue d’en bas, de l’horizon, elle apparaît comme la ligne d’une verticale, l’axe du monde, mais aussi l’échelle, la pente à gravir.” (in Dictionnaire des symboles, begira “Montagne”)

eta ere G. de CHAMPEAUX eta dom S. STREXX:

“(...) la montagne sacrée est un centre du monde. (...) tout lieu sacré est un centre, et (...) le centre sacré naturel le plus parfait est une montagne sainte.” (in *Introduction au monde des symboles* 166 or.).

(7) Ikus J.M. BARANDIARANek, Euskal Herriari pentsatuz, dioena:

“El *etxe* es templo (...) es lugar sagrado protegido por el fuego del hogar (...) por diversas ramas de espino albar, de fresno y de las flores solsticiales. Por la flor del cardo silvestre, símbolo del Sol; por el hacha y la hoz dotadas de poderes místicos; por ser morada de espíritus de antepasados o lugar visitado por éstos; por la perennal ofrenda de luz que allí se enciende a las almas, procurando conservar el fuego del hogar conforme a una ritual prescripción o norma de “alumbrar a los muertos siquiera sea con una pajuela”; por la práctica de depositar sobre las repisas exteriores de las ventanas piadosas ofrendas de comestibles destinadas a los difuntos de la casa; por la costumbre antigua de orientar las casas de suerte que su entrada principal mire al sol naciente, y, finalmente, porque la casa es cementerio familiar.” (in *Mitología vasca* 56/67 or.).

Ikus ere in *Etxea*, Lauburu batasunak agertutako talde lana.

Eta ere, G. de CHAMPEAUXek eta dom S. STREXXek tenploak unibertsalki duen lehen-dabiziko erranahiaz diotena:

“(...) le schéma général et naturel de temple, c’est le paysage élémentaire constitué par la colline avec sa grotte, des pierres, l’arbre et la source, le tout circonscrit et protégé par une enceinte annonçant le caractère sacré du lieu.” (in *op. cit.* 297 or.).

(8) Grekoen *onfaloz*. Ikus A. ORTIZ-OSESEK dioena:

“El carácter arcáico, tanto de la Gran Diosa mediterránea como de la Gran Diosa vasca, es su *maternidad ctónica*, tan bien representada por el *Onfalos* traído de Creta a Delfos, representando un pequeño túmulo que recubre los restos del parto de Rea.” (in *Antropología simbólica vasca* 107 or.).

(9) Ikus G. de CHAMPEAUX eta dom S. STREXX:

“(La symbolique chinoise) nous a réappris à ne jamais considérer les quatre côtés du carré ou les quatre bras de la croix hors de leur relation nécessaire au centre de la croix ou au point d’intersection de ses bras. Sans jouer sur les mots, on pourrait dire sans tromper que *ce cinquième point* est le plus important de la quaternité. Comme le cercle, le carré est une figure centrée.” (in *op. cit.* 31 or.).



Adibidez, hastapenean idatzi zuen etxea “lau haitz handiren artean” zegoela. Herria (= elkarrekilako inkonzientea) jabetu eta gero lau haitzondoren erdian atxematen dugu.

Badakigu “artean” ezarri zuela autoreak errima arazo batzuegatik, gainerako neurtitz erriomadunetan *-ean* baitago (10). Zergatik horrelako aldakuntza gertatu ote da?

Egia da arras zaila dela etxe hori lau haitzen arte batean, edozein lekutan, kokatzea eta zergatik ba hori? Lau zenbakiaren presentzia dugulakotz eta lau denean bortz erdian izaten baita beti (11). Erran nahi da herriak duela arrazoin errima ez errespetatuz (*artean/erdian*), horrela baitio bakarrik indar guziaz ematen ahal lautasunaren arketipoari (12). Lau

---

Halaber, ikus M. L. von FRANZ:

“La grande signification du quinconce, du quatre centré, se retrouve sous sa forme fondamentale dans l'ensemble de l'ancienne théorie chinoise des nombres. (...) Le cinq est le centre du quatre. Le carré représente la totalité du royaume ainsi que chaque temple; on l'utilisait comme élément de base pour tracer tous les camps militaires et les plans des villes.” (in *op. cit.* 133 or.)

(10) Ikus 2.nota.

(11) Horrek esplikatu lezake zergatik Guilbeau medikuak berak, bere mintzaldiaren frantses itzulpenean, **ez duen artean ezarri, baizik eta erdian**:

“*Voyez-vous le matin-quand la lumière commence-sur une petite montagne, -une petite maison à la façade blanche, au milieu \* de quatre chênes, -une petite fontaine sur le côté, -un chien blanc à la porte? -C'est là que je vis en paix.*” (“Chers compatriotes Basques” in J. VINSON, *Revue de Linguistique et de Philologie Comparée*, tome 31, 15 Juillet 1898, 206 or.)

\* Nik azpimarratzen dut.

Bere euskal mintzaldian, Guilbeauk J.B. Elizanbururen kantuaz arras hurbil den bertso hau presentatzen du:

“Ikusten duzu goizean,/Argia asten denean,/Menditto baten gainean,/Etche tiki aintzin churibat, lau haitz handiren *artean*,/Iturritto bat aldean,/Chakur churi bat atean,/Han bizi naiz bakean.” (“Eskualdun Herritar Maiteak” in *op. cit.* 198/199 or.)

(12) Ikus M.L. von FRANZ, C.G. JUNGEn ikasle eta dizipuluak ekartzen dituen xehetasunak:

“Qu'est-ce qui *distingue* le nombre naturel d'autres symboles archétypiques tels que la roue solaire, l'arbre de vie etc.?”

(...) Jung a défini le nombre naturel comme l'*archétype de l'ordre devenu conscient*. Cela voudrait dire que notre idée de l'ordre possède un aspect préconscient, autrement dit, qu'il repose sur une disposition innée de notre psyché préconsciente. (...) Contrairement aux symboles numériques et à certains symboles géométriques, qui rendent conscient un “pur arrangement”, la plupart des autres symboles connus de l'esprit humains sont des *images* dont la forme est partiellement empruntée à l'expérience du monde extérieur: ainsi “l'arbre de vie”, “l'animal totem”, “l'eau de vie”, le “monde souterrain”, le “feu-esprit”, etc.” (in *op. cit.* 150/151 or.)

erdiuaren indarra hain da azkarra elkarrekilako inkonizientean non erri-maren ez errespetatzeak, beraz ikuspeki intelektual batean huts baten egiteak, batere ez duen inportantziarik. Erdi hori baitugu preseski “Imaginarioaren gurutzebide handia” (13).

Gainera, laua betidanik eremu finkatuaren sinboloa izan da, gelditasunari, egonzaletasunari lotua (14). Azkenean, etxea borobil eta laukiaren erdian dago, unibertso osoaren erdian, ahantzi gabe mendiaren erdian ere dagoela (mendi arketipikoak ere, gero ikusiko dugunaren arabera, borobilaren arketipoarekin badu zer ikusi). Horretan dakusakegu etxearen garrantzi izugarria hiru “alor arketipiko”en (15) erranahien gurutzebidean dagoela: mendi, lauki eta borobilaren erdian, gauza guztien bihotzean.

## II. ZAZPI OINARRIZKO IRUDI

Badakigu ipuinetako pertsonaiak kondatzea konbeni izaten dela, zenbaki hizkuntzan sartu gabe ainitz puntu izkutuan mantentzen bailitezke (16). Gauza bera erran genezake zenbait arkitekturendako, zenbait graba-

- (13) Ikus G. de CHAMPEAUX eta dom S. STERKX:

“Et voici que le centre du carré coïncide avec le centre du cercle. *Ce point commun* est le grand carrefour de l’imaginaire.” (in *op. cit.* 31 or.)

(14) “(...) *le carré relève de l’orientation fixe ou durable* tandis que le cercle est sans orientation propre. Le carré est une figure anti-dynamique, ancrée sur quatre côtés. Il symbolise l’arrêt ou l’instant prélevé. (...) Depuis les époques voisines de la préhistoire, le 4 fut utilisé pour signifier le solide, le tangible, le sensible.” (ikus G. de Champeaux eta dom Sterkx in *op. cit.* 30/31 or.)

- (15) M. L. von FRANZek definitu du zer den “alor arketipiko” bat hitz hauekin:

“*L’idée d’un arrangement en forme de champs archétypique, c’est à dire de l’inconscient collectif, sur lequel William James avait déjà attiré l’attention, repose sur le fait que les archétypes sont entre eux dans un état de contamination mutuelle et que leurs sens se superposent.* (...) Un aspect particulier de cette figure (la “Grande Mère”) est celui de la “mère dévorante” (...) Un autre aspect est celui de l’Arbre maternel, tel qu’il apparaît dans l’image mythique de l’arbre dont les feuilles servent d’abri aux âmes des enfants non encore nés, de même que les mythes de naissance à partir de l’arbre. (...) L’arbre est en relation étroite avec le symbole du soleil (...) En tant que sarcophage, l’arbre est en outre relié à la mort. (...) La mère dévorante revêt l’aspect du dragon qui est à son tour rattaché à la mort (...). A l’opposé de cet aspect de mort on trouve l’arbre de vie (...).

On pourrait multiplier à volonté de tels exemples d’aspects partiels et de superpositions de sens, auxquels se prêtent les images archétypiques. (...) Chaque archétype est ainsi réellement le centre virtuel d’un domaine de contenus représentationnels en forme de champs susceptible seulement d’être délimité de façon relative, domaine qui recouvre celui d’autres archétypes.” (in *op. cit.* 153/154 or.)

- (16) Ipuinei dagokienez bertze berririk ukateko, ikus, bertze batzuren artean, V. PROPP, B. BETHELHEIM, M. L. von FRANZEN obrak.

tu (bereziki altximikoak direlarik), margo eta soinu konposaketendako, artista horretaz konziente izan dadin ala ez.

Kantu honen lehendabiziko bertsuan atxematen diren irudiak zazpi dira eta zazpi bertsoaren neurtitzak (17). Zazpik leku berezia dauka zenbakien sinbolikan eta hori oroimenean galtzen diren garaietatik hona. Euskal mitologian, adibidez, Mañariako Señorak zazpi urte pasatzen ditu Anboton, “zazpi Oizēn eta zazpi Mugarran” (18). Biblian arras presente dago, bereziki Jainkoa zazpigarren egunean delakotz pausatzen, erran nahi da, betetasuna lortua delarik, ez delarik gehiago deusik eskas. Bertzalde, aipamen ikurkor bezala, on liteke erratea, Txinan, zazpi zenbakiak ikaragarritzko garrantzia daukala udaburua pasatu eta gero sei hilabetez argia behera baldin badoa (neguburua arte), zazpigarrenetik landa handitzen hasten delakotz (19).

Aipatutako zazpi irudiak hauxe ditugu: Goiza, Mendia, Zuhaitza, Etxea, Iturria, Zakurra, Atea. Batzuetan izarretzatzen (20) dira kideko dituzten bertze irudi batzuekin.

- Soako bat eman diezaiegun:

**GOIZ** (eta bere kideko diren argia eta kolore xuria).

Lehen neurtitzean atxematen dugun irudiari esker, erakusten zaigu mundua garbi-garbia dagoela, ez dela oraino zikinkeriarik hor sartu.

Goiza, ilunpearen bertzaldean den momentua da, indar beltz ezezagun eta lanjerosak urrun direlarik, gauza guztiak ikusten (21) ahal direla-

---

Euskaraz, ikus bereziki J. Kortazarek kudeatutako talde lanaren azterketak in *Altxorak eta bidaiak-haur kontabideen azterketak*. Eta A. ORTIZ-OSESEK egindako mito zenbaiten (Mari) interpretazioak.

(17) Elizanburuk errespetatzen duen presentaketak erakusten duen bezala, “bortzgarren” neurtitza laugarrenarekin lotzekoa da, neurtitzaren batasuna -ean errimaren inguruan egiten baita.

(18) Ikus J.I. HARTSUAGA in *Euskal mitologia konparatua* 163 or. Ohar gaitezen, halere, aipatzen dudana etsenpluan, zazpi zenbakia hogeitabat zenbakiari lotua zaiola.

(19) Ikus in *Yi King, Fu* (Itzultzea) exagrama eta R. WILHELMek ematen dituen argitasunak:

“(…) au septième mois après le solstice d’été où commence le déclin de l’année, vient le solstice d’hiver; de même le lever du soleil survient à la septième heure double qui suit le coucher. C’est pourquoi le sept est le nombre de la jeune lumière qui naît lorsque le six, nombre de l’obscurité, s’accroît d’une unité. Ainsi le mouvement parvient à l’arrêt.” (24 or.).

(20) G. DURANDEK “constellation” erabiltzen du.

(21) Ikus kantuaren lehen neurtitza: “Ikusten duzu goizean”.

rik. Analista batek erran lezake arrazoinaren eremu (22) soila dela ametitzen, kontzientearena eta horretarako baztertzen direla inkonzientetik jalgi litezkeen itzal (23) beldurgarri guziak... Inpresio hori “argi” sustantiiboak eta eta “xuri” adjetiboak arras ongi azpimarratzen dute.

Zinez, hastapenetik, alderdi bakarreko mundu bat zaigu erakutsia, “Egunekotasunean” (24) bakarrik oinarritzen dena.

Argia hasten delarik mundua egunaren aldera uzkalitzen da eta, Elizanbururen kantuan, arratsa momentu batean aipatzen baldin bada ere (25), ez du aipamen horrek argitasun guttiagoarena ukanen, baizik eta bobobilaren hestearena, zikloaren amaitzearena. Erran daiteke beraz, mundu horretan iduzkirik ez dela sartzen... Inkonzientean dauden indar ezin heziak absolutuki menderatu behar balira bezala, partikulazki itzal sobe-rakinik sar ez dadin (26). Horregatik du autoreak hainbertze aldiz argita-sunaren ideia aipatzen (goiza, argiaren hastapena, etxe aintzinaren eta zakurraren zurtasuna) (26 bis).

---

(22) Aitaren arketipoak testuan daukan indarrari lotu behar ote zaio hori? (ikus A. ORTIZ-OSSEN *El matriarcalismo vasco*, bereziki “El patriarcalismo” kapitulu-uan 92 e.a.orrialdeetan).

(23) C.G. JUNGentzat, *itzala*, psikearen alor arkaikoena da. Subjektuak espresatzen ez dituen pertsonal edo elgarrekilako elementu psikikoek dute *itzala* egiten. Bizi ez diren elementu horiek subjektuak berak kontziente dauzkanen kontra altxatzen dira.

Informazio gehiagorentzat ikus JUNGen obra.

(24) G. DURANDEK irudi sinbolikoak bi alor handitan banatzen ditu: “Aspect diurne” eta “aspect nocturne”. Hemen “egunerokotasuna”, “aspect diurne” delakoaren zentzuan erabilia da.

(25) Ikus 4.bertsoa:

“Goizean hasiz lanean,  
Arratsa heldu denean  
Nagusi naiz mahainean;  
Giristino bat ona dut hartu  
-nik emaztea hartzean;  
Ez du mehe egunean  
Sartuko uste gabean  
Xingar hexur bat heltzean.”

(26) Kasu honetan *animak*, gizakiaren barneko alderdi emeak, sobera indar ukan ez dezan? Gai horri buruz, ikus C.G. JUNGEN obran *anima* eta *animus*; ikus ere A. ORTIZ-OSSEN in *op. cit.*

(26 bis) Harritzekoa da ikustea nola etxea (beraz bere “aitzin xuri”-a) argiaren hastapenari lotua den. Gogo arazten digu, bixtan dena, gure antzinakoek hainbertze errespetatzen zuten etxearen iduzpegitasuna.

Horri dagokionez hor dugu BARANDIARANEK aipatzen duen “la costumbre antigua de orientar las casas de suerte que su entrada principal mire al sol naciente” (in *Mitologia vasca* 57 or.) eta ere M. ETCHEHANDYK hurrengo lerroetan gehitzen duena:

## MENDIA

Jadanik ikusia dugunaren arabera, mendia, munduko erdi bat da. Erran genezake ere mendiaren sendotasun ikaragarriak zaintzen duela

“Fait remarquable: depuis que Jacques Blot a fait l’inventaire et l’étude systématique des monuments pré et protohistoriques du Pays Basque Nord, il s’avère que les nombreux dolmens (qui sont des sépultures à inhumations) de ce pays sont orientés: ils présentent généralement leur entrée à l’Est. Cela se passait aux troisième et deuxième millénaires av. J.C. Quand l’ère de la construction des dolmens s’acheva vers le huitième siècle av. J.C., les cromlechs (qui sont des sépultures à incinération) prirent le relais. Or on ne les trouve que sur les crêtes et les cols largement ouverts sur le soleil levant. On sait par les fouilles récentes que l’on construisit des cromlechs au moins jusqu’au onzième siècle ap. J.C., une époque où le christianisme était déjà largement implanté. Celui-ci trouva sur place cette tradition de l’orientation qui lui convenait si bien, et qu’il adopta, de sorte que les tombes chrétiennes de nos cimetières, jusqu’à nos jours, étaient face à l’Est. Depuis quelques décennies, parce qu’on ne comprend plus le sens de cette tradition que, l’on manque de terrain (...), parce que certaines lois, implicites, de l’urbanisme régissent aussi les cimetières (...), parce que l’un des soucis des municipalités est l’occupation maximum de terrain, les cimetières basques sont devenus, pour la plupart, un bric-à-brac de caveaux désorientés tous azimuts au gré des parcelles disponibles.”

Ikus ere G. LAPLACE prehistorizaleak Ursariko ibarrean 1949an aurkitutako hezurren jarreraz dioena:

- BIES Jean: "Chamanisme et littérature" in *Cahiers de l'Herne: Mircea Eliade*. Editon de l'Herne, Paris 1985.
- ETCHEHANDY Marcel (F.): "Les stèles discoidales basques" in *Zodiaque cahiers*.
- GUILBEAU Dr.: "Eskualdun Herritar Maiteak"/"Chers Compatriotes Basques" in Julien VINSON. *Revue de Linguistique Comparée*, tome 31, 15 Juillet 1898.
- KORTAZAR Jon: "Barrutiaren Gabonetako Ikuskizuna in *Altxorak eta bidaiak*.
- LAPLACE Georges: "Sépultures et rites funéraires préhistoriques en vallée d'Ossau (Ursari)" in *Hil Harriak. Actes du colloque international sur la stèle discoidale. Musée Basque Bayonne (8, 9, 10 Juillet 1982)*. Bayonne, 1984.
- PEILLEN Txomin: "Civilisation et idéologie vasconiennes" (fotokopia).





## PIARRES ETA PELLO, EDO EGINBIDEAREN ETA BIZIAREN IKASPIDEAK

Sara, 1991-XII-20

J. B. Orpustan

### Sarrera: *Piarres Adame*, elaberri eta moldakuntzako elaberri

1. Norbaitek, menturaz, galdegin lezake, ikusiz *Piarres Adame*-ren laburtasuna bezenbat, liburuxkaren egitura doi bat argala eta ahula —ipuin zerrenda ttipi bat, ez oro hein berekoak, elgarri ez oro berdin lotuak, zenbait, iduriz, batere edo guti—, hea merezi lukeenez elaberriaren izena: literaturazko lan mota handien eta ospetsuarena, ehoiz bezenbat XIX-garren mendean, eta gehiago, ahal bada XX-garrenean.

Laburtasuna eta osatze eskasa alde batetik (idazlearen azken lerroer jarraikiz, liburu erdi bat gehien gehienik...), ipuinez egina izaitea zatirik handienen, ipuin gai eta mota ezberdinez haurzaroko biak salbu (Omia-saindukoa eta Juanareneko aran-ondoarena) aitzina, arotik-arora jauzika, XIX-garretetik, XVII-ra, gero XVI-garrenean...

Bada ere bizkitartean egiazko elaberriaren aldeko arrazoin zenbait. Stendhalek (*Lucien Leuwen*), Flaubertek (*Bouvard et Pécuchet*), bertze batzuen artean, utzi zituzten bururagabeko edergintza mota guzietan, bururatubagerik... Elaberriak erakusten du “bizi zati bat”, “zerra bat” (“une tranche de vie”), eta eztu nehork aitzinetik manatu zer behar den zati horren luzetasuna: bizi bat (Maupassant: *Une vie*), urte zenbait (gero aipatuko den *Wilhelm Meister*) edo egun, edo gutiago... *Piarres Adame*-ren epea laburra da, eta ezin hobeki mugatua: 1845-eko buruilaren astelehen goiz bateko bederatzi orenetarik, biharamuneko bazkal aitzineraino (eta leku mugak biziki xeheki emanak: balio luke Sara ta Azkaingo leku horien taula batean marrazkitzea...), Olhetako besta ederra: “Le 15 septembre 1840, vers dix heures du matin...”; eztut *Piarres Adame*-ren erdal-itzulpen zenbait hasten, elaiten agertu zen “moldakuntzako elaberri” aipatuenetarik batena: “sendimenduzko moldakuntza” guti daduka iduriz, egia erran!).

Bigarren baldintza bat betetzen du osoki *Piarres Adamek*: pertsonaien izaera egiazkoa. Azkarrena Piarresena da, bere hiruretan-hogei-ta-zortzi urtetako jakintzak emaiten dakon lehentasunean, eta harekin batean,

elasturiak, omore on bezain bikitartean bakarra: Pello gaztea hor da, “hamabortz urthen ingurua” baizik ez oraino (Elizamburuk berak hamazazpiak bete zituen urtea), entzule egile baino biziki gehiago, baina ere erraile: “le narrateur” edo “edaslea” Pello da, eta Pello “lerro hauk hemen izkribatzen dituen bera”; Elizanburu idazleari hurbil, bainan ez osoki hura, Pello gabe elaberririk (edo estilo zuzeneko elaberririk, bederen) elaithekeen beharrezko pertsonaia, beharrezkoena. Nork erran zein diren, hemen eta elaberri handienetarik zenbaitetan (Proust-en *Aro galduaren bila*, adibide errexenaz), egia eta alegiaren, idazlearen eta pertsonaien arteko loturak? Urrunegi joan baikitazke aitzinean eman den izenburutik, utz dezadan gai berezi eta funtsezko hau aipatu orduko; erran ondoan, alta, gehienetan gertatzen dena: Piarres eta Pello, biak Elizambururen bi “itxura edo irudi” direla, izen ttipitik haste, bat zaharra, bertzea gaztea, bat “biziak moldatua” (ez oraino “higatua”...), bertzea munduaren ezagutzen doi doa hasten ari dena. Ezagutza hortan urrats handiak eginaraziko dazko, epe laburrez, Piarresek.

2. Hastapenetik, Elizanburuk ezin garbikiago emaiten du liburuaren helburua, Piarres-ek dionean Pello hartara heldu orduko, bere burua gorapatuz, xumetasun den gutienekorik erakutsi gabe: “iduri baituk, nahiz behar bada zerbait badakikan, badukala oraino gauza hainitz ikhas-teko, bidean goazilarik erranen darozkiat nere haur demborako eta geroztikako zenbait hitztorio “(1en Kapituluak: hitztorio ortografia egina da erdalki huts horren euskalduntzeko, bidaia hitzean egiten dugun molde berean). Eta Pello ikasle seriosa da segurki: bera jautsia lasterrez Piarres-eraino, “gizonek bezala egin nahia”, ikas-gura.

Gogo-sendimenduen zohitzeko urteak erakusten dituzten elaberriak sortu ziren XVIII-garren azken urtetan, Rousseau-ren *Emile*, *Aitormen*, eta horien ondoko idazki nagusi zenbaitekin. Alemaniak zuen elaberri mota berezi hori beteginzarrera heldu, Goethe-ren *Wilhelm Meister-en moldakuntzako urteak* elaberriarekin (1794-1796). Geroztik hedatu zen Europako literaturan: eta Elizamburuk irakurri zituzkeen Fromentin, Balzac, Flaubert eta bertze zenbaitek gai hortaz egin zituzten elaberri, beti guti edo aski “autobiografikoak”. Ezkinuke alta uste izan behar euskal literaturak berak etzuela gure idazlea gai hortarat ekarri: hitzaldi hunen azkenean aipatuko dut —bakartu ordu arte— idazki sustatzaile horietarik iduritzen zautan bat...

Artean, ikertu behar dira moldakuntza horren osagailu bereziak Elizambururen luman: erakaslea nor den, eta nor ere ikaslea, zer diren bien arteko harremanak; zein diren ikas-gaiak eta ikas-moldeak; zer den ona, zer gaitza eta nola ikusten diren, nola ezagutzen; zer gogoz hautatzen edo baztertzen; eta nolakoa behar lukeen izan, biziaren behar bezala eremaiteko, Elizambururen gostuko “zuhurrak”.

## I. Ikasle, erakasle

Jakinez idazleak nahi izan duela erakutsi gizarteko eginbidetara eta biziaren “zuhurtzian” eremaiteko moldakuntza bat, bere ustez hoberena liburuxka hasten duen urtetan, Piarresen adinerat hurbiltzean eta munduaren eta biziaren ezagutza berdinarekin, guri dago ikertzea zertan eta nola xede hori betetzen duten bi “protagonixtek”; nola hauk asmatuak izan diren (Sarako atetarik, Azkainen gaindi, Olhetara...), gogo,barne, izpirituzko bidalde batetan dela Pello aitzinatzen aldi berean, eta huntan dagola, ene ustez, elaberriaren erran-nahi azkarrena.

Hortakotz, ezta berriz hemen hasiko Elizamburuk hain xeheki eta ederki, Balzac baten heinean, marrazkitu duen Pello eta Pirresen, gehienik Piarresen, soin eta jauntzi irudia. Salbu gauza bat: irudi horiek ukan dezaketen erran-nahi sendimenduzko, izpirituzkoa edo morala beharko da ere ikertu.

### 1. Pello “Matxinene”

Izenaz (izen ttipiaz) goiti, idazleak eztu den gutieneko xehetasunik emaiten Pelloren gizarte do familia etorkiaz, ez eta haren ikaskuntzetaz, bainan emaiten du etxe-izena:

“—Saran zeintakoa haiz?

—*Matxinenekoa.*”

Nahiz eztutan aurkitu zer ikusteko duen Matxineneak Elizambururekin (bada oraino Saran, errana izan zautanaz, izen hortako edo hurbileko etxe zenbait; jakinez Matxin Martin dela...), hautuak baduke bere arrazoina; “Pello Matxinene” edo hobeki “Pello Matxinena” beraz, herriko etxe “berrier” (ez Erdi Aroko zaharrener) lotzen da..., Piarres Adame bezala. Ikusten dut bietan halako “bien-artekotasun bat”, bertze gauza gehienek ere agertuko dutena gizarte-mailaren aldetik, ez gora edo goregi, ez behegeri... Gizartean, Sarakoan, segur hartua da Pello Matxinena, etxe batekoa delakotz; ez gehiago. Izena eta etxe-izena aski ziren, lehenago, norbaiten ezagurtzeko.

“—Hanbat gaizto hiretzat” dio Piarresek bertzerik gabe; lehenbiziko trufa hutsa menturaz, bainan ezta laudorioa, izaitekotz halako gutiسته bat Matxineneko aipamenaren alderat. Saratarrek beharko dute, ahal badute, zerbait erran, eta elaberria gauza huntan osatu.

Izena baino lehen, hirugarren lerroan, jakin dugu Pelloren adina: “hamabortz urtheren ingurua nonbait han”. Elizamburuk berak bazituela hamazazpi 1845-ean errana da; eta idazleak hartzen duela bere pertso-

naietarik, “autobiografikoak” badira ere, zenbait urratsen (edo “*urtheren*”) urruntasuna. Adinaren erran-nahia argi da: haurtasunetik gaztetasunerateko muga iragan berria du Pellok, baina aski handi da bestara joaiteko, bakarrik. Egia da, munduaz ala biziiaz, gauza guti dakiela oraino; iduri luke ere doi bat zuzen ikusten dituen, eztitu beti entzuten... Izan daiteke herabetasun hori jendetasunaren (“*la politesse*”) ondorioa dela, ezpaitirudi Pellok, erraiten dugun bezala, “gaizki ikasia” dela.

Bigarren “arrazoin adina” berritan iraganik (hamalaur urteak, ziote-naz), Pello jakitate ta ezagutzaz gose agertzen zauku: ez ikaskuntzako jakitatez, hortaz deusik eztaigu —xehetasun zenbait agertuko da Piarresen haurzaroan—, baina biziaren ezagutza xoilaz: “Gizonek bezala egin nahiz...” dio bigarren lerro-aldeak. Errex asma daiteke ezteela nahikaria hori maripulisa-ren bizkarrean “Xarlango” (“*lévrier*” dio idazlearen ohar-rak), adin hortako itxura doi bat irigarrian (erdaraz erran laite: “*jeune chien prêt à dresser*”), baina, lehenago erraiten zuten bezala “arrazako”, jakitera emana, edo, eta hitza zuzen heldu laiteke hemen euskaraz ere, “heztera”...

Eta, hortakotz, Piarresen “hitztorio” eta egintzek eztezakete ukan entzule eta behatzaile hoberik: gogo hortan, ainitz ikasiko du Pellok epe laburrez. Elizamburuk berak irakurtzailea apur bat “nahi baduzu hortan utziko dugu muthikoaren hiztorioa”. Gutti egile dudarik gabe, baina entzule, ikusle, ikasle eta beharrena... edasle edo idazle (“*narrateur*”): Pello gabe, eluke *Piarres Adamek* (“esperientzia handiko gizonak”, eta liburuak) izaiteko arrazonik.

## 2. Piarres edo biziaren ezagutza

Piarresen izena eta deitura, gauza ezaguna da, Elizambururen biziari hurbiletik atxikiak dira: *Adameta* etxean sortu zen Elizambururen arreba zaharrena, bera *Piarresenea*-n. Ohargarri da, uste dut, miraila joko hau: Elizamburu “adinekoa” (1886-an, eleberriaren azken zatia agertzen denean, baditu 59, berrogei-ta-hemeretzi urte, idaz-lanak *Piarres Adame* izenpe-zen ditu), bere gaztetasunaren ber-moldatzen, eta ber-bizitzen elaberriaren bidez, nor-bera bere buruaren erakasle, irudimenez bederen... Lehenagoko bertsulari izenez *Piarres Adame* zenbaiten izaitea ezagutu balu ere Elizamburuk (eta zergatik ez?), etezakeen aurkit bere buruaren alde berean gordetzeko eta erakusteko arrazoin edo estakuru hoberik.

Baina, izenetik harat, Piarres ezta Elizamburu, badu bere nortasuna, azkarra eta bizkorra: Pello, hasteko, utziko du behatzaile bezenbat miratzaile, eta berdin inguruko bertze zenbait, bidean ala Olhetako plazan (salbu bere ilobak eta... Saratar zenbait: “Egia duk nihor ez dela bere herrian profet”).

Adinez urrun, bi gizaldi bete bien artean, ezta ere Pelloren jendakian edo ahaidegoan, dakigunaz, ezpada literaturako izaera berezian, egilearen eta eginen arteko harremanetan. Ba ote du, sendimendu handirekin aipatzen dituen aitama eta haurridetaz —oro zenduak— bertze familiarik? etxalderik, ala beti etxetiar edo jautsirik, ainitzek egin duten moldean? Badaiteke, bainan etzauku errana. Aski du, Pellori bizi az eta zuhurtziaz mintzatzean entzuna izaiteko behar den indarrarekin, bere nortasuna.

Ezpada etxeko-jaun handi, edo ere menturaz etxeko-jaun, laboretxeko, erran gabe doa orduan entzuten zen moldean, ezta nor nahi Piarres: soinean dituen jauntzien edertasunak berak (beti jadanik erran den “bien artekotasan” hartan, aberatsik deus gutirekin: eztakar urrerik, bakarrik zilharra...) lilurutzen du Pelloren gogoa, garbitasunez, gaien ederrez, ainitzitasunez, kolorez; eztu ohartu gabe uzten makila, jauntasun horren sinboloa, libertatearena bezenbat, dudarik gabe: “nik baino ederragoa eta azkarragoa”...

Bidaian eta gertakarietan zehar agertzen duen gogoa, itxurari emana du. Luzeegi laiteke gauzen hemen xeheki emaita. Gauden beraz beharrean: gogo ona eta irria (“Sarako herrian, ez dela bat nik baino irri gehiago egiten duenik”), beldur gabea, elea eta bertsua errex, erregegi menturaz (ezta biziaren ikastetik nehor gelditzen: Piarres ere ez, trufan ihardokitzailak aurkitzen ditu...), jantzaria eta “kompainiako gizona” behar denean, biziko zorion ttipietan ezagutua (pipa, jan-edanak: “hameketakoa” lekuko...), “maitale” izana bederen (hiru latsari “graziak”) edo haal oraino, begiak *ñir-ñir* Azkaingo “etxeko andre” begitarre onaren aitzinean (ohar gaiten hemen maitasunezko gai hau ezuela Pellok mementoan berean entzuten, eta, ezpada maitasuna baztertua, guti sartzen dela liburuko ikaskuntzetan).

Piarresen irudi moral horrek ausartasun edo bederen “atrebitasun” doi bat erakusten badu, ezta hortakotz “beharbezalakotasunez” osoki eskasean: Jainkoa eta Jainkoaren zuzena, “Probidentzia” deitzen dena ohituki, noiz nahi ahoan ditu Piarresek, Elizamburuak bere olerkietan bezalatsu.

Ororen gaintetik, badaki biziaren berri, eta jenden: zein etxetan geldi, nola mintza eta zer galda, zer erantzun ere. Badaki “debru franko badela saindu itxura hartzen duenik”... Ezagutu duen bizia, gaixtoa ukana du, bederen haurzaroan, umezurtz gelditurik (Elizamburu bezala, badakigu), haurride ainitz eta “Etxetxarreko borda txarragoan” hazirik (lehenagoko Etxasarria ote, etimologiaz behar zen alderat itzulirik?)... Igan du bizkitartean aldapa, heldua da aski gora, “etxeko-jaun aberats zenbait” iduritzearainokoa: biziko atsekabeak ezagutu ditu, eta garhaitu. Idealismo gehiegikorik gabe, “zinizmo” hutserat erori gabe ere, Elizamburuk asmatu du, bere zuhurtziaz osatuz, Pellori egokienik zitzakon ustegabeko erakaslea.

Ezta hemen oraino aipatu Piarresek berekin dadukan gauza ohargarriena: sudurra, nolaz ez! Haurzaroan “aratze batek bezain handiko” burua, handiturik “girstino, yudu eta bertze guziek bisaiaren erdian Yainkoak ezarria dugun haltura (...) negurri gaitzekoa”, badu trufa gai bere baitan Piarreseok: sinbolo ala ez, eta zerena? Eztugu hurbilagotik ikertuko; bainan ezkaude galdegin gabe zer ikusteko duen hoin gauza ohargarriak, liburuaren xede moralarekin. Irrigarritasunetik ikusten da aldatzen delamiragarritasuneraino, Aldudeko, Baxe-Nabarreko (Elizamburuk Sarako moldean dio “Nafarro beherea”) eta Lapurdiko xapelketa aipatuan irabaziari esker. Pellok Piarres sudurretik du ezagutzen, hain aipatua delakotz xapelketaz gerotzik, eta Lapurdiko ala Sarako ohoretik zerbait berekin deramalakotz. Azkenik bederen hau: Piarresen nortasuna du sudurrak osatzen; eta zein gaztek eztu miresten –Elizambururen aroan, eta gurean gehiago!– xapelketako irabazlea?

Literaturako tematikaz mintzo bagira, Piarres Adame hor dugu non-bait, Rabelais-ren pertsonaien, Pinocchio-ren (1881-1883-etan agertu zen Italian) eta urte guti barnne Edmond Rostand-ek emanen duen Cyrano-ren artean: ezta kompania literario gaixtoa.

\* \* \*

## II. Nola ikas: zuhurtziaren bideak

### 1. “Adinean adinekoa”

Biziko jakintzak eztu ikastetxetakoarekin ikustekorik: udazkenean (ez oraino “larrazkenean”) egiten da, ikastetxeak hetsiak zirelarik urri hastearaino; besta egun bat edo biez; bidaian (oinezkoa zadukan ere hoberena Jean-Jacques Rousseau batek...), arrotzak gurutzatuz eta mintzatuz, etxez etxe gomit, apairu, solasaldi, ipuin, kantu eta jantza-jauzi (Piarresek hain ederki emaiten dituen “mutxikoak”), bertsu eta mokokaldien artean, lokartzean eta atzartzean: opor edo bakantza arotogia, hertsiki betea da, nahiz gogo alai eta hoberenean beti. Aldiz, ohar daiteke, nahi bada, Piarresek berak estimu ttipian zadukala XVIII-garren mende azkeneko ikaskuntza: “hameka urthetan (...) irakurtzen nitian (...) liburu Izpiritua-lean diren othoitz eskuara eta latin guziak”. Erakasleak ere, ikusiz nola “erriantak” uzten duen Pello “leihotik dilindan (...) sofrikarioaren eta izialduraren bortxaz aldixar bilhakatu bainintzen!...”.

Hau da bereziki Pellok ukan duen zoriona: etziren bakarrik Olhetako bestak “besta hitsak izanen (...) Piarres Adame, saratarra, han kausitu ez balitz”, Pelloren jakitatea etzen ordu hoberenean osatua izanen. Inguru-mena, partaideak, jakitatea, oro lerro berean gertatzen dira, idazlearen

(bainan berak erranen zuen “Yainkoaren”) botere bereziaren bidez. Hemen hunkitzen da elaberriaren zuzentasun zinez “idealixta”, eta hunek dauku erakusten, azkenean, liburuaren helburu ikaskuntzako, gogokoa “errealixta” baino gehiago.

Eztira, hortakotz, Piarresak emaiten dituen ikaskuntzak edozein moldez edo arotan egiten daitezkeenak. Piarresak –Elizamburuk– behin baino gehiagotan azpimarratzen ditu Pelloren mugak gauza zenbaiten egiteko edo osoki onhartzeko eta gogoratzeko: “Ez, deus ez... deus ez... (Matxineneko aipamenaz); Gaztegi haiz oraino hi, Pello, gauza horren ongi pisatzeko (arropaz edo irudiaz eta izaiteaz); Badiat uste ez dukan edanean!... hire adinean nik (...)” (“hameketako” edariaz). Ezagutza edo zohidura ezkas hori jadanik aipatu dugu maitasunezko gauzetan (Azkaingo etxeko anderea eta Piarresen begiak...). Badaki, gure “gizon zuhurak”, adin bakoitzak badituela bere heineko jakintzak.

## 2. Ikas-molderik hobereana: adibidea

Ikastetxetarik kampoko ikasketetan ezta “kursoen” edo “peredikuen” lekurik. Nolaz ez aipa, orduan, Axular, Elizambururen aitzineko Saratar moralixta, idazleak berak ardura gogoan zukeena lehenagoko Saratar “abil eta yakintsunak” ospatzen zituenean. Ezta gehiagorik erraiteko *Gero*-ren gaiaz: aski zabaldua zuen Urdazubi-Saratarrak, eta elaberriak eztauku hortaz kapitulu edo “hitztorio” berririk utzi. Bainan etzuen egitego lanik ere, hain dago Piarres “nagi eta auhertasunetik” urrun: bestaz bada bestaz, aski erakusten du Pellori eztela (ez izan ere) “aro-galtzaile” hetarik, goizik jeikiz adibidez (“kukuso eta ximixtak” atzargailu, egia erran...).

Eta hortan da guzia: Axularrek perediku eta hitzaldiak zituen moldatzen, nahi den bizitasunean, adibideari (Aro Zaharretik, Elizako doktoretarik, edo egunoroko bizitik...) emanek lekurik handiena, bainan bere burua ahal bezenbat aipatu gabe.

Piarres ararteko, Elizamburu moralixtak derabilan metodoa eginbidearen erakasteko, bertze molde batekoa da: hemen behar da ikusi bizia bera, ez edo ez bakarrik noizpaiteko edo nonbaiteko ixtorio erdi-mitikoak. Egiatasun hau dako emaiten Piarresak Pellori: berari gertatuen egia, edo, bederen, berari hurbil (hunek erran nahi du ere Euskal Herriari hurbil) gertatuena.

Aitortu behar da, bizizko adibide horrek hartzen dituela itxura ezberdinak *Piarres Adame*-n, eta, nahiz ezten gure iker-gaia hemen, ikus daiteke bederen elaberriaren egiturak duen ahultasuna hortik dela sortzen alde batetik: “Arlekin-en” arroparen itxura bat...

1) Lehenik getakariak: Pello eta Piarresen bateratzea, “ik hazkin-mandozaina”, latsariak, Azkaingo etxekanderea eta “hameketakoa”, besta eta dantza, gaua, Piarres eta iloba... Hauek dute, zinez, erakaskuntzako indar berenez handiena, “ainitz ikusiak baitu ainitz ikasi”; eta gehiago Pello bera gertakarien partaide denean zerbaitetan, eta bederen Piarresekilako eletan...

2) Bigarrenik “hitztorioak”, bainan bi mota osoki ezberdinetan:

Piarresen haurtzarokoak, oraino sendimendu bizienaz beteak (ahalge ta beldur, edo Jainkoaren ontasunari esker on...).

Ipuin hutsak, nahiz ixtorioari lotuak, eta Euskal-Herriari ere: “Ezkurjale” edo Eskurialeko erret-jauregikoa (iduriz XVII-garrenekoa), osoki alegiazkoa (Molière-en Nahigabeko mediku-aren komedia aipatua ezagutzen zuen Elizamburuk); 1555-eko ordaintzen duela aro urrunagoa...

3) Hirugarrenik kantu eta bersuak (ezberdinak ere...): hortan du Elizanburuk literatura bera lehen mailean sartzen ikaspide bezala: ohar-tzeko da zein urrun gauden —Axularren ala bertzen...— perediku, hitzaldi eta idatzaldi guzietarik: Zapataina, latsarien bertsua, bestakoak ezpadauzku ere aipatzen baizik (“guzieri ematen zioten bertsu bana, zakizkan aire guzietan”). Elizambururen neurtitzak eta elaberria “medaila” beraren bi alderdiak dira.

\* \* \*

### III. Zer ikas: morala eta biziko jakintza

Pellok hain ditu berak barna hartu Piarres Adame eta haren egitzak, eleak, erakaspenak, non aski garbi atxikirik gogoan, urteak e urteak berantago (Piarresen adinetik ez hain urrun, “idazlea” bezala), “edasle” bilakaturik, baitazki oraino den gutieneko xehetasun guziekin: ikas-moldeak helburua osoki bete duelako frogaa... bederen elaberriaren alegian.

Zer den horrela ikasi duen “zuhurtzia”, morala, lasterrez dugu aipatuko, eta ez dituen osagailu guzietan sartuz (bainan nitaz bertze norbait mintzatu beharra dela badakit).

1) Elizaren bekatu nagusi edo “kapitaletan”, Elizamburuk, bertze orduz Axular batek egin zuen moldean (“juramentua”, “hasarrea”, “haragiko bekatua” eta hunen ondorioz, doi bat ere “sabelari sobera emaita”...), hautatzen ditu, ez alta hautu berean: gezurra eta ohointzaz kampo, gauza guti, eta ez deusik Axularrek hain luzaz aipatu zituenetaz, bere “erremedio” guziekin.



Ezta dudarik hemen ditugula erakaspen garratzenak. Hiruretan-hogei urte iraganik, Piarresek gogoan ditu oraino, bizi-bizia edo “gorri-gorria”, “bekatu” horien ondorio izigarriak: Omiasainduko otoitz gezurrezkoenak, bi sosen zuzen gabe biltzeko; Joanareneko aranen ebastea... “Orai ikhusi behar duk zer tribulazioneak izan nituen nere malefizio izigarria zela medio!... sekulan ahantziko ez dutana... Yainkoak begira haitzala, mutikoa, holako tribulazionetarik!... izan zuan halere yenderik aski nere sekulako ahalkarazteko... bi soseko madarikatua, zeinak erretzen baitzarotan sakela... uste diat ez dutala sekulan ahantziko... aran ondo baten gainera igateak zer ondorioak izan zituen neretzat eta zer zurra-aldia merezitu... zer ikharak... izerdi hotz bat... Yainkoak eta nik baizik nihork ez zakik!”.

Geldi dezagun zerrenda: gezurretik eta ohointzatik, nahiz biak ttipiak ziren, eta Piarres osoki “ogenduru” baino bertze “abilagoek” enganatuago, behin betikotz sendatua ageri zauku, eta ageri zaku Pellori, eta gaitz horietarako ixuritik. Elizamburuk bazituen bide hortan aitzinekoak, segurki: Atxular bera eta haren “conciencia ona”, eta gehiago, menturaz, Jean-Jacques Rousseau-k, ohointzaz eta gezurraz hark ere, Confessions edo Aitormen-etan hain bortizki erakusten duen urrikoa (eztugu aski, erraiteko gure Saratarrak berak, Elizamburuk, Rousseau-k bezain barna eta luzaz senditu zuenez “ogenduntasunezko sendimendu” delakoa, 2<sup>o</sup> le sentiment de culpabilité”: bainan balitake gogoetatzeko gaia...).

2) “Konziencia onetik” hurbil dago, hemeretzigarren mendeko Europatar gehienen kultura moralean, Jainkoaren izaitea. Erlisioea bera, elizako urrats ohietuenetarik harat (Omiasainduko otoitzak hilerrietan edo elizan, arbasoen kulto ezagunenean, bainan... bi sosen irabazteko), beretergoa (hala du Piarresek ezagutu Pello...), katixima eskolan..., guti agertzen da: oraino bestako lehenbiziko eguna izan balitz, bainan bigarreanean... Zugarramurdiko frailek, liburuaren bururatzean, ez ote duten ere lehenbiziko Piarresen erakaspena gogoratzen (itxura eta izaitearena)?

Hutsen urrikiak eta irri-solasaz kampo, ezta deusik Jainkoa bezain usu Piarresek aipatzen duenik, eta Pellori mintzatuz ardura: “Yainkoak holakoa egin nindian... Yainkoak ez zian hala nahi... Yainkoaren borondatea... Yainkoak begira haitzala...”. Kantu gehienetan bezala, Jainkoa aipatzen du eta goresten Elizamburuk. Errexegi da aipamen horien emaita idazlearen eta haren aroko —eta berantagoko— “konformismo” edo beharbezalaketasun ezagunaren gain. Aro hartako izpiritu aitzinatuetarrik zenbaitek ikuspegi bera dute: Victor Hugo batek, adibidez, hura ere “errepublikanotua”, Elizamburuk irakurri zukeena... Ezta ere baitezpada, izaite beldurgarri bat (ahalgearen beldurra da azkarrenik, erran nahi baita gizartearena, “zoiztatearena”), Pelloren zuzenbidean atxikitzeko.

Teologiazko xehetasunetara gabe, aski argi gelditzen da Piarresek gogoan duen “yainkoa”: “borondate” osoa dudarik gabe, “fatum” osoa,

“hala behar” hutsa alde batetik; bainan zuzenaren zaintzaile (ohointza gezurra baino azkarkiago gaztigatzen da) behar denean, eta aldi berean “probidentzia”, laguntzaile gaztigatzaile bezenbat beraz, aran ebastea ikusten den bezala: “ikusten diat, Pello, Yainkoak nere othoitza nik egin baino hobeki aditu zuela...”.

3) Piarresak aski erakusten du, bizkitartean, beharbezalakotasun moralak badituela ere bere mugak, eztela aski gaizkiaren beldurra, biziaren zorionean iragaiteko. Ezpadugu hartu nahi “artehitz”, “artejoko” edo “entremes” huts bat bezala, zer erakaspen du Ezkur-jaleko ixtorioak? Menturaz senar-emazten arteko —nahiz bat edo bertzea, “don Pacheco eta doña Encarnacion”, jende hoberenetarik den— gaixtakeria zenbaiten erakustea, geroago Pellok ezagun dezakeen ezkontzari buruz? Orduan liburu bururatugabea, berantagoko Piarresen erakaspen zenbait aitzin dezake... Eta gai ohitu bat hunkitzen da Piarresak azpimarratzen duenean “emazte baten malefizioa”, Pellori begin idekitzeko behar bada.

Baduke bertze erakaspenik ere “nahigabeko medikuaren” ixtorioak: edo medikuen ahulezia (Molière-en komedia bat baino gehiagoren geia); edo jaun handi, errege eta “erretatearen” (Oihenarten hitza), monarkia-  
ren zehabidea, eta orduan elaberriak bat egiten du *Lehen eta Orai* kantu aipatuarekin.

Zugarramurdiko frailen eta 1555-eko “hauzaphez” saratar eta eihara-zain (ala eihera-jabe? etziren berdin...), Sarako euskaran “errotazain” Erramundegibehere jaunaren arteko guduan, beharbezalako moralak hartzen du zimiko bat edo bertze: bortitzkeria bazter badago, segurki (eta etzen horrela beti lehenagoko mendetan!), gezurra da nagusi. Pellok ikasi behar duke, hutsezko gezurraren beldurra hartua duelakotz Piarresi esker, gezurtien eta enganatzailen artean, fraile ala ez, gezurrez behar dela garraitu, are gehiago herri oso baten ontasuna jokoan delarik! Alegia zaharretan bezala, irabaz beza zaluenak, zuzenak ezpaitezake.

Gogo berean hartu behar dira —Pellok hala hartu behar ditu— Piarresak, bidean harat, egiten dituen trufa joko zenbait: mandozainarekin, latsariekin. Eztu beti Piarresak azken hitza, bainan behar da ere gogo onez galdu, ezin irabazia denean eta garraitzea eztenean —Erramundegi-behererentzat bezala!— baitezpadakoa.

Hots, eta hitz batez, bizia gudua da, eta hobe nork berak baldin badaki, “konzienzia ona” ezpada mintzo, ateka guzietarik bere onean, ahalez hoberenean, Piarresak gehienetan badakien eta badagien bezala, irriz ateratzen. Iduritzen zaut hori dela, orenen buruan, Piarres Adame-  
-Elizanburuk jakin-arazi nahi duen zuhurtziaren oinarria. Gauza bat gehi-  
go, bizkitartean: Piarres Adameren inguruan, kitzikaldien eta trufa edo espantuen artean (hastean erran ginuen eztuela erakusten xumetasunetik den gutiena... ez erakasten, salbu gizarte etorkian), ezta etsaitasun azka-

rregirik behin ere: ez eta Zugarramurdi eta Sararen artean, nahiz “gerlan ziren”, “bi herri amultsu hoietako yendeak handizki maltsoak eta pazientziadunak baitziren”. Horra aski, jenden artean bezala, herrien arteko bakearen ez gehiegi —doi bat, halere, behar denean— kordokatzeke.

Behar ote da erran, hain da Zapataina-rn “filosofia” argi horiek oro ezdeus, “deuskai” laitezkeela, zuhurtzia gaixtakeria itzul laitezkeela, ezpalute orok muga eta hein bera, ezin iragan edo gauditua egiazko gaixtoen lerroan ezpada nahi sartu: delako “bien-artekotasun” ezaguna, Erromanoen “aurea mediocritas”?

\* \* \*

#### IV. Piarres Adame eta... Duvoisin

Menturaz, hemen aitzinatzen dutan gogoetak eztu egiazko arrazoinik batere. Hartakotz —eta hitzaldi hunen ez sobera luzatzeko!—, emaiten dut xoilki.

Lehenbiziko Abbadia Urruxtoi-en sariketa poetikoen ondotik, bereziki 1870-eko gerlak ereman zuenean Napoleon hirugarrenaren gobernu, eta piztu Errepublikaren aldeko gudu politikoa, bi Lapurtarren etsaitasunak beharriak erakutsi zituen: “Maître Elissamburu”, aduana edo mugazaintzako kapitain bonapartixta eta elizatiarraren mugaz haraindian gertatu zen. Hala-beharraren indarrez, biak hil ziren urte berean: 1891-an!

Ez ote ginuke ba, literaturaren mail berezian, gudu horren itxura bat? Alde batetik beraz *Piarres Adame*. Eta bertzetik? Duvoisin-ek jadanik aspaldi agertu zuen liburuxka, *Laborantzako liburua* (1857): erakaskuntza bat, bi pertsonaien arteko elgarrizketaz aitzinatzen dena, bat jakintsun eta adineko; bertzea gazte eta jakin-nahia.

Itxura orokor berdintsu horien aitzinean, bizkitartean, osagailu guziak etsaigoan daduzkate bi liburuek, zerrenda hunek agertzen duenaz:

— laborantza eta lur-lana bakar bakarrik alde batetik; laborantzako gauzak guti bertzetik: argiena Piarres haurraren behi-zaingoa, oraino Sarako eta Zugarramurdiko artalden aipamena, urrunago “errotazaina”, antzarak Azkaingo plazan...;

— lana; bestak, edo lan gutiko egunak!;

— aita-emeak eleketa; ahaidegoa gabekoak, doi-doia elgar ezagunak, bi gizaldi artean (ez bat);

— etxeko-jauin “artekoak” (aberatsegien kritika egiten du Duvoisinek...), baina nagusiak, etxetiar eta langilen alderat gutiesleak eta borti-

tzak; Piarres etxetiar ttipienen seme, laudorio handienak (nagusiak hun-  
kitu gabe alta, bainan kritika politika “erretateaz”);

– etxea bera; leku arrotza, bidaia;

– zoriona laborantzan, zoriontsu laboraria; “zuhurtzia” zapatainarena  
(La Fontaine-en alegia zenbaiten orroitzapenarekin: Le Savetier et le  
Financier);

– beharbezalakotasun edo “konformismo” osoa neurri guzietan; egin-  
bidea eta zuzena, bainan gogoan libro eta alai, elea ere;

– seriosotasun betea, sendimenduetan eta gogoan; irria zuhurtziaren  
(ega gizatasunaren, aspaldi honetan dakigunaz...) oinarri...

Nahi balitz bakarrik atxiki moralismo “duvoisintarraren” kontrako  
gai funtsezkoena, aski liteke zuhur “elizanburutarraren” herio eta “hil-  
-perediku” laburraz orroitzea.

Ezpazuen ere Duvoisin bera bereziki gogoan *Piarres Adame*-ren idaz-  
tean (baieztatzeko, behar ginuke jakite gehiago liburuaren moldatzeko  
baldintza eta ingurumenetaz), Elizanburuk zalbadu nahi zituen gogame-  
nek, eginbideaz, zuzentasunaz, bizi-az beraz, erakusten dute, gogo-arintasun  
bat (eta ezta hitzean den gutieneko gaitzesmenik!), guti aurkitzen dena  
aro bereko euskal literaturan.

\* \* \*

Bere “ttipian” bururatugabea izaitean, egitura erran den bezala argal  
eta ezberdinean, horra arrazoin zenbait, ikusteko zergatik daukan *Piarres  
Adame*-k itxuraz merezi lukeen baino leku handiagoa, biziki handiagoa,  
XIX-garren mende azkeneko euskal literaturan. Elizanbururen “humanis-  
mo” edo gizatasun berezia, “hitztorio” labur, irri eta kantu arinek emai-  
ten dute liburu jakintsun eta dorpe zenbaitek bezenbat, batzuetan hobe-  
ki. Liburuxkak, idazlearen nagusitasunaren bitartez, balio du, hortakotz,  
handiena.

**JEAN BAPTISTE ELIZANBURUREN  
LAU ANDREN BESTA**

*Sara, 1991-XII-21*

*Patri Urkizu*

**Jaur-andreok, eguerdion denoi!**

Jean Baptiste Elizanbururen *lau andren besta* mintzagai harturik, ni bekatari honek... aitorpenarekin hasi beharko nukeelakoan nago.

Argi dezadan zergatia.

Liburu edizioen prestaketetan eguneroko premiak eta abiada azkarregiak bultzaturik, alegia, denbora eskasiaren poderioz aritu izan natzai-zue horrelako lanek eskatzen duten astirik eta patxadarik hartu gabe eta honen ondorioak bistan daude.

Bihoa, bada, bidenabar lantxo honen aitzinsolas gisara ene erruen aitorra, eta aitzaki honekin kapitainaren kanta baten irakurketa lasaiagoa eta zuzenketa buru dezadan.

Koldo Mitxelenak *Liburu sorta zaharberritu baten atarian* (1) zioenez, saratarraren bertsoek ez zuten beren mailari zegokion edizio zuzenik, eta beldur naiz oraindik ere ez duten. Aurten eginiko bi argitaldiek, bai X. Elosegik (2) eginak, bai neronek prestatuak (3) akats bat baino gehiago baitute, oraingo honetan ez natzaizuelarik mintzatuko faltan edo soberan diren bertsoez eta kantez, alegia, bereak balira bezala kontsideratu bertsoez, ez eta idatzi baina ezagutzen ez ditugunez, hau ezinezkoa baita, noski, baizik eta gorago aipatu dudana soil-soilik.

Honetarako kanta beraren zazpi edizio eta zortzi aldaera ezberdin ezarriko ditugu bata bestearen aldamenean hobeto ohar gaitezen, orijinalaren joan-etorriez eta xehetasunez.

---

(1) *K. Mitxelena*, *Klasiko Sorta*, Donostia, 1986, 9-19.

(2) X. Elozegi, *J.-B. Elizanburu*, Ikas, Baiona, 1991.

(3) P. Urkizu, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako Bertso eta Kantak, II*, 1545-1900. Etor, Donostia 1991, 413-452. (Aurrerantzean LBNZ).

Robert Marichal (4) kritikariak dioen bezala, “une edition est une copie, et qui dit copie dit faute; on commet presque inevitablement des fautes, mêmes lorsqu’on copie un texte imprimé, à plus forte raison lorsqu’on copie un texte manuscrit”.

Alegia, edizio guztiak eta bakoitza kopiak direnez, denak daudela akatsez josiak, eta ezinbesteko hori areagoa gertatzen dela eskuskribuen kasuan.

Honela bada, ondoren aztertuko ditugu zazpi edizio ezberdin eta eskuzkribuaren testuak, alfabetikoki izendatuko ditugularik:

- A. *Almanaca berria* edo *egunaria...*, Lespès, Baiona, 1882, 29-32.
- B. Baionako Euskal Erakustegiko Eskuskribua. P. 258, 14-16. 1885. Doinuarekin.
- C. *Almanak Berria* edo *Ziberouko eta Basa-Nabarreko egunaria*. Garet, Pauben, 1890, 25-28.
- D. *Euskal-Erria*. Donostia, 1897, T. XXXVI, 19-21.
- E. *Gure Herria*. Baiona, 1923. Nehor (J. Barbier) eta C. Dufau-k bildua. Aita Donostiaren harmonizazioarekin.
- F. *Kantu, Kanta, Khantore*. Baiona, 1967. P. Lafitteren edizioa, 223-225.
- G. A.M. Labaien, *Elizanburu, bere bizitza ta lanak. Su vida y obras*. Auñamendi, Zarauz, 1978, 206-208.
- H. X. Elozegi, *J.-B. Elizanburu*. Ikas, Baiona, 1991, 57-56.

Hona bada, kronologikoki ezarriak, aldaerok:

A	B	C	D	E	F	G	H
1882	1885	1890	1897	1923	1967	1978	1991

---

(4) Robert Marichal, “La critique des textes”, *L’Histoire et ses méthodes*, La Pléiade, 1249.

## A

## Almanaca Berria

1882

*Lau andren besta*

## 1.

Herriko besta bigarreanean,  
 Berek dakiten chokho batean,  
 Lau andre, bat alharguna, hirur mutchurdin,  
     Jarriak itzalean,  
 Harri chabal bat belhaunen gainean,  
     Hari dire (*bis*) trukean.

## 2.

Zer duten nuke nik jakin nahi  
 Phitcherrarekin bertze jaun hori ;  
 Zorroa du biribila, moko meharra,  
     Ttente chutik egoki. . . . .  
 Chahato bat ez othe den nago ni,  
     Hampatua (*bis*) ederki ?

## 3.

Jesus ! oraino zer dut ikhusten ?  
 Zer hegal-pean dute gordetzen ?  
 Egoitza gocho hortarik, halto burua,  
     Chahatoaz trufatzen,  
 Bihotzez azkarragoa zeren zen,  
     Khuiatchoa (*bis*) hari zen.

## 4.

Besta delakotz egun herrian,  
 Aphaindu dire handi handian,  
 Ederki gazteen gisa pampinatuak  
     Ez phatchada ttikian,  
 Bihotz onez, partidaren erdian,  
     Irriz daude (*bis*) lorian.

## 5.

Handik chimiko, hemendik irri,  
 Haurrak bezala jostetan hari ;  
 Artean amodiozko begi-kolpe bat  
     Hegal-pean denari ;  
 Hitz bat erran gogo diote sarri  
     Beharrira (*bis*) khuiari.

## 6.

— « Gezurrik gabe, guazen Maria ;  
 « Eman jokoan ezti-etzia ;  
 « Hurbil zan untzi beltz hori, detzagun edan  
     « Trago bat edo bia ;  
 « Bihotza dinat epheltzen hasia.....  
     « Haurrak, zuen (*bis*) grazia ! » —

## 7.

Zahagiaren seme joria,  
 Non duk achtiko zorro lodia ?  
 Gaizoa, lehen birundan churgatu dautek  
     Odolaren erdia !  
 Orai hor hago zimur arpegia,  
     Kokoriko (*bis*) jarria !

## 8.

Seira truk dire zazpietarik,  
 Tantz orobat bi aldetarik ;  
 Erori da chahatua mokoz-iphurdi,  
     Nazki odol-husturik ;  
 Khuiatchoa hantche dago etzinik,  
     Azken hatsa (*bis*) emanik.

## 9.

Nahiz zarokan azken eskua,  
 Mariak zuen hasi gudua :  
 — « Truk ! » — « Jo zan ! » — Mariak *chango*,  
     Marichumek *hirua*. [Katichak *chaldun*,]  
 — « Marimartin, choratu zain burua ?  
 « Lauarekin hiruaren kheinua ? » —

## 10.

— « Ago, Maria, othoi, ichilik !  
 « Ez dun ikhusi nere kheinurik ;  
 « Ttintta bat edan orduko begiak ñir-ñir,  
     « Zer ! ez dun ahalkerik !  
 « Edan nezaken azkarren hortarik  
     « Gathilua (*bis*) betherik ! » —



## 11.

— « Bazikinagu, tresna makhurra,  
 « Ez dunala, hik, hatsa laburra ;  
 « Ez dun, ez, dion bezala, horma churgatuz  
     « Biribildu muthurra,  
 « Ez eta ere gorritu sudurra  
     « Milikatuz (*bis*) elhurra ! » —

## 12.

— « Apho mutchurdin moko biphila,  
 « Zeren ondoan othe habila ?  
 « Hatz badun hanken hegian, ikhusiko dun  
     « Zembat naizen abila !  
 « Chuhur badun, ago, neska chirchila,  
     « Ichil-ichil (*bis*) ichila ! » —

## 13.

Kartak utzirik eta tantoak,  
 Hantche zituzten gero saltoak.....  
 Bakharrik hiruen kontra zer eginen du  
     Marimartin gaizoak !  
 Nahiz izan azkar zango bezoak,  
     Hartu ditu (*bis*) paloak !..

## 14.

(AMETSA.)

Besta bigarren egun berean,  
 Lau gathu zahar, anjelusean,  
 Bat mainguz, hirur saltoka, sorginak puyes !  
     Zohatzila bidean,  
 Ikhusi ditut nik amets batean,  
     Akhelarre (*bis*) gainean.

PIARRES ADAME,

Saratarra.

## B

1885

*Lau andren besta**(Amex bat)*

1

Herriko besta bigarreanean,  
 Berec dakiten choko batean,  
 Lau andre, bat alharguna, hirur mutchurdin,  
     Yarriac itzalean,  
 Harri chabal bat beihaunen gainean  
 Hari dire, hari dire trukean.

2

Zer duten nuke nik yakin nahi  
 Pitcherrarekin bertze yaun hori ;  
 Zorroa du birila, moko meharra,  
     TTente chutik egoki...  
 Chahato bat ez othe den nago ni,  
 Hampatua, hampatua ederki ?

3

Yesus! oraino zer dut ikusten ?  
 Zer hegal-pean dute gordetzen ?  
 Egoitza gocho hortarie, halto burna,  
     Chahatoaz trufutzen,  
 Bihotzez azkarragoa zeren zen,  
 Khuiatchoa, khuiatchoa hari zen.

4

Besta delakotz egun herrian  
 Aphaindu dire handi-handian ;  
 Ederki gaztean gisa pampinatuac  
     Ez patchada ttikian,  
 Bihotz onez partidaren erdian  
 Irriz daude, irriz daude lorian..

## 5

Iandic chimiko, hemendic irri,  
 Haurrac bezala yostetan hari;  
 Artean amodiozko begi-kolpe bat  
     Hegal-pean den hari;  
 Hitz bat erran gogo diote sarri  
 Beharrira, beharria khuiari.

## 6

Gezurric gabe guazen Maria,  
 Eman yokoan ezti-etzia;  
 Hurbil zan untzi beltz hori, detzagun edan  
     Trago bat edo bia;  
 Bihotza dinat epheltzen hasia...  
 Haurrac zuen, haurrac zuen grazia!

## 7

Zahagiaren seme yoria,  
 Non duk achtiko zorro lodia?  
 Gaizoa, leben birundan churgatu dautek  
     Odolaren erdia!  
 Oray hor hago zimur arpegia  
 Kokoriko, kokoriko yarria!

## 8

Seira truk dire zazpietarie,  
 Tantoz orobat bi aldetarie;  
 Erori da chahatoa mokoz-iphurdi  
     Naski odol-husturic.  
 Khuiatchoa hantche dago etzinic,  
 Azken hatsa, azken hatsa emanic.

## 9

Nahiz zarokan azken eskua,  
 Mariac zuen hasi gudun:  
 Truk, yo zan. Mariac Chango, Katichac Chaldu  
     Marichumec hirua:  
 • Marimartin, choratu zain burua?  
 • Lauarekin biruaren kheinua!

## 10

• Ago, Maria, othoi ichilic ;  
 Ez dun ikhusi nere kheinuric ;  
 Ttunta bat edan orduko begiac ñir-ñir,  
     Zer ! ez dun ahalkeric ?  
 Edan nezaken azkarren hortaric  
 Gathilua, gathilua tetheric. •

## 11

• Bazakinagu, tresna makhurru,  
 Ez dunala bik hatsa laburra ;  
 Ez dun ez, dion bezala, horma churgatuz :  
     Biribildu muthurra,  
 Ez eta naski gorritu sudarra.  
 Milikatoz, milikatez elhurra ! •

## 12

• Apho mutchurdin moko biphila,  
 Zeren ondoan othe habila !  
 Hatz badun hanken hegian ikhusiko dun  
     Zembat naizen abila !  
 Chuhur badun ago, neska chirtchila,  
 Ichil-ichil ichil-ichil, ichila ! •

## 13

Kartac utziric eta tantoac,  
 Hantche zituzten gero saltoac....  
 Bakharric hiruen kontra zer eginen du  
     Marimartin gaizoac !  
 Nahiz izan azkar zango besoac,  
 Hartu ditu, hartu ditu paloac !

## 14

(Ametsa.)

Besta-bigarren egun berean,  
 Lau gathu zahar anyelusean,  
 Bat mainguz, hirur saltoka, sorginac puyes !  
     Zohatzila bidean,  
 Ikhusi ditut nik amets batean,  
 Akhelarre, akhelarre gainean.

Piarres ADAME.

## C

## Almanak Berria

1890

*Lau andren besta*

1.

Herriko besta bigarrenan,  
 Berek dakiten chokho batean,  
 Lau andre, bat alharguna, hirur mutchurdin,  
     Jarriak itzalean,  
 Harri chabal bat belhaunen gainean  
     Hari dire (*bis*) trukean.

2.

Zer duten nuke nik jakin nahi  
 Phitcherrarekin bertze jaun hori;  
 Zorroa du biribila, moko meharra,  
     Ttentte chutik egoki..  
 Chahato bat ez othe den nago ni,  
     Hampatua (*bis*) ederki?

3.

Jesus! oraino zer dut ikhusten?  
 Zer hegal-pean dute gondetzen?  
 Egoitza gocho hortarik, halto burua,  
     Chahatoaz trufatzen,  
 Bihotzez azkarragoa zeren zen,  
     Khuintchoa (*bis*) hari zen.

4.

Besta delakotz egun herrian  
 Aphaindu dire handi handian.  
 Ederki gazteen gisa pampinatua  
     Ez phatchada ttikian,  
 Bihotz onez, partidaren erdian,  
     Irriz daude (*bis*) lorian.

## 5.

Handik chimiko, hemendik irri,  
 Haurrak bezala jostetan hari;  
 Artean amodiozko hegi-kolpe bat  
     Hegal-pean denari;  
 Hitz bat erran gogo diote sarri  
     Beharrira (*bis*) khiuari.

## 6.

—“Gezurrik gabe, guazen Maria;  
 “Eman jokoan ezti-eztia:  
 “Hurbil zan untzi beltz hori, detzagun edan  
     “Trago bat edo bia;  
 “Bihotza dinat epheltzen hasia...  
     Haurrac, zuen (*bis*) grazia!

## 7.

Zahagiaren seme joria,  
 Non duk achtiko zorro lodia?  
 Gaizoa, lehen birundan churgatu dautek  
     Odolaren erdia!  
 Orai hor dago zimur arpegia,  
     Kokoriko (*bis*) jarria!

## 8.

Seira truk dire zazpietarik,  
 Tantzoz orobat bi aldetarik;  
 Erori da chahatua mokoz-iphurdi,  
     Nazki odol-husturik;  
 Khuiatchoa hantche dago etzinic,  
     Azken hatsa (*bis*) emanik.

## 9.

Nahiz zarokan azken eskua,  
 Mariak zuen hasi gudua:  
 —“Truk!” — “Jo zan!” — Mariak Chango  
     Marichumek *hirua*. (Katichac *chaldun*,)  
 —“Marimartin, choratu zain burua?  
 “Lauarekin hiruaren kheinua?”—

## 10.

—“Ago, Maria, othoi, ichilik!  
 “Ez dun ikhusi nere kheinurik;  
 “Ttintta bat edan orduko begiac ñir-ñir,  
     “Zer! ez dun ahalkerik?  
 “Edan nezaken azkarren hortarik  
     “Gathilua (*bis*) betheric.”

## 11.

—“Bazikinagu, tresna makhurra,  
 “Ez dunala, hik, hatsa laburra;  
 “Ez dun, ez, dion bezala, horma churgatuz  
     “Biribildu muthurra,  
 “Ez eta naski gorritu sudurra.  
     “Milikatuz (*bis*) elhurra!”—

## 12.

—“Apho mutchurdin moko biphila,  
 “Zeren ondoan othe habila?  
 “Hatz badun hanken hegian, ikhusiko dun  
     Zembat naizen abila!  
 “Chuhur badun, ago, neska chirchila,  
     “Ichil-ichil (*bis*) ichila!”—

## 13.

Kartak utziric eta tantoak.  
 Hantche zituzten gero saltoak...  
 Bakharric hiruen kontra zer eginen du  
     Marimartin gaizoak!  
 Nahiz izan azkar zango bestoak,  
     Hartu ditu, (*bis*) paloak!

## 14.

(Ametsa)

Besta-bigarren egun berean.  
 Lau gathu zahar anyelusean.  
 Bat mainguz, hirur: saltoka, sorginak puyes!  
     Zohatzila bidean.  
 Ikhusi ditut nik amets batean.

D

## Euskal-Erria

1897

*Lau andren besta*

(Amex bat)

Er-ri-ko besta bi-ga-- re - ne - an

Be - rek da - ki - ten cho - ko ba - te - an

Lau an - dre bat al - ar - gu na i - pur

mut - chur - din yar-ri - ak i - lza - le - an,

ar-ri cha - bel bat bel - au - nen gai - ne - an

a ri di - re a - ri - di - be tru - ke - an

Zer duten nuke nik yakin nai  
 Pitcherrarekin bertze yaun ori;  
 Zorroa du biribila, moko mearra tente chutik egoki  
 Chaato bat ez ote den nago ni  
 Anpatua, anpatua ederki.

Jesus! oraino zer dut ikusten?  
 Zer egal-pean dute gordetzen?  
 Egoitza gocho ortarik, alto burua, chaatoaz trufatzen,  
 Biotzez azkarragoa zeren zen  
 Kuiatchoa, kuiatchoa ari zen.



Besta delakotz egun errian,  
 Apaindu dire andi andian  
 Ederki gaztean gisa panpinatuak, ez patchada ikian,  
 Biotz onez partidaren erdian,  
 Irriz daude, irriz daude lorian.

Andik chimiko, emendik irri,  
 Aurrak bezala yostetan ari;  
 Artean amodiozko begi kolpe bat egalpean den ari...  
 Itz bat erran gogo diot sarri,  
 Bearrira, bearrira kuiari.

Gezurrik gabe guazen Maria,  
 Eman yokoan ezti eztia;  
 Urbil-zan untzi beltz ori detzagun edan trago bat edo bia;  
 Biotza dinat epeltzen asia....  
 Aurrak, zuen, aurrak, zuen grazia!

Zaagiaren seme zoria,  
 Nunduk ahtiko zorro lodia?  
 Gaizoa, leen birundan churgatu dautek odolaren erdia!  
 Orai or ago zimur arpegia,  
 Kokoriko, kokoriko yarria!...

Seira truk dire zazpietarik  
 Tantoz orobat bi aldetarik  
 Erori da chaatoa mokoz ipurdi, naski odol usturik?  
 Kuiatchoa antche dago etzinik,  
 Azken atsa, azken atsa cinanik!

Naiz zarokan azken eskua,  
 Mariak zuen asi azken gudua:  
 Truk! yo zan! Mariak chango, Katichak chaldun, Marichumek  
 Marimartin, choratu zain burua? [irua!  
 Lauarekin iruaren keinua!

Ago, Maria, otoi, ichilik,  
 Ez dun ikusi nere keinurik!  
 Tinta batedan orduko begiak *nir-nir*, zer ez dun aalkerik?  
 Edan nezaken azkarren ortarik  
 Gatilua, gatilua beterik!

Bazakinagu, tresna makurra,  
 Ez dunala ik axa laburra;  
 Ez dun ez, dion bezala, orma churgatuz biribildu muturra  
 Ez eta, naski, gorritu sudurra  
 Milikatuz, milikatuz elurra!...

Apo mutchurdin moko bipila,  
 Zeren ondoan ote abila?  
 Atz badun anken egian, ikusi dun zenbat naizen abila;  
 Chuur badun ago, neska chirchila,  
 Ichil, ichil, ichil, ichil, ichila!

Kartak utzirik eta tantoak,  
 Antche zituzten gero saltoak;  
 Bakarrik iruen kontra zer eginen du Marimartin gaizoak?  
 Naiz izan azkar zango besoak,  
 Artu ditu, artu ditu paloak!

Besta bigarren egun berean,  
 Lau gatu zaar, anyelusean,  
 Bat mainguz, irur saltoka sorginak puias  
     Zoatzila bidean,  
     Ikusi ditut niķ amex batean,  
     Akelarre, akelarre gainean!...

## E

## Gure Herria

1923

*Herriko besta biharamuna*

## I

Iragan besta biharamunean,  
Berek dakiten choko batean,  
Lau andre, hirur mutchurdirin, bat alarguna,  
(Jarsiak itzalean,  
Harri chabal bat belhaunen gainean,  
Hari ziren, hari ziren trukean.

## II

Zer othe duten nuke jakin nahi  
Pitcharrarekin bertze jaun hori :  
Zorroa du biribila, moko mehea, tente chutik  
Chahako bat othe den nago ni (egoki,  
Hampatua, hampatua ederki.

## III

Jes ! oraino zer dut bada ikhusten ?  
Zer da, hegalpean dute gordetzen ?  
Egoitza gocho hortarik, burua alto, chahakoaz  
Bihotzez azkarrago zeren den, (trufatzen  
Kuiattoa, kuiattoa ari zen.

## IV

Handikan chimiko, herfendik irri,  
Haur batzu bezala jostetan ari ;  
Gogotik ematen dute begi kolpe bat hegal pean  
Hitz bat erran gogo diote sarri (denari ;  
Beharritat, beharritat kuiari.

## V

Seira truk dirade zazpietarik,  
Tantoz ere bardin bi aldetarik.  
Chahakoa eroria, mokoz iphurdi naski odol  
Kuiattoa han dagoke-etzanik (husturik ?  
Asken atza, azken hatsa emanik.

## VI

« Gezurrik gabe goazen, Maria ;  
Eman ba jokoan ezti eztia ;  
Hurbil zan untzi beltz hori, dezagun edan trago  
Bihotza dinat epheltzen hasia. » (bat edo bia.  
Harek zuen, harek zuen grazia !...

## VII

Zahagiaren seme joria,  
Nun duk achuko zorro lodia ?  
Gaizoa, lehen birundan zurgatu dautek odolaren  
Orai or ago, zimurrik arpegia, (erdia !  
Kokoriko, kokoriko jarria.

## VIII

Nahiz zeraukan azken eskua,  
Mariak zuen hasi gudua :  
« Truk ! -- Jozan ! » Mariak chango, Katichak  
(chaldun, Marichumec hirua.  
« Mari Martin, choratu zain burua,  
Lauarekin hiruren kheinua ! »

## IX

-- « Ago, Maria, othoi, ichilik,  
Ez dun ikhusi nerz keinurik.  
Chorta bat edanez geroz begiak nirnir ; zer ez  
(dun ahakerik ?  
Edan hezake azkarren-hortarik,  
Gatilua, gatilua betherik ! »

## X

-- « Bazakinagu, tresna makhurra,  
Ezdunala hik hatsa laburra.  
Ez dun, ez, dionan bezala, horma churgatuz  
(biribildu muthurra  
Ez eta ere gorritu sudurra,  
Milikatuz, milikatuz elhurra !...

## XI

-- « Apho mutchurdirin moko biphila,  
Zeren ondoan othe habila ?  
Hatz badun gibel aldean, ikhusiko dun zembat  
Elizanbururen eskuliburuan izenburu hau darama kantu honek: *Agur Herriari!* PBN-ean gordetzen den “Urruñaco Eliza-Besta” izeneko bertso-paperetan (1862) “aiphamena” ematen diote *Agur nere herria* daramanari. Bat izango direlakoan nago eta horrek adierazten digu Garhait-saria eta bi aipamen lortu zituela Elizanburuk 1862.eko jaietan Urruñan. Hogeita hamalau urte zituen gure olerkariak eta urte hau izan daiteke saratarren unerik gailenena. *Urrundik ikusten dut* hitzekin ere ezagutua den kantu hau *RBPL* delako aldizkariak kaleratu zuen 1883/1884 urteetako alean, eta 1887 urtean *Euskal-Erriak* (Ikus XVI, 366 orr.) Testu osoa ematen du azken aldizkariak, euskarazkoa “Piarres Adame, Saratarrak” sinatzen duelarik; baina frantses itzulpena ere badakar, J.B. Elizanburuk sinatua. Labaienek ere ematen digu kantu hau, Elizanbururen eskuliburutik doinua kopiaituz. Berriz Etxemendik eta Lafittek harriduran jartzen gaituzte *Kantuz* bilduman (Ikus 11. zenbakia, 24. orr.): Haaluchi (Darrupe) (sic) egilea dela diote, inon ikusi ez dugun datua, eta doinua 5/8 erritmoan ematen digute.

Hemen ere bertsogintzako zortziko txikia darabil Elizanburuk. Ikus dezakegunez, kantugintzako lehen hiru urteetan bertsolaritzari loturik zebilen Elizanburu, lau kantutik hiru zortziko txikian idazten baititu. Gero etorriko dira doinu bereziak eta zortziko zaharrak. Beraz *Agur herriari* kantuak 7/6A, 7/6A, 7/6A, 7/6A egitura du, nahiz eta lehengoetan bezala Iparraldeko ohitura errespetatu hemen.

Doinua dela eta bi dira poema hau kantatzeko erabiltzen direnak. Elizanburuk bere eskuliburuan idatzi zuena 3/4 konpasean dago eta melodia aldetik ez du zerikusirik bestearekin, hots, 5/8 edo zortziko erritmoan kantatzen denarenekin. Elizanburuk erabili zuen doinua bizirik zegoen Saran 1912an Aita Donostiak bertan bildu zuenean. Doinu hau, harmonizaturik, *Goizean goiz* liburukian agertzen da. Bigarren doinua, zortziko eritmokoa, Baztanen bildu zuen 1916an Aita Donostiak berak, eta *Larre gorrian* liburukian harmonizaturik agertzen da. Esan behar da bi liburuki hauek Aita Erriezukoak argitaratu zituela, Aita Donostiaren lanekin. Hemen ematen dudan doinua Elizanburuk bere eskuliburuan kantu honi jarri ziona da:

Urrundik i-kus - ten dut / ikusten mendi - a -

zeinaren gi-be - le - an / baitut nik he-rr-i- a



## 5. Maria

Saran antolatu ziren 1866.eko Euskal Jaiak edo “Bestak” eta beti bezala “Berxutako Gudua” aipatzen da Lamaignère alargunak inprimatu zituen bertso-paperetan. Izenik gabe aurkeztu omen zuen Elizanburuk poematxo hau eta *Le Courier de Bayonne* kazetak (1886.8.31) galdetzen zion egile ezezagunari bere burua ager zezala. Eta agertu zuen nonbait Lamaignèrek argitaraturiko paperetan honako hau azaltzen bait da: “Garhait-saria J.B. Elissamburu, Emperadorearen goardian, lotinent denari kantu hunentzat: MARIA. Airea: Ikhazketako mandoarena”. Beraz, Teniente izendapena lortu ordukoa da poematxo hau. Manterolak *Cancinero Basco* delako bilduman (1880, 212-219 orr.) eman zizkigun, hasierako irazkin batekin, euskarazko testua, Elizanburuk berak egindako frantsesezko itzulpena eta Manterolaren gaztelaniazkoa. Gero, 1885ean, *Revue des Basses Pyrénées et Landes* aldizkariak argitaratu zuen (II, 44-46 orr.) eta EE aldizkariak 1906an (37-38 orr.). Labaienek ere ematen digu, nola ez, testua. Beraz, zabalkunde handia izan duen kantua izan da hau.

Metrikari dagokionetik, sei puntuko bertsoa dugu eta egitura bereziko: 7/5A, 7/5A, 5A, 7/5A, 5A, 7/5A. Baina ezaguna zen orduan bertsoaren egitura hau Leon Elizanburuk ere erabili zuen *Emazte edalea* jartzeko 1855ean Urruñan irabazi zuen kantuan.

Doinua ere ezaguna zen. Leon Elizanburuk, aipatu bertsoa kantatzeko airea honako hau zela zioen: “Hau da ikhasketaco (sic) mandoaren traça”. Beraz, 1855 urtea baino lehen erabilitako doinua dugu hau. Jean Dominique Julian Sallaberry-ren *Chants Populaires de Pays Basque* bilduman agertzen da doinua (1870) pianoaren laguntzarekin (84-85 orr.). Alphonse Dotterer zen laguntza hauek Sallaberry-rentzat egin zituena “jeune musicien d’avenir, ancien élève du Conservatoire de Paris” Maulleko biltzaileak aitortzen duenez. Jatorrizko bertso honen 20 ahapaldi ematen dizkigu Sallaberry-k, frantsesezko itzulpenarekin, lehena hala delarik:

Hauche da ikhazketako mandoaren traza:  
 Lephoa mehe du eta ilia latza,  
 Itchura gaitza;  
 Bastape guzitikan zauriak balsa,  
 Hauche da salsa!  
 Kristaurik ez daiteke aldetik phasa.

“Nafartar eta Basa-Nabartarrez” ematen digula testua dio Sallaberry-k. Manterolak ere eman zigun doinu hau bere *Cancionero Basco* delakoan pianoren laguntzarekin (Serie III, Apéndice de música, IX-XI orr.) 1880. urtean. Elizanbururen eskuliburuan 3/8 konpasarekin agertzen da kantu hau, Sallaberry-k ematen digun konpas bereberean; Mante-rolak oster a 6/8 konpasean ematen digu. Euskaltzaindiaren artxiboan dagoen *Chansons Basques* eskuskribuan, non doinua bakarrik ematen zaigun, 3/4 konpasean agertzen da. Hara hemen kantu honen doinua:

Ber - tsek e - rran baitu - te / nik baino le - hen  
 hai - nitz a - di - tuz de - la / hai - nitz ikas - ten  
 us - te dut on den  
 nik da - ki - tan beza - la / gu - zi - ek a - rren  
 ja - kin deza - ten  
 Be - raz ai - pa de - za - gun / Ma - ri - a nor den  
 Be - raz ai - pa de - za - gun / Ma - ri - a nor den.

## 6. Txori berriketaria (*Sorlekua*)

Doiharçabal izeneko sinadurarekin aurkeztu zen poema hau 1869an Sarako Bertso gudueta. Baina *Le Courier de Bayonne* kazetak zioenez (1869-9-5) idazlan hau eta beste bi “berantegi iritsi dira, baina heldu den urteko sariketara aurkezten ahal dira”. Prusiarekin gudua hasia zen eta Sedaneko hondamena gertatu ondoren (1870, irailak 1) ez ziren hil horretan ospatzen ziren Euskal Jaiak antolatu. Hurrengo urterako geratu ziren ba ordurarte aurkeztutako lanak eta 1871ean antolatu ziren Sarako bestetan *Txori berriketariak* irabazi zuen saria. PBN-ean dauden D’Abbadieren paperetan Doiharçabal-ek sinatutako originala dago eta beste esku batek idatzia, egilearen izenaren ondoan, “St. Jean de Luz” irakurtzen



da. Egilearen izen hori izenordea zela esaten zuen Julien Vinson-ek *Revue de Linguistique* delakoan (1872) eta Duvoisin ere iritzi berdinekoa zen. *Euskal-Erria* aldizkariak argitaratu zuen poema honen testua 1883.eko alean (442 orr.): *Chori berriketaria. M. Doyharçabal Donibane Lohizunekoak egina* eta frantsesezko itzulpena (466 orr.). Orrialdepeko ohar batean zera dio: "... M. Doyharzabal, bajo el que se encubre, según nuestras noticias, una persona muy conocida en San Juan de Luz". Izenik ez badu aipatzen ere, Martin Guilbeau kantu honen egilea zelakoan zegoen EE-ren zuzendaria. Egia esan, Doyharçabal omen zen Guilbeau-ren bigarren deitura, baina 1883an ospetsua bazen ere, 1878-1888 urteetan Donibane auzapeza izan zelarik, 1869an poema aurkeztu zuenean ez zen hain ezagutua. Eta zalantza guztiak Guilbeau berak argitzen dizkigu 1897an, Saran Elizanbururi "Association Basque" zelakoak omenaldia antolatu zionean. *Revue de Linguistique* aldizkarian (1898, 193-223 orr.) aitortzen du Jean Batiste Elizanburu izan zela *Xori berriketariaren* egilea. Elizanbururen eskuliburuan berea delakoan agertzen da kantu hau eta geroztik egiletzat baieztatzen dute Labaienek, eta KAN eta KKK bildumak.

Metrikaren aldetik, berezia dugu poematxo hau: 8/8A, 8/8A, 9/8A, 9/8A, doinuaren eraginez, behar bada, eratua. Herriko doinuak erabilten zituela Elizanburuk esan dugu, baina oraingoan, behar bada, berak asma-tua dela esan dezakegu. Orduko kantu bildumetan ez dut doinu hau ikusten eta bertsolariek ere ez zuten kantatzen bertsorearen egitura bereziagatik. Orain ere bertsolarien artean gutxi entzuten den doinua da, agurrak eta kartzelako gaiak kantatzeko ez bada. Esate baterako 1962.eko Bertsolarien Txapelketan agurrak kantatzeko erabili zuten doinu hau Azpillagak Idiazabalen eta Amurizak Durangon. Euskaltzaindiko artxi-boan dagoen *Chansons Basques* eskuskribuan, Azkueren eskuz idatzia agertzen da, 110.zenbakia daraman doinuan, "Elissamburu". Gure egunetan hain ezaguna den doinu hau hala agertzen da Elizanbururen eskuliburuan:

Sorleku-a utzi nuen / ondikotz!hala beha -rrez

Jaingo o - na urri-kalduz / beti-ko nere nigarrez.

Primaderan hasi ardu - ko / arbolak estaltzen lorez

Txoritto bat helduda beti / nere herritik hegalez.

## 7. Biba Frantzia!

Egia esan, *Biba Francia* idatzi zuen elizanburuk eskuliburuan kantu honi izenburua jarri zionean. *Almanakak* argitaratu zuen 1891.eko alean eta geroztik Labaien izan da bakarra kantu hau Elizanbururi atxeki diona. Ez zen inon aurkeztua izan eta datarik ere ez darama, baina gaiak argi diosku 1870ean hasi zen gerrako ondorena dela. “Urthe guti du...” dio Elizanburuk bigarren ahapaldiaren hasieran eta horrek adierazten digu 1873 edo 1874 urtean egina izan daitekeela.

Metrika aldetik dantzatzeko “jota”ren neurrikoa da: 10A 10A / 10A 8A/ 10A 10A / 10A 8A. Eta argi ikusten da azken mendean hain ezaguna den *Andre Madalen* kantuaren doinua daramala. Honekin apur-tzen du Elizanburuk orain arte kantueta erabili duen lasaitasuna eta jasandakoak gainditzeko duen itxaropen bizia agertu nahi digu. Baina doinua idatzikeran erratu zela esango nuke, 3/4 konpasean idatzi behar-rean 3/8 edo 3/6 konpasetan hobe legokeelako, erritmoa aldatzen bait dute, bigarren eta laugarren lerroetako azken konpasek. Dena den, Eli-zanburuk idatzi zuen era berean ematen dut doinua:

No-la guk erran egun Frantzia gu hire hauzren a-legrantzia?  
a-ma gi-ni-an hi-tan e-ri-a E - xai ek hiltzat notzia.  
Hek xur-ga -turik Odol gu - zi-a apal hindagon ez e -roria  
xuti -tu bai haiz o-rai he-rr-i-a Bi - ba bai Biba Frantzia

## 8. Lehen eta orai

Aspaldian zegoen Elizanburu Euskal Jaietara ezer aurkeztu gabe. Eta D'Abbadiek 1879an Elizondon antolatutako jaietara ere ez zuen kanturik aurkeztu. Baina urte berean Jose Manterola adiskideak Donos-tian eratu zituen Lore Jokoak eta han agertu zen gure olerkaria gizarte arazoetaz asmatuiko poematxo batekin: *Lehen eta orai*. Hitz lau-zko idazlan bat ere aurkeztu zuen, hots, *Piarres Adame* elaberriaren zati bat. *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu zen aipatu poema 1885ean (217-219 orr.) eta Piarres Adame, Saratarrak sinatzen zuen. Labaienek ere ematen digu doinu eta gutzi.

Zortzi puntutakoa dugu Elizanburuk kantatzen digun hau, egitura honetakoa: 7/5A, 7/5A, 7/6A, 7/6A, 6A, 6A, 6A, 7/5A. Ez dira asko bertso mota hau eta dagokion doinua kantatzen duten bertsolariak, zaila baita bat batean egitura horrekin bertsoa asmatzea. Baina doinu ederragorik aurkitzea ez da erraza. Ezaguna zen Elizanburuk erabili zuenean, bederatzi urte lehenago (1870) argitaratutako liburu batean agertzen baita, hots, J.D.J. Sallaberry-k kaleratu zuen *Chants Populaires du Pays Basque* (261-262 orr.), zazpi puntuko bertso hau ematen digularik: *Mila zortzi ehun hemeretzi*an hitzekin hasten dena. Joanes Otxalde bidaitarrarena dela diote Etxemendi eta Lafittek *Kantuz* bilduman, bigarren ahapaldian agertzen baita “Bidarraitarra nuzu” aitortpena. Bi hitz horiekin ezagutzen dute bertsolariak doinu hau. Beraz, Otxalderen (1814-1897) zazpi puntutako bertsoa zortzi puntutakora garatu zuen Elizanburuk, eta ehun urte geroago, 1982an Euskaltzaindiak antolatutako Bertsolari Txapelketan, bederatzi puntutako bertsoa egokitu zuen Xabier Amurizak, “*Txantxan-gorria*”, Donostiako finalean, egitura honekin kantatu zuenean: 7/6A, 7/5A, 7/6A, 7/6A, 6A, 6A, 6A, 6A, 7/5A. “Ahaire zahar huntan” kantatu zuen Amurizak txapela eman zion bertso eder hau (Ikus: Euskaltzaindia, *Bertsolari Txapelketa*. 1982. Bilbo, 1983, 258-259 orr.).

I - zan nauk Ipa - rre-ra he - goal-de-tik

I - guz-ki-ko parte ra mende -ba-le-tik.

E - ta diat i-ku - si gu- zi-en gainetik

I - no-zentzi-a hai-nitz gi-zonen parte-tik

a - bi - la hargatik

duk e-gun-dai-no-tik

e - gin ga-be de-nik

e - der-ki-e-na bi zi bertzen la-ne-tik

## 9. Aingeru bati

Ez dakigu noiz idatzi zuen Elizanburuk kantu hau. Dakigun bakarra da *Euskal-Erria* aldizkariak eman zigula 1880an (59 eta hurrengo orr.) Euskal testutik aparte, Manterolak egin zuen gaztelaniazko itzulpena eta Elizanburuk berak egindako frantseskoa azaltzen zaizkigu Donostiako aldizkari honetan. Elizanbururen eskuliburuan agertzen den doinua ere ematen digu EE-k, Jose Maria Etxeberria musikagileak gehitutako piano laguntzarekin. Gero Labaienek, KAN eta KKK kantu bildumek ere ematen digute kantu hau.

Olerki honen laudoriak egiten ditu Jose Manterolak bere aldizkarian eransten dizkion irazkinetan. Gauza bera egiten du Karmelo Etxegaraiak "Escritores euskaros. Elizaburu" artikuluan (Ikus *De mi Pais. Miscelanea histórica y literaria*. San Sebastián, 1901, 238-240 orr.) Poema honetatik azken bertsoaren zati hau ematen digu eredutzat Etxegarai jaunak:

... Oi! behautzu  
lohirat eror, zuk, aingerua!  
Ez beha lurra, beha zazu  
lurra ihesi beha zerua!

Hugo Schuchardt-ek ere bertsoaren zati berau ematen digu "beha" hitzaren esanahia aztertzeko (Ikus: *Zur kenntnis des Baskischen von Sara (Labourd)*, Berlin, 1922) "Beha" hori "kontuz!" edo "begira!" izan daitekeela diosku Grazeko irakasleak. Eta Oihenarten beste adibide bat jartzen digu: "Beha lehenik, mintza azkenik" non argi dagoen "beha" horrek adierazi nahi duena. Sarako euskararen ikerketa hau prestatzeko 1887an egon zen herri honetan Schuchardt jauna, nahiz eta askoz beranduago ikerlana argitaratu.

Metrikaren aldetik arrotza dela esan dezakegu: 9A, 10B, 9A, 10B, 9C, 9C, 9D, 10E, 9D, 10E, 8E, 12E. Eta hala izan behar doinu arrotz bati lotua dagoelako poema. Adolphe Adam (1803-1856) musikari frantsesak musikatutako *Si j'étais roi* operatik hartua da poematxo honen doinua (Lehen ekitaldia, 2. erromantza). Parisen estreinatu zen opera hau 1852an eta zabalkunde handia izan zuenez, edozein tokitan entzun zezakeen Elizanburuk opera osoa edo erromantza bera. Edo, Parisen entzungo zuen 1870 urtean hiriburu honetan egon zenean? Ez dakit. Baina musikan aditua zela Elizanburu baiezia dezakegu. Hara hemen kantu hau:

Maite dut e - ta e - zin erran  
aingeru ba - ti maite du - ta - la

zeru garbi -ak a - rra - xe-an  
i-za-rra mai-te duen beza - la.  
Zer! Ez da ba - da zo - ri-gai -tza  
Min-tza-tu na - hi e - zin min -tza.  
Non nahi nai -zen go - go - an dut  
gauaz e-gu - naz ain-ge-ru ho - ri.  
U-rrundik fran-ko xe - de bat dut  
Bainan hurbil - dik e-zin a-tre - bi  
Hur - bil - dik e - zin a - tre - bi.  
Hur -bildu e -ta ez nai -te -ke a -tre - bi

## 10. Eskuara eta eskualdunak (*Arbasoak*)

Poemaren hasieran ematen digu Elizanburuk berak idazlanaren data: “Mila bat zortzi ehun eta lauetan hogoiean” (1880). Aurreko urtean antolatu zituen D’Abbadiek Euskal Jaiak Elizondon, eta saria lortu zuen poema *Ama euskeriari azken agurra* izan zen, Felipe Arrese Beitia bizkaitarrarena. Euskal Herri oso baten kontzientzia sortu zitzaion orduan Elizanbururi: “Guziak bat, mendien bi aldetan” kantatzen du orain, euskaldun guziok herri bakar bat osotzen dugula kantatuz. Betidanik datorkigu batasun hau eta horregatik *Arbasoak* izenarekin ere ezagutzen da kantu hau.

Piarres Adamek sinatuta agertu zen poema hau *Euskal-Erria* aldizkarian, doinu eta guzti, 1882an (42-46 orr.) gaztelaniara eta frantsesera ere itzulita. Iruñeko *Revista Euskara*-k ere argitaratu zuen urte berean (V, 154-157 orr.). Bizkaierara moldatu zuen Azkuek *Euskalzale* aldizkarian (1897, I, 134-135 orr.). Gero. Atharratzeko Albert Constantin-en ahotik hartuta *Cancionero Popular Vasco* delakoan eman zigun Azkuek *Basoilarrak* titulupean (I Tomoa, 18. kantua). Aita Donostiak "Nehor" (Jean Barbier) —en bildumatik hartu zuen eta *Gure Herrian* argitaratu zuen (1923) gero Erriezuko Jorgek prestaturiko *Larre gorrian* era ematen zaigularik Aita Donostiaren harmonizazioa (21 orr.). Erriezuko Aita berak ematen digu kantu hau *Flor de canciones populares vascas* liburuan (Buenos Aires, 1948, 196-199 orr.). Labaienek ere ematen digu kantu hau, baita KAN eta KKK bildumak ere. Beraz, Elizanburuk eskuliburuan ematen digun kantu hau izan daiteke gehien geroztik argitaratua izan dena.

Bertso zaharren metrika du kantu honek: 9/7A, 9/7A, 9/7A, 9/7A. Eta doinua ere zaharra dela diosku Elizanburuk lehen bertsoan: "Bertso berri hauk eman dire aire zahar batean". Hau dugu doinu zahar hori eta Elizanbururen lehen bertsoa:

Mila bat zortzi e-hun e- ta lau-etan hogoie - an

bertsu berri hauk eman dire aire zahar bate - an

Gure ai-ta - so kantabre-ak lo baitaude lurpe - an

ez o-te di-re atzarri-ko aire hau aditze - an

### 11. Zapataina (Gizon zuhurra)

Kantu honen data ere ez da ezaguna. Dakiguna da *Euskal-Erriak* argitaratu zuela 1882 urtean (VI, 171-173 orr.) Manterolaren itzulpen batekin. Labaienek musikarekin argitaratzen du kantu hau eta KKK bildumak, doinu gabe, eta beste izenburu batekin: *Jakintsunen arabera*, hau bait da bertsoen hasiera.

Bertsoaren egitura zortziko zaharrarena da: 8/7A, 8/7A, 8/7A, 8/7A. Eta egitura horri dagokion doinua ere zaharra izan behar halabeharrez.

J. D. J. Sallaberry-k ematen digu kantu hau maiz aipatu dugun liburuan (157 orr.), baina Zuberoako testu batekin: *Chorittua nurat hua?*, oso ezaguna, bestalde, Euskal Herri osoan.

Doinu honen lehendabiziko berri Chahok eman zigun 1835ean (Paris, *France Littéraire*, XIX, 319 orr.) eta hurrengo urtean *Voyage en Navarre* liburuan (1836) argitaratu zuen bigarren aldiz (39 orr.) Doinu eder hau *Mendi Mendiyan* opera musikatu zuenean (1910) erabili zuen Jose Maria Usandizagak, eta gero Aita Donostiak (1952).

Esan dezagun, Elizanburuk etenekin eman zigula aspaldidanik eza-gutzen zen doinua eta melodia aldatuz. Ene ustez askoz ere ederragoa da Chahok eta Sallaberry-k bildu zutena. Baina hemen Elizanburuk idatzirik utzi ziguna emango dugu:

Ja-kintsu nen a - ra-be-ra nor-be-rak du be- re - a

mundu-ra sor -tu de-ne-an e -ka-rri den zorte - a

Jainko-ak na-hi be -za-la nik maite dut ne- re - a

na-hiz ez den jen-den us-tez zo-ri -o-nez be-te - a

## 12. Lau andren besta (*Amex bat*)

Kantu hau 1882 baino lehen egina zela badakigu, *Almanakak* argita-ratu bait zuen data horretan. Gero *Euskal-Erriak* eman zigun 1897an (19-21 orr.) Martin Guilbeauk Saran egin zuen hitzaldian (1897-9-13) Elizanbururena dela kantu hau diosku. Zein den kantu honen jatorrizko testua zalantzan jarri da, baina Elizanbururen eskuliburua ikusi ondoren ez dago inolako duda-mudarik. Hau da berak ematen digun testua:

Herriko besta bigarrenean (beraz: 5/5 silaba)

*Chansons Basques* delako eskuskribuan egitura berbera agertzen da hitz bat aldatuz:

Eliça phesta bigarrenian (beraz: 5/5 silaba)

Baina *Kantuz* bilduman silaba bat gehitu zaio, nota beltzarekin bi kortxea eginaz:

Irgan besta biharamunean (beraz: 5/6 silaba)

Bilduma horretatik harturik, hasiera hau ematen dio kantuari Auñamendiren *Entziklopediak*, eta halaxe agertzen da *Boga Boga* bilduman ere. Baina ulertu ezinezkoa da Labaienek ematen digun testua:

Igan besta biharamunean (beraz: 4/6 silaba)

hamar silaba guztira izan arren erritmo guztia apurtzen duelako.

Egitura hau dauka bertso berezi honek: 10A, 10A, 20A, 11A, 11A. Elizanburuk ematen digun doinua hau da:

Herri-ko besta biga -rre-ne-an

berek da-ki-ten txoko ba- tean

lau andre bat a - lar-gu - na hirur mutxurdin jarri -ak itza-lean

harri zabal bat belauen gaine-an

a-ri dire,a-ri di-re tru-ke-an

### 13. Maite zaitut!

Elizanbururen azken kantua dugu hau, eskuliburuan ere azken tokian idatzirik agertzen delarik. Data hau jarri zion: "1.<sup>er</sup> Octobre 1885". Gainera Sarako Euskal Bestetara aurkeztu zuen 1885ean, Eyheraburu izenordearekin. Duvoisin-ek argitu zigunez, Elizanbururena zen izenorde hori. *Revue des Basses Pyrénées et Landes* argitaratu zuen poema hau 1886an eta *Euskal-Erriak* 1893an (402 orr.). Labaienen liburuan ere agertzen da argitaratua, doinurik gabe.

Zortziko zaharraren egitura dauka metrika aldetik, baina puntuak edo errimak ez dira lau, zortzi baizik: 8A, 7B, 8A, 7B, 8C, 7D, 8C, 7D. Zortziko zaharra kantatzeko doinua erabili zezakeen Elizanburuk, baina ez zuen halakorik egin, hemen ere doinu arrotzaz baliaturik. Egileak



berak esaten digu zein den erabili behar den airea: “La Rose de Martha”. Ikusi dugunez, *Aingeru bati* kantatzeko opera baten doinua erabili zuen eta hemen ere gauza berbera egiten du. Beraz lehen izan dugun susmoa baieztatzen da: Elizanburuk operak edo zatiak entzuten zituela (Parisen edo beste nonbaiten) eta musikan aditua zela, musika lirikoan behintzat.

*Maite zaitut!* kantatzeko darabilen doinua *Martha* operatik hartutakoa da, “Udako azken larrosa” izena daraman erromantza, hain zuzen. Opera honen musikagilea Friedrich Flotow (1812-1883) zen, Vienan 1847an musikalan hori estreinatu zuena eta Parisen 1858.eko azaroaren 25ean Adelina Patti sopranoak entzutetsua egin zuen doinu hau Irlandako herri doinua omen zen. Eta hala baieztatzen digu J.L. Hatton eta J.L. Molloy jaunek argitara emandako *The Songs of Ireland* liburuak (London, d.g. 22 orr.) non agertzen den *The last Rose of Summer* Thomas Moore-ren (1779-1852) olerkia, herriko *The Groves of Blarney* doinuari egokitua. Beraz Flotow musikagileak *Martha* operarako hartu zuen Irlandako herri doinua hala erabili zuen Elizanburuk euskal olerkia kantatzeko:

Zein den e-der a - rra- xe - an

izar ar te garbia- a

i- pa - rre- tik a - ger- tze- an

mari - ñe - len argi - a

Bai handiz - ki e- der da - go

ze- ru zo - la han- di - a

zu mi - le - tan e- de - rra- go

ne- re mai - te Ma- ri - a

### III. ZALANTZAZKO DOINUAK

Antonio Maria Labaien jaunaren lanak aipatu ditugu eta hauen ondorioz beste idazle batzuk Jean Batiste Elizanbururi egotzi dizkioten kantuak, dudarik gabe saratarrarenak ez direnak. Zortzi dira guztira bizi izan ziren beste egile batzuenak: hiru Leon Elizanburu anaiarenak, beste hiru Joannes Berjes-enak, bat Joannategi/Ithurbide bikotearena eta azken bat Darroupe-Harluzek Ameriketara egindakoa. Labaienek ematen dizkigun hogeita hiru kantuen errolda betetzeko bi falta zaizkigu, ikerketa sakonagoak egin arte zalantzan jartzen ditugunak.

#### 1. Tan tan tan tan rapetaplan

Urruñako bestetan aurkeztua izan zen kantu hau 1858an. Dantzarako kantu bat da, Azkuek kadera edo katadera dantza sailean sartzen duena. Bi doinu ezberdin ezagutzen ditugu bertso berezi hauek kantatzeko. Bata, *Chansons Basques* eskuskribuan titulu honekin agertzen dena: *Ran plan plan plan rapetaplan, arçain çaharra tabernan* (43 zenb.) Bigarrena Etxemendik eta Lafittek *Kantuz* bilduman ematen digutena (99 zenb.) Azken bilduma honetan Elizanbururena dela diote, baina bi anaia-tatik zeinena da? Kantuaren gaia ikusirik, ardoa noski, hiru urte lehenago *Emazte edalea* idatzi zuena esango nuke izan zela honen egilea. Dena den, zalantzan utzi behar dugu oraingoz dantzarako kantu honen egilearen izena.

#### 2. Solferinoko itsua

Italiako Solferino herrian 1859an izandako batailan itsu geratu omen zen kantu honen egilea. Eta Sarako bestetan, 1864ean, aurkeztu zuen poema A. Salaberry izeneko batek. Bertsoaren egitura hau da: 10, 8A, 10, 8A (bis). Manterolak, *Cancionero Basco* delakoan (II. tomo, 1878ko maiatza, 11-19 orr.) *Zolferinoko ixua!* tituluarekin ematen digu testua, euskaraz eta gaztelaniaz; bertso hauek kantatzeko *Bard arraxean arnaxetarik* airea zela erabili behar zena diosku Manterolak eta doinu hau ez zuela ezagutzen. Baina lehenagotik zegoen idatzia doinu hau, ikusiko dugunez. *Chansons Basques* delako eskuskribuan, 34. zenbakian, *Barda arraxian* doinua ematen zaigu, argibide gisa alboan zera irakurtzen delarik: "Gaiaz eder da argizaria (Sall. p. 269)" Eta J.D.J. Sallaberry-ren kantutegira jotzen badugu (1870) aipatu orrialdean aurkitzen da doinu zahar hori. Beraz, J.D.J. Sallaberry-k (beste testu batekin), *Chansons Basques* bildumak (testurik gabe) eta *Kantuz* bildumak (Solferinoko itsua kantatzeko) ematen dizkiguten doinuak antzerakoak dira.

Etxemendik eta Lafittek prestaturiko azken bilduma honetan, Labaie-  
nek baino lehenago, Elizanbururena dela kantua hau esaten zaigu. Eta  
beste batzuren iritzia ere berbera da. Baina J.S.M. (Juan San Martinek,  
noski) Elizanbururena ez dela dio (*BRSBAP*, 1970, IV, 522 orr.) argudioa  
honako hau delarik: doinua, aleman kutsukoa izanez gain, ez dela Eli-  
zanburuk erabilitakoen antzerakoa. Ez dakit non hartzen dion Juan San  
Martin adiskideak aleman usain hori kantua honi, eta hala balitz ere, ez  
da Elizanbururi egiletasuna kentzeko arrazoa, beste doinu arrotzak ere,  
ikusi dugunez, erabili zituen eta. Beste arrazoi sendoago bat emango  
nuke nik kantua hau Elizanbururena ez dela frogatzeko: laugarren ber-  
tsoan zera kantatzen du itsuak:

Ene amaren begi samurrak  
betiko zaizkit estali.

Beraz, itsutasunagatik ezin zuen egileak bizirik omen zen ama ikusi.  
Eta Jean Batiste Elizanbururen ama 29 urte lehenago hilda zegoen,  
1835ean, ikusi dugunez. Dena den, ez dut uste itxita geratzen denik  
ikerketa hau eta zalantza uzten dut egiletasuna.

Amaitzeko esan behar dut idatzirik eman ditudala Elizanbururen  
zalantza gabeko hamairu doinuak. Baina entzun nahi dituenak diskoan  
aurkituko ditu 1, 2, 3, 4, 5, 6, 8, 10, 11 eta 12 zenbakiekin pentagrametan  
eman ditudanak.



## ELIZAMBURU NEURTITZLARI

Sara, 1991-XII-20

J. B. Orpustan

### Sarrera. Hiztegi eta arotegi

Neurtitzlaritzaren, olerkaritzaren “teknikako” xehetasunetan sartzea gauza idor bezala ager daiteke gehienetan, eta hemen ere dudarik gabe; bietan, erran nezake, mugabide batzu behar direnean hastapenetik eman, orok gauza berak entzun ditzaten hemen aipatuko direnatan, eztielakotz oraino, euskal kritika literarioan (eta bertze zenbaitetan ere...), hitzak ez gauzak berdin entzuten. Hiztegiko azterketa labur zenbaiten ondotik, ezarriko dira Elizambururen hamalau kantu ezagutuak —baztertuz gaztaroan Adema-rekin izenpetu zuen bat edo bertze— aro zerrenda batean, uste baitut aro muga hauek ekar dezaketela argi zenbait, guti bada guti, olerkien egin moldeari.

1.Handienetik ttipienetarat jautsiz, erran nahi dut neurritz eta itxura ageriaz, huna hemen aipatzen diren hitzen erran-nahiak;

*ber(t)sua*: (Elizambururen esku-idazkietan: “**bersua**”, oraiko afrikatuarekin baino arinago, ene ustez) erdaraz “*la strophe*”, edo neurtitz multzoa, errimek egituratua;

*neurtitza*: Oihenartek lehenbizikorik erabili zuen hitza (eta menturaz moldatu, ezagutzen denaz), ezpadugu ere guk, hark bezala, hitz eta silaben luzetasuna “neurtzen”, baina bakarrik neurtitzarena, “*le vers*”; neurtitza, olerkaritza klasiko edozeinetan (eta XIX-garren mendea alde hortarik “klasiko” gelditzen da), *errimak* edo *asonanzak* du egiten eta mugatzen; eztitugu nahasiko *neurtitza* eta *lerroa*, neurtitzak moztuz lerrotatu baitira arrazoin ainitzen gatik lehenago (adibidez: *hirueko ezberdina* edo “*kopla zaharra*” ardura laueko “falsuetan”, baina ere, Bernat Etxeparek bezala, “bieko” edo “*diztiko*” berdin falsuetan...; egiazko lauekoak, lau errimadunak, ainitzetan “zortziko” berdin falsuetan...), eta berantago ere (baditugu Elizambururen eskutik beretik...); hitza hitz, lerroa lerro, naurtitza neurtitz, neurtitz-erdia edo “*hemiztikioa*” berdin...

lauekoa, seikoa, zortzikoa edo hamabikoa: izen hauek bertsua dute erraiten eta aldi berean neurtitz-errimen zenbakia;

**errima** eta **asonanza** berexten dira ahots edo “fonema” neurtitz bate-tik bertzera berdinen zenbakitik, jakinez *bokal bat* bederen behar dela berdinek, eta hau neurtitzeko azkena: orduan da **asonanza** xoilak (guti baderabilia ere Elizamburuk, ainitz aldiz haren aitzineko Etxahunek...); bokalaren ondotik edo aitzinetik aski da konsonante bakar bat *errimaren* egiteko, hobe bokala delarik, orduan errima bi silabetara hel baititake: ahots eta silaba berdinen zenbakiak emaiten du errimaren “aberastasuna”;

*silaba* gelditzen da, azkenik, neurtitzaren oinarria; silaba, zenbaitek izendatu dute “pikoa”, Elizamburuk “pontua”, batzuek ere, gaizkiago, “zangoa” edo “oina”, olerkietan egiazko zango edo oina silaba multzo batek egiten baitu; jakina da ezuela beti neurri bera atxikitzen neurtitze-tan bokalek elgar hunkitzen dutenean, hitz barnean (“*diptongoa*”) edo hitz azken-hastapenetan (“*hiatoa*”); barneko bokalek *bi* silaba egiten dituztenean da *dieresia*, bat egiten dutenean *sineresia*, eta bada hor “lizentzia” zenbaiten lekua, olerkari batzuek baliatzen badakitena, gutiago eta hobe bada ere; azken-hastapenekoetan, azken bokala ezaba daiteke, eginez **elisioa**, edo hastapenekoarekin silaba batean ahozkatuz, **sinalefa**; badakigu Oihenartek ziola elisio eta sinalefak beharrezkoak zirela euskal olerkaritzan; baina guti zazko hortan jarraiki eta Elizamburu, menturaz gutienik, eta ageri da zertako bazituzten biek, ene ustez, arrazoin onak: baten kantuan (berak zioen Sarako moduan “*kantau*” egituratzen baitzuen bertsua, eta bertzeak ez;

*neurkada* (Lafitte-Tournieren hiztegian hartzen dutan hitz hau “errimo” erdalduna baino hobea iduritzen zait) gauza ainitzek dute osatzen: duten euskalkietan, akzentuak, silaba eta hitzen multzoek (zortzi silaba lau eta lau gehienetan, bederatzi borts eta lau...); beharrena da, neurtitz luzetan (zortzi silabaz goiti), neurtitz-erdiko *hauste* edo *gelditzea*, uzten duela ardura bigarren zatia silaba batez laburrago (7 eta 6 hamahiruekoa, 8 eta 7 hamabortzekoa...), laburtasun hori ordaintzen baitu aireko edo aire zatiko azken notaren luzetasunak (musikan “*kadenzia*”): huntarik ageriko da neurtitzaren neurkada aireak duela egituratzen, eta hau bereziki egia da Elizambururentzat; aipa dezadan bakarrik, nahiz ezten gure olerkariak behin ere kasik erabili, Oihenartek hain ohi zuen neurtitz batetik bertzerako *lotura* edo *jauzia* (“*enjambement, rejet...*” erdaraz);

*apaindura* edo **estilo-irudiak** (edozein mailetan) sartzen dira oraino olerkaritzan, nahi den idaz-moldetan bezala; zenbait bizkitartean ageriago neurtitzetan: soinu errepika edo *aliterazio*, barneko errima, errima-oiharzun... eta bereziki “*kiasmoa*” edo hitzen *gurutzadura*: Elizamburuk baditu zenbait aski ohargarriak.

2. Arotegiaren aldetik, eta hortaz jadanik ezagunak direner jarraikiz gehienez, erran nahi baita bederen agertu edo egin diren urteak, Elizambururen 14 olerkiak berex daitezke bi multzotan, 1870 urtearen bi aldetarik, azpimarratu gabe hemen gehiago zer haustea izan den urte hori Elizambururen bizian:

### 1870-a aitzin:

*Infirmieran* (14 laueko, 56 neurtitz): bada aski arrazoin kantu hunen jartzeko gaztetasunean, armadako lehenbiziko urtetan, Adhemaren aipatzeaz gaindi ere;

*Gazte hiltzera dohana* (10 laueko, 40 neurtitz: Antonio Maria Labayenek emaiten du 11-garren bertsu bat): 1860;

*Apecha eta Lorea* (12 laueko, 48 neurtitz): 1862;

*Agur Herriari!* (11 laueko, 44 neurtitz): 1862;

*Nere Etchea edo Laboraria* (10 zazpiko: 70 neurtitz): 1862;

*Maria* (8 seiko: 48 neurtitz): 1866-ko agorrilean egina ("Août 1866" dio esku-idazki batek);

*Chori berri-ketaria* (8 laueko, 32 neurtitz): 1869.

### 1870-aren ondotik:

*Biba Francia!* (zortziko bat, eta ez lauekoa, kantua bururatu-eta berriz egiten dena, egilearen nahiaz, eta 3 laueko, 20 neurtitz): 1875 urte ingurukoa, "urte guti du" dio bigarren bersuak 1870-eko gerlaz, eta kantua errepublikaren sortzeko eztabada politikoer lot daiteke;

*Lehen eta Orai* (10 zortziko, 80 neurtitz): 1879;

*Aingeru bati* (4 hamabiko, 48 neurtitz): 1880;

*Eskuara eta Eskualdunac* (10 laueko, 40 neurtitz): 1880;

*Zapataina (edo Gizon zuhurra)* (10 laueko, 40 neurtitz): 1882;

*Lau andren besta (Amets bat)* (14 bortzeko, 70 neurtitz): iduri luke, Elizamburuk egina baldin bada, itxura guzien araura, baduela zer ikus *Piarres Adame*-ren tematikarekin (herriko besta, amore ona eta irrigarritasuna, trufa ere...): 1882;

*Maite zaitut* (6 zortziko. 48 neurtitz): 1885.

Neurtziketa “xuhur” horrek, ez osoki sei ehun neurtitz orotara (585), erakusten badu lana eta artazko edergintza —horrelako zerbait agertu nahi bainuke bederen—, biziaren bi ixurkiek ekartzen daukute zazpirana olerki, “simetria” osoan.

Ikertuko ditugu orai bertsu-motak, errimak eta neurtitzaren neurria (edo silaben zenbakia), erran-aldiaren egitura gramatikazkoa (berezikiago hitzen jarraipena) neurtitzean, apaindura zenbait azkenik.

\* \* \*

## I. “Bertsularia” eta motak

Hamalau olerkietan, Elizamburuk erabili ditu, ezberdintasun handie-  
nean, hameka bertsu mota (hamabi konduan hartuz *Biba Francia*-ren  
lehen bertsu, zortziko bakuna: ikus beherago): lauekoa zortzi aldiz (eta  
hetan lau aldiz molde bakar bat), zortziko bi aldiz, eta aldi bakar batez  
zazpikoa, seikoa, bortzekoa eta hamabikoa. Ikusiko den bezala xehekiago,  
hamalau kantuetan hamabiek errima bakuna dute, eta berehala ageri da  
eztela gure olerkaria egitura aldaketan behar baino gehiago —gutiago  
erran ginezake...!— ibili. Hizki nagusi bat emanez ezagugarri, holaxet  
ditugu:

*A1: laueko artekoa (13 sil.: 7+6), errima bakuna: Infirmierian, Gazte  
hiltzera dohana, Apexa eta Lorea, Agur herriari: bertsu ohitu hortan,  
ohituena haren aroan, eman ditu Elizamburuk lehenbiziko lau kantuak.*

*A1: laueko handi “lehena” (15 sil.: 8+7), bakuna: Zapataina, egileak  
Piarres Adame-n “aire zahar hamahiru pontuko” bezala emaiten badu ere,  
huts eginez; eta berdin, baina zuzen aldi huntan, Piarres-ek hirur “gra-  
zia” latsarier igortzen duen lauekoa (hirugarren kapituluan).*

*A2: laueko handi “bigarrena” (lehen hirur neurtitzek 16 sil.: 8+8;  
azkenak 17 sil.: 9+8), beraz ezberdina, eta bakuna: Chori berri-ketaria.*

*A3: laueko handi “hirugarrena” (16 sil.: 9+7), berdina eta bakuna:  
Eskuara eta Eskualdunac (“neurtitz-erdiak” bi silabek dituzte aldi bekar  
huntan ezberdintzen: erran gabe doa Elizamburuk hautatu airearen zatiek  
dituzten “noten” zenbakitik —nota bezenbat silaba, gehienetan gertatzen  
den bezala— datorrela egitura arraro hau).*

*A4: laueko luzea (20 sil.: 10+10, neurtitz erdia 5+5), bakuna: Biba  
Francia-ren hiru edo lau bertsuak; baina nahiz lauetan lerrokatua, lehen  
bertsuak baditu zortzi errima berdina, eta errepikatu behar da azkenean,  
bademala orduan olerkiari itxura simetrikoko bat. Erran behar dea *Andre  
adalen*-en aire ezin ezagunagoak duela bertsu hau egituratzen?*



[B1: zortziko berdina eta bakuna (10 sil.: 5+5): molde hortako bertsu bakarria aipatu den hori da, hortakotz emaiten da gakotxetan].

B: zortziko zuzena (8-7-8-7-8-7-8-7), aldizkatua (“rimes alternées”): Maite zaitut.

B2: zortziko ezberdina (12-12-12-12/6-6-6-12: 12ak 7+5), bakuna: Lehen eta Orai; zortziko ezberdina bertsu erabilienetarik da, bereziki Etxahunek (ez silaba kondu berean bizkitartean).

C: zazpiko “simetrikoa”, errima bakuna (8-8-8-18-8-8-8): Nere Etchea: lerrokatze ohituak eztu aski agertzen Elizambururen “kantu nazionala” bezalako zerbait bilakatu denaren egitura ohargarria. Nundik hunen airea?

D: seiko ezberdina (12-12-5-12-5-12: 12ak 7+5), bakuna: Maria, Elizamburuk erabili dituen airetarik arinenean (3/8 neurrian).

E: bortzeko “simetrikoa” (10-10-20-11-11: 20ak 3+5+5+7; 10ak 5+5), bakuna: Lau andren besta.

F: hamabiko ezberdina (azken neurtitzetan errepika labur eta aldakorarekin: 9-10-9-10/9-9/9-10-9-10/8-12), aldizkatu eta jarraikia (abab cc dede ee: errimen egiturak erakusten ditu laueko-biekoak aldizkatuak, bortz errimetan): badira Elizambururen aroko olerkarietan molde huntako bertsu batzunik erabili dituztenetarik (ikus, adibidez, Otxalde-ren *Bidarraitarra*), nehor, ezagutuetan bederen, hoin urrun joan denik egituraren lantzean.

Ondorio labur zenbait atera nahi bada, ohar daiteke 1) “laueko arteko” ohitua (hamahiru silaba) utzi dela laugarren kantuarekin, beraz egitura aldatu dela gero-ta-gehiago; 2) biziko bigarren zatian direla egin errima bakuna bazterten duten bi olerki bakarrak, eta biak maitasunezkoak direla; 3) orotako arraroena, “preziosena”, sendimenduetan egituraren bezenbat, eta hortakotz bertsu gutienik duena (4), gelditzen dela *Aingeru bati*; 4) bertsuaren luzetasuna, neurtitzen zenbaki edo luzetasunaren ondorioz, ordaintzen duela bertzuen zenbakiak beiak: oraite zentut (6), *Biba Francia* (4, lehena errepikatuz bortz), *Aingeru bati* (4); 5) azkenik, eta horiek baztertuz, zortzi eta hamabi bertsuaren artean dela Elizambururen “neurri berezia”, berdintasun handian beraz.

Bainan, erregularik ezpaita berexkunderik gabe, hamalau bertsutaraino heldu zauku bietan: *Infirmarian* eta *Lau andren besta*, gaztean eta zaharrea beraz, eta ere utzi dituen bi kantu irrigarrietan, “zatirikoe-tan”; sendimendu serioak, izan dadin maitasuna, herrikoitasuna, mende-kioa ala zuhurtzia, eztu hatsa laburrago, bainan ba egituratzen den gauza eztekoa bilduago, eta hitz batez erraiteko, “neurtuago”.

## II. Errima eta silaben jokoia

Neurri beretik, “bien-artekotasun” filosofiko zahar hortarik, deliberratu iduri baitzait, ezkira urrunduko egitura xeheagoetan sartuz.

1. *Errimaren aldetik*, errima **bakuna** dela erran da hamalauetarik hamabi aldiz, bersulari zaharren moldean (ikus Etxahun...). Bizkitartean ezagutu dituzke Larresoron bere aitzineko aphez “jakintsunen” ohidurak: edo Monho, edo, hurbilago, 1842-an, Elizamburu Larresoron zenean hil zen Camoussarry ziburutarrarenak, huni hartu dukeelarik alta *Gazte hiltzera dohana*-ren gai erromantikoa... Hunek, hogoi bat olerkietan, hamar bertsu moldetan bederen, errima aldizkatuak edo jarraikiak zerabiltzan; eztu bi aldiz baino gehiago emaiten errima bakuna (badituelarik zazpi laueko mota...). Hautuzkoa iduritzen zaukun xoiltasun guti baztertu horrek, baduke bere balioa, bereziki kantuarentzat, Elizamburu eta haren inguru-ko olerkarien baitan (Dibarrart, Otxalde, ala Iparraguirre...).

Aldiz, eta hortan Etxahun batetarik urrun dago, **asonanza** hutsa biziki guti aurkitzen da, gehiago gaztaroko olerkietan: hiru aldiz *Infirmerian* (-i -o eta -a: azken hau xixtukari ts- eta z-ren ondotik, Oihenartek berak onhartzen zuen lizenzia...; olerki hunek badu bertze “lizenzia” bat ere: bi errima lehen bertsuak, eta bigarrena ahozko fonetikan “*maitia/handia*”, berriz gertatuko ezten gauza), bi aldiz *Gazte hiltzera dohan*-ean (-e, eta -a jadanik aipatu den gainerateko bertsuak), bat *Apecha eta Lorea*-an: -i, -di/-ri silaba ohitu eta fonetikaz elgarretarik biziki hurbiletan. Hau bera aurki daiteke oraino *Aingeru bati*-etan (-ri/-bi: egitura aberatsak ezeztatzen du, azken neurtitz errepikatuetan); eta berdin -i (“*atrebi*” hitz bera hemen ere: Elizambururen gostuko hitza, iduriz...), eta bigarrenik -u *Maite zaitut*-etan; -i ere *Lau andren bestan* (bigarren bertsuak).

Egiazko **errimek** badadukate nagusitasun osoa Elizambururen olerkietan, nahiz eztuen beldurrik gramatikaz mota bereko hitzen errimatze-ko, aditzetan edo deklinabidean: eztitu beraz Lafittek zion bezain “ahul” aurkitzen horrelako errimak (ikus *Koblariaren legea*).

Lerrokatzen ditugu hemen ahots aberastasunetik, eta errima multzoen edo errima bakoitzak egiten dituen **bertsuen** zenbaki orokorra (beraz gutienik bi errima batean, bainan beti kasik llau edo lauez goiti) ahal bezain zuzen emanez:

a) *Silaba bat edo gutiago* (Oihenartek ahulak eta eskasak zaduzkan horrelako euskal errimak):

.bi ahots:

10 -en, 8 -ik, 3 -an, 3 -in, 2 -ez, 2 -tu;

bakoitzak multzo edo bertsu bat: -ak, -au, -za, -ur, -tza, -(t)zu, -ko;

*.hirur ahots:*

multzo edo bertsu *bat*: *-tzen, -tan, -dut, -tzat, -tik.*

*b) Silaba batez goiti (Oihenarten euskal errima zuzenak):*

*.bi ahots:*

*16 -ia, 10 -ea, 5 -ua, 3 -oa;*

*.hirur ahots:*

*21 -ean (Elizabururen errima usuena), 4 -eak, 3 -uan, 3 -ena, 3 -ala, 2 -ura, 2 -era, 2 -iak, 2 -ila, 2 -ian, 2 -itu, 2 -oak;*

multzo edo bertsu *bat*: *-uko, -ola, -ina, -iez, -ago, -ari, -uen, -ela, -una, -rea, -urra;*

*.laur ahots:*

bi aldiz *-tzean*; aldi bat: *-etan, -aite, -urrak, -enak, -ikotz, -urda, -erua* (azken hunek hartzen ditu bi silabaz goiti eta gertatzen da, ezpadugu huts egiten, Elizabururen errimarik beharrira luzeena eta aberatsena).

Errima mota usuena, ezta huntan harritzekorik, azken bokalduna da, **-a** gehienetan: zenbakatu ditugu orotarat **57** (berrogei-ta-hamazazpi) bat multzo edo bertsu. Bigarrenik heldu dira sudurkaritik bururatu multzoak: **50** (berrogei-ta-hamar) hurbil. Bi zenbaki hauek, uste dut, erakusterat emaiten dute Elizabururen, eta ere euskal kantu gehienera argitasun ozena alde batetik, baina oraino, konsonante sudurkariak beharriat emaiten duen ezintasuna. Sendimendu hau azkartzen da, ohartuz herskari gogorrek (**-k** eta **-t**) ez-tutela orotara erdia egiten: **22** multzo edo bertsu.

*2.Silabetaz*, biziki gauza guti gelditzen da erraiteko, hain da Elizabururen silaba jokoa lizenzia edo ezberdintasun gutikoa, erran nahi baita, lehen lehenik, ohi gabeko sinesia edo dieresia, elisio eta sinalefari ez-tuela erabili, edo ezin gutiago. Ezagutua da bada alde hortarik libartate handia Etxahun baten neurtitzetan; baina bada ere Elizabururentan baino biziki gehiago Iparraguirre edo Otxalderentan.

Eztugu lizenzietan sartzen **haitz** silaba bakuna biekoaren (**haritz**) orde (*Agur Herriari, Nere Etchea...*): oraino Iparraldeko euskalki gehienetan erabiltzen den forma "higatua" sortua zen jadanik; berdin agertzen da, adibidez, Zalduby (Adhema)-ren neurtitzetan eta bertze. Aldiz ezta deus uste-gabekorik, elisio eta silaba laburpenak lehenbiziko kantuan badaude abantzu denak:

*Infirmerian...*: "*mafrundi ta...; mement'hartan*": bi elisio, lehena zenbait idatz-molde eta euskalkietan aski arrunta (nahiz berenaz lehenbiziko bokalaren ezeztatzea gauza arraroa den) bigarrena ausarta eta ez haizua, zuzenez, hatskatu baten aitzinean; "*eiten*" sinesian, *egiten*-en orde:

ahozko erran moldea, bainan berriz menturatuko ezteua; “*pasatu tut*”: ohar bera egin daiteke, nahiz Oihenartek erabiltzen duen zenbaitetan laguntzaile laburtu hori; “*goitikoan... beheitikoan...*”: bi sineresia, o “*W*” erdi-konsonanteratuz, ahozko molde ohituan. Gaztoroko bekatu, ala kantu horren estilo jostakinaren apaindura?

Berantagoko kantuetan, ez tute aurkitu sinalefa eta elisio bakar zenbait baizik: *Biba Francia*-n “*bere-ohatzean*” sinalefa, esku-idazkian emana da gainera marra ttipi batekin. Elisioa da aldiz *Maite zaitut*-etan: “*hal’eta hola*” (aitzinean aipatuaren araura, behar ginukeen “hala ta...”). Ez ote daiteke hemen sendi, gaian berean nola joko poetikoan, Oihenarten orroitzapen zenbait, Elizamburuk ezagutzen baitzukeen Francisque-Michel eta Archu-ren argitalpena? Elisioa ere *Zapataina*-ren lehen bertsuan: “*mundur’agertu*”.

\* \* \*

### III. Erranaldia eta neurtitza

Silaben zenbaki zuzenak, neurtitz mota bakoitzaren neurkada eta neurri-haustek, errimak, beti hertsatu dute olerkaria. Hortarik dator segurki “estilo poetikoa” deitzen denaren berezitasun agerienetarik bat: erranaldiaren egitura zuzenaren, edo hitzen jarraipenaren guti edo aski aldatzea. Eta euskararen egitura, hizkuntza deklinabidedun guziena bezala, frango libroa bada hitzen jarraipenean, ez ordea osoki. Oihenart batek du ereman urrunenik erranaldiaren egituraren libertate hori, urrunegi zenbait aldiz (badira urrunago ereman dutenak, frantsesean berean: Mallarmé lekuko...).

Elizambururen erranaldia, haren aroko bertze kantu egile ainitzena bezala, ausartzia gutikoa agertzen da gai hortan. Hemen, lehenagoko Bernat Etxepareren, eta “bertsularitza”-ren heinean dago:

1)alde batetik, neurtitzak badaduka beti batasun gramatikala (eta hortakotz etzen batere pondurik emaiten Etxepareren aroan, salbu bertsu buruan...), erranaldiak, erranaldi oso edo nagusi (“propositiron principale”) ala menperatu (“proposition subordonnée”), ala egituraren beheagoko edozein hitz multzok betetzen baitu, airearen haustek, neurtitzak eta errimak bat eginez orduan (eta hortakotz ezta Oihenarten estiloan hain usu ziren lotura eta jauzirik neurtitz batetik bertzera...): *Lehen eta Orai*-en neurtitz laburretan, ohi den bezala (bainan Elizambururen neurtitza ardura luzea da), ikus daiteke lotura zenbait, guti ohargarri bizkitartean:

...injuztizia

*Ikharagarria!* (izena eta izen-laguna)

...zituan

*Bizi...* (aditz laguntzaile eta partizipio);

2)bertzetik, hitzak eta hitz multzoak guti dira lekuz aldatzen. Aldaketa horietaz eman daitezkeen adibidetan, huna zenbait: aditz laguntzaile eta partizipioaren artekoa da usuenik:

*"Hainitz dut nik lurtean izan atsekabe...  
agian lorea du kausitu... (ezta "fokalizatzerik")  
yaten ez zituztela...  
othe duk huts eginen?  
dudan bezala hasia...";*

izen ala aditzaren osagailuen lekuz aldatze edo elgarretarik berexreak usuago dira:

*"...ametsen ez bainintzan lotsa...  
Hainitz (...) atsekabe (ikus gorago)...  
zer diren ez dut yakin etcheko gozoak...  
esnez hampatu ditiak...  
darozkitzut eskerrak bihurtzen...  
badu berea, /Udan eta neguan lorez bethea, /Errekarte...  
zertako den aberats horra Maria!  
non pausa erhia...  
aita baten ez ziren semeak...  
Yainkoak maitha dezagun erran baitu laguna...  
zer hegal pean dute..."*

Morfologian ere, gehienik mugatzailetan, eta hau menturaz egintza ausartagoa, idazlea bera baldinbada ere, aski on eta jakintsun denean, hizkuntzaren nagusi, gerta daiteke berezitasun zenbait, osagailuen lekuz aldatzearen edo urruntzearen ondorioz. Gramatikalarri modernoak ezagutu gabe, olerkariak bazakikeen zerbait euskararen "*polimorfismoaz...*":

*"...berea (...) errekartea (bi aldiz mugatzailea: ikus gorago), zelaiera (= zelaiera; eta aldiz: "biharamunan", *Infirmerian*), bera da pullitena hango lorea...*

*egon leku berea (errimak duke aldatu behar laitekeen bera: ikus gorago "zelaiera"),*

*aitena/Duk obra lehena...*

*gathe zakharkena (erlatibo lotua azkenik eta mugaturik: "zakharken gathe: la chaîne qu'il devait porter"),*

*Oi mila debrua... Mila sorgina (mila-rekin behar ginuke sorgin edo sorginak).*

Aditzetan, salbu euskaraz hain ohi den laguntzailearen itzaltzea (ezti-tugu adibideak hortakotz emaiten), *Infirmerian*-etan \***edin**-en ahalezkoa

agertzen da: “*izan daikena*” (bederen A.M. Labayen-en bilduman), *daite*-ren orde. *Maite zaitut*-etan berriz “*zuk ni nauzun erradazu*” kompleti-boan, *-la*-ren orde. Gaztaroko lan ala estilo arin, hor dira Elizabururen gramatikako lizenzia handienak.

Bilboko kongresuan edo biltzarrean gauza jadanik erakutsia izan baita, ez tut hemen xehekiago erranen nola Elizabururen neurtitzetan agertzen den, *Piarres Adame* edo bertze idazki laxoetan baino gehiago, *aditz-izenaren osagailua nominatiboan*: ezberdintasun hori neurtitzlaritzaren ondorioa baita, eta aspaldidanik ezagutua Bernat Etxeparetik hasiz, egiazko *lizenzia poetikoetan* sartzen dugu, Elizabururen aroan eta beraren hitz-laxoan aurkitzen ez tiren egitura guzietan.

Orotarat, Elizabururen hizkuntza poetikoa guti eta laburzki baztertzen da hizkuntza arruntetik, eta gehienetan aldaketa horiek ezeztatzen dira neurtitzaren soinu eta neurkada argi eta ozenetan, eta, beraz, neurtitz-bertsuetarik ezin berex daitekeen airean. Urrunago joan gaitzke: ainitzetan neurtitzaren eta bertsuaren apaindurer esku emaiten dute.

\* \* \*

#### IV. Apainduretz

Gai zabal huntan, muga hertsietan geldituko gira: neurtitzlaritza osoa berenaz erretorika hutsekoa delakotz, eta, ikuspegi orotarik, erretorikak hartzen duelakotz; eta beraz hemen aipatu diren gauzak oro edergintzako, ezetikako gauzak direlakotz azkenean. Bi gauza bakarrik aipatuz, bururatzeko, hitz errepika eta gurutzadura, nahi nuke erakutsi neurtitz egitea joko bat baldin bada egiazki, hitzen artean eta hitzekin egiten dena, ez tela joko hutsean gelditzen, entzun-arazten baititu, aldi berean, gogoia eta sendimendua.

1. *Gurutzadura* (edo “kiasmoa”) hitzetako estilo apaindura edo irudi ohienetarik izanez, eluke hemen azpimarratua izaiteko arrazoinik biziki. Alta badirudi Elizaburuk gustu edo ixuri zenbait ukan duela “sime-triazko” itxura hortarat. Jakina da baduela zer ikus, ondorioaz bederen, aitzinean aipatu den hitzen lekuz aldatzearekin alde batetik (beraz neurtitzetako gramatikarekin), eta, hortakotz, errimaren moldatzearekin zenbait aldiz. Jakina oraino hitz (edo hitz multzo, edo ere ahots eta soinu) gurutzatuak, kantuan entzuten diren baino hobeki, ikusten direla idazkian: nork uka, bizkitartean, begiak baduela, beharriak bezala, bere egitekoa literaturan eta olerkian? Ezpadira Elizabururen (eta bertze ainitzen) olerkiak delako *kaligrama* ezagutu hetarik, aski da behatzea zenbat gostuz, hitz eta hizki moldatzean, neurtitzen lerrokatzean bezenbat, egina den haren “eskulana”, esku-idazkia: begiek ikusteko, naski.

Horra hemen gurutzadura horietarik agerienak:

...*“Trixe du begia!*  
 ...*“Gaitza du handia!”*  
*Goiza pasatu eta ethorri eguerdi...(Infirmerian);*  
*Landako langilea, artzain mendikoa... (Agur Herriari);*  
*Golko bat aberatsa, lerden gerria... (Maria);*  
*Gizona gizonaren esklabo zuan,*  
 ...*Ba zuan bat errege...*  
 ...*batzu nagusi, esklabo bertzeak... (Lehen eta Orai);*  
*Mintzatu nahi, ezin mintza...*  
 ...*dautazu khendu(...)*khendu dautazu(...);  
*Lurra gizonen da lekhua:*  
*Aingeruena da zerua... (Aingeru bati);*  
 ...*Kantabreak mende zaharrenetan*  
*Gu orai gisa hedatuak...*  
*Erregerentzat on badire(...)*  
*Hobeago duk hiretako... (Eskuara eta Eskualdunak);*  
*Zilarrrik ez dutanean aski baitut kobrea... (Zapataina);*  
 ...*ni naiz mintzatu,*  
 ...*zu, mintza zaitte...*  
*Zuk ni nauzun erradazu*  
*Nik zu bezala maite (Maite zaitut: hemen paralelismo gramatikala*  
*josia da hitzen gurutzadurarekin);*  
 ...*horma xurgatuz biribildu muturra,*  
*Ez eta naski gorritu sudurra*  
*Milikatuz, milikatuz elhurra! (Lau andren besta).*

Azken hau hiru (eta ez bi) hitzen artean egiten da, paralelismo bati josia bada ere (*biribildu muturra/ gorritu sudurra*). Errima bera “paralelismo” hutsa da, beraz gurutzaduraren kontrako hitz irudia, eta paralelismo luzeagoak sortzen ditu. Ainitztazun arrunt horren gatik olerkietan, Elizambururenetan berdin, utziko da hemen gehiago aipatu gabe.

2.*Hitz-errepika* (ez bertsuena), gurutzaduren aurka, errextasun bat bezala har daiteke olerkietan. Elizamburu ezta hitz-errepikatzeaz xuhur izan: ahultzen ote du, horrek, neurtitzen balio edo edertasuna? Eztut uste, hitz-errepika horiek badutelakotz beti bere arrazoina.

Egin duen luzeena –hitz berak, bortz aldiz, neurtitz osoa betetzen du!– orok badakite: *“Ixil, ixil, ixil, ixil, ixila!”*. Lau andren mokokaldian bere lekuan da segurki.

Kantu irigarriena horrela apaintzen badu, gaiari doakon moldean, egiten du ere, egiazko “hitz musika” bat emanez airearekin batean, *Aingeru bati*-ren bertsu bakotxaren “erortean” (edo “kadenzian”), bainan

hemen aldatzeak sartuz eta hiru neurtitz-errimetara hedatuz, eta ezta segurki kantu apaindu horren apaindura ttipiena:

- 1....“hurbildik ezin atrebi!  
Hurbildik ezin atrebi!  
Hurbildu eta ez naiteke atrebi!
- 2.(...)Ordu berean maithatu nuen!  
Orduan maithatu nuen!  
Ondikotz! nik orduan maithatu nuen!!!
- 3.....dautazu khendu bakea?  
Zertako, nere maitea,  
Khendu dautazu bihotzetik bakea?
- 4.(...)Ez beha lurra! beha zazu  
Lurra ihesiz beha zerua!  
Ba! behautzu! aingerua!  
Ez beha lurra, beha zazu Zerua!!!

Kantu alai eta irrigarrienean alde batetik, erromantikoenean bertzetik, baina oraino han edo hemen bertze gehienetan: *Maria* azken hitza errima egile *Maria*-ren bertsu orotan (badu zer ikus hortan ere *Aingeru bat*-ekin...); berdin oraino, baina azken neurtitz osoan (*Nere maite Maria*), *Maite zaitut*-etan; eta *Biba Francia*-etan errepikatzen da lehen bertsu osoa, “errepika” (“refrain”) hitzaren erran nahi ezagutuenerat hurbiltzen girela orduan (bainan hurbiltzen bakarrik).

Hitz-errepika hutsaren ondorioa (eta helburua, olerkariaren gogoan, dudarik gabe), “patetismo”-aren emaita da gehienetan: gazteak hiltzera-koan “dramatikoki” dio jadanik: “*Ez, ez, ez nau izitzen ez herioak!*” Eta kantariak herriari: “*Agur! agur, herria! agur... agur...!*”; edo xori berriketariari: “*Mintza hakit... eta mintza... Mintza...!*”. Patetismoa “*ba(i)*” zenbait azkartzen duela oraino: “*...bortz aldiz..., Bai! bortz aldiz..., Atzar hadi, atzar bada..., orhoit hadi... Orhoit hadi ba zoria...*” Sendimendua azpimarratuz, hitzerrepikak aberasten ditu neurkada eta soinua: “*Urrundik ikhusten dut, ikhusten mendia...*”.

Hitzak eztira orduan musikaren (airearen) osagailu xoilak, edo nahi bada bertze aldera, airea hitzena: “*prima la musica*” edo “*prime le parole*”; Italianoek XVIII-garreneko operan eztabadaten zuten moldean... Airea hautatzen zen, eta gero haren egituran (aire zatien silaba zenbakian, erran den bezala: eta ardura airea *lau* zatiek, bere *lau* “erortegelditze” edo “kadenziakin”, zuten osatzen), neurtitz eta bertsua(k) moldatzen. Hitzek badakarte soinua, musika, ez bakarrik airearena, baina, aldi berean berek egiten dutena, erran-nahiaren gainetik, edo (zertako ez?) hartaz bertzalde, baina, gehienetan, hura agertuz. Batasun handi eta hertsu hori da, ororen buruan, olerki-kantua. Hunek erran nahi du bertze gauza bat: azterketa “alderdi” gelditzen dela azkenean, ezpada ere



aire eta bertsuaren lotura berezi bezain bertsi hori, hemen egin den baino xehekiago eta hurbilago, erakusten. Agian, norbait aitzinatuko da, ere, sail hortan.

\* \* \*

Ororen buruan, agertzen da Elizamburu olerkigintzarat ekarri duten, eta neurtitzak moldatuz entzun-arazi dituen sendimendu eta gogoeten heinean, izan duen xede zinez eztekoa. Xede hori bete duela iduritzen zauku orai, mende baten buruan, eta hortakotz eztute galdu, Saratarraren kantuek, ez hunkigarri edo, bekanago menturaz, alaitasuna, ez ere balio literaturazkoa.

Hortakotz, Elizamburu eztugu ezarriko bertsulari xoilan lerroan, ez batere lerro hori behegia delakotz, bainan sobera ageri baita eztiela hemen “improbizazioneak”, bainan idazkian handizki artatu diren neurtitzak. Ezarriko ote da, bizkitartean, olerkari klasiko eta zinez jakintsunen artean? Hamaseigarren mendean balitz, eta Bernat Etxepare baten ondoan, menturaz... Bainan hemeretzigarrenean eta Oihenarten “edergintza poetikoa” ezagutuz geroz alde batetik, eta bertzetik Elizamburuk eztuelakotz bertsurik airerik gabe eta kantatzeko gabe (gauza ezina, segurki, Oihenarten olerkietan...) dakigunaz moldatu, beharko dugu ezarri ez kantari, bainan “kantulari erromantikoen” lerroan: Txomin Peillenek zioen bezala egun batez, erdaraz lehenago “chansonnier” deituko zen; Thibalt lehen, Nabarrako errege, eta XIII-garren mendean Frantziako olerkari handienetarik bati emaiten den izena, eloake gaizki, ere, Saratarrari.



## PIARRES ADAME: EUSKAL KONTAKETAREN ZAIN EPIKUREOA

Sara, 1991-XII-21

Ana M.<sup>a</sup> Toledo Lezeta

Mitxelena irakasleak Elizanburuk poesiaren alorrean lortu zituen emaitzak neurtzerakoan zioenez “hay en Elissamburu una vena epicúrea no menos real: su gozosa enumeración de los encantos de una figura de mujer, aunque mantenida dentro de los límites de la discreción, no es corriente entre unas gentes que —después de los tiempos de Dechepare y Oihenart, se entiendo— no se sienten inclinadas a mostrar en público esa debilidad” (1).

Zinez, aipatutako pasarte honetan poeziak dihardu eta, gainera, zain epikureo horren azalratzea zehaztu egiten du, emakumearen irudiaren edertasunen zerrendapen bozkariotsu horretara eramanez.

Hitz-neurtutik hitz-laura, *Piarres Adamera* etorrita, zain epikureo horren emankortasuna ez dela agortu nabaria da.

Atsegina bilatzen du Piarresek etengabe, min eta penarik gabe, hauek baztertuz, olgeta eta atsegina bilatzen duen morala praktikatzan eta aldarrikatzen du. Gizakiaren zoriona plazerraren erabilera arrazional batez erdiesten da. Minaren deusezteak atsegina dakar eta hau da ongi izate primitibo eta naturala. Piarresen abiapuntua zera da: gizakiak behar natural batzuk badituela aitortzea eta hauek asetzen saiatzea. Ez da hedonista, ez bait du edozein atsegin-modu onartzen, ez bait du plazerra bizitza moralaren euskarri bakartzat. Piarresentzat plazerra ez da ongi izate posible bakarra, ez bizitzaren helburu bakarra; izan ere, azken finean daukanarekin gozaten du, daukanari etekina ateratzen aparta da eta ezer gutxi behar du ongi izatea lortzeko. Ez da hedonista, hedonismoaz mugarik gabeko atsegintasunaren bilaketa ulertzen den neurrian, araurik gabeko atsegintasunaren bilaketa, atsegintasuna atsegintasunagatik bilatzea. Atsegintasunean bizitzea du helburu, baina ez aseta daudenenean,

---

(1) MICHELENA, Luis, 1960, *Historia de la Literatura Vasca*, Edic. Minotauro, Madrid, 134. or.

ezta sentsualitatearenean ere, baizik eta min fisikoaren gabeziarenean eta izpirituaren lasaitasunarenean. Zain epikureoaren erakusle da bizitza zentzu positiboan hartzen duen neurrian, gertaera txikienen aurrean gertaera horietaz gozatzea bilatzen duen neurrian. Zuhurtasuna gordetzea da bizitzaz gozatzea zilegiztatzen dion birtutea.

Pello mutikoa bidelagun hartuaz bat, istorioak kontatzen hasi aurretik, bere moralaren berri ematen dio. Hamar ahapalditan barrena bizitzaren aurrean duen filosofia zehaztu aurretik “Sarako herrian, ez dela bat nik baino irri gehiago egiten duenik” aditzera ematen dio eta jarrera hau hartzera gonbidatzen: “Izan hadi hi ere, Pello, ahal baduk, ni bezalako” (2).

Ahapaldiz ahapaldi, ahapaldi bakoitzean iteratuz, zuhurtzia gomentatzen dio, kanpoko munduaren eskarien aurrean asalatu gabe irautea.

Jainkoak egin bezala maite du bere zortea, trebes heldu diren gauzak zuzen ditu hartzen eta irriz hartuz zorigaitza zorion bilakatzen, zuhur gisa badaki labur dela bizia eta irriz nahi du iragan ahal badu guzia, zilarrik ez duenean aski du kobrea, gizonik aberatsena pobre bat da handia, berak ontzen ez badaki bizia... Zuhurra izan, zorigaitza zorion bilakatu, irri egin, alegera bizi, horra hor Piarresen jarrera bizitzaren aurrean, horra hor Pello bidai-lagunari erakutsi nahi diona Olhetarako joan-etorrian. Bere bizitzaren gidari diren oinarrizko printzipioen aldarrikapena egingo du eta printzipio hauekiko atxikimendua azalduko bidean eta Olhetan egindako egonaldian. Bertsoz azaltzen duen mundu-ulerkuntzari istorioek eskaintzen duten osagarri narratiboak froga eransten dio. Piarresek kontaturiko istorioek nahiz bidaiaren barrena suertatutako jazoerek eta Olhetan festa bizi izateko moduak bere mundu-ulerkuntzarekin gordetzen duen koherentzia, batasuna, erakusten dute. Bertsoz adierazitako ideiak zabaltzeko toki bihurtzen da kontaketaen ekintza eta, aldiberean, ideia horien gauzatze-moduaren azalpen.

Piarresen bizitza gobernatzen duen filosofiaren entzule eta printzipio hauen burutze-moduaren entzule eta ikusle soila da Pello. Olhetarako bidea hartzera doala Pello hurbildu egiten zaio Piarresi elkarrekin joan-etorria egiteko asmoz, baina bidaiak “beteaz” doan hitz-jarioa ez du sortzen Pelloren jakin-minak, ez honen olgeta-eskaerak. Elizanburuk ez du jotzen literaturan erabilia izan den galdera-erantzunen jokora, alegia, gazte batek bere barnearen eskariz etengabe itaunduz eta zirikatuz adintsuago baten kontak-jarioa eragitera. Pellok ez du galdetzen, ez arazorik aurkezten, ez hizpiderik ematen. Piarresek ez dio erantzuten Pelloren behar batzuei, aitzitik, Piarresek bere kabuz hartzen du bidaiak modu

---

(2) ELISSAMBURU, Jean Baptiste, 1986, *Piarres Adame*, Klasikoak saila, Elkar, Donostia (I. Sarasolak prestatutako argitalpena), 39-40. or. Argitalpen hau erabiliko da *Piarres Adamen* testu-aipamen guztietarako.

zehatz batean antolatzeko erabakia: “eta nola iduri baituk, nahiz behar bada zerbait badakikan, badukala oraino gauza hainitz ikhasteko, bidean guazilarik erranen darozkiat nere haur denborako eta geroztikako zenbait hitztorio” (37. or.). Piarres beraren nahiei erantzuten dio “egitarauak” eta ez Pello ezartzen doan dinamikari.

### 1. *Piarres Adame*: olgetaren bilaketa

Edozein testutan izenburua da lehen elementu giltzarria, izenburua da egileak aurren-aurrenik igortzen duen gaztigu iradokitzailea, egileak azpimarkatu nahi duena azaltzen eta honen interes-gunerako norantza erakusten duena. Elizanburu ere, titulutik hasi da adierazten bere eleberraren erdigunea: Piarres Adame da kontaketaaren ardatza ikuspuntu desberdinetatik, bera da pertsonaia-protagonista, esakuntzaren subjeto, eta hainbat eta hainbat esakunerena, bera da aktante-subjektuaren papera betetzen duena, bera da maila desberdinetako subjektutza hauen bidez objektu bat eta bakarra bilatzen duena: olgeta.

Piarres esakuntzaren subjeto hutsak istorioak kontaktzen ditu, abagaduneak hartarako egokiera ematen dionean besteren lepotik barre egiteko modua aztertzen eta kontaktutako istorioen bidez, nahiz suertatutako egoerei ateratako etekin irrigarriaz, gozaraztea bilatzen du. Azken batez, bizi izandako historiak eskaini dizkion lehengaiak istorio autobiografikoak eratzeko altxorra sortu dio, pikareskara hurbiltzen diren ekintzen subjektutzak bere bizitzatik bertatik irria eragiteko elementuak, dakartzate: Piarres adar-jolea, irakurtzen ez badaki ere, otoitzak irakurriz, alargunari ziria sartuz txanpon batzuk atera nahi dituena, aranak ebasten dituena... Ikusitako historiak, edo zehazkiago, zenbait egoeren ikusle egokitzeak istorio bat eratu ez, baina bertso edo elkarrizketa satiriko-umoretsua asmatzeko lehengai eskaintzen dio: mandozaina edo zango-mamiak ezkututzen dituen emakumea adar-joletasun hori erakusteko, eta bereziki bere injeniosidadea azaltzeko, abagadune bihurtzen ditu. Bizi izandako historiak eta Olhetarako bidean suertatu zaizkion egoeren ikusle izateak ez ezik, irakurritako istorioek ere eskaintzen diote lehengairik: Sarako Erremundegibehere auzapezak erakutsitako abilezia herriko etxeko liburu handian dago. Mundu idatzira igarotako istorioa da.

Piarresen esakuntzaren subjektuari esakunearena ere batzen dionean areagotu egiten du olgeta-bilaketa bere oinarrizko printzipio izatearen adierazpena; izan ere, bi subjektutzak bereganatzen dituenean ez da bakarrik istorioen kontaketa hutsaren eragile eta, bereziki, istorio-mota batzuen —ziri-sartzean oinarrituz irria sortu nahi dutenak— kontaketa bide gozatzen duen eta besteek goza dezatela helburu duen kontalaria, baizik eta ezaugarri horietan sustraitzen diren istorioen subjektua: kontalaria eta pertsonaia-protagonista aldiberean. Horrela, Piarresen erraiei darien

jolaserako deia azpimarkatuago gelditzen da. Deia-aren indarra ez da mugatzen hitzaren erabilerara, sarritan, enuntziatuaren subjektua bereganatzen duenean, ekintzarena gehitzen du eta, modu honetan, hitzaren erabilerara ludiko soila gertaera ludikoen egilezarekin indartzen du. Hitzari gertaera gainezartzen zaio eta bien baterakuntzak, hitzez eta egitez bihurtzen du Piarres jolaskoi.

Piarres aktante-subjektuak istorioak kontatu nahi ditu eta kontatzen ditu gozarazteko, hori da bere funtzioa. *Piarres Adameren* azterketa aktantzialak kontaktaren hitz-jarioa bitarteko irria eta atsegina bilatzen duen subjektua aurkezten du. Bere bilaketaren objektua istorioak esanez jai-giroa sortzea da, istorio hauek Olhetako festetarako bidean lekutuz eta festaganean jai-giroa eratzen duen elementu oroz baliatuz. Filosofia epikureoa igorle eraikiz ekintzara bultzatzen du, irri egin eta bizitzaz gozatzea zilegiztatzen duten iharduera haiek eragitera: beste osagarri batzuk lagun, batipat kontaketa medio, kontaktuek sortzen duen ongi izatearen bidez burutuz filosofia horren eskakizunak. Aktante-subjektu honek gizakiak, larritasunak eta estuasunak uxatzeko, jolaserako duen beharrari erantzuten diola dirudi.

Pello mutikoa, Piarresen bidai-laguna, istorioen entzule arretatsua eta gogotsua besterik ez da, bizitzaren aurrean kokatzeko modu baten ikusle, printzipio batzuen gauzatzaren lekuko, lekuko egiteko luzatu zaion gonbita jasotzen eta onartzen duen hartzailea. Gerora Olhetarako joan-etorria kontaktzea erabakiko du eta, lekuko legez, Piarresi berari ahotsa emanez testuratu.

Piarres beti kontalari, hainbat istorioetako pertsonaia-protagonista da, bere iharduletasuna zenbait egoera umoretsuren sustatzaile gisa jokatzera zabalduz; ia ahots bakarra, Pello bidai-laguna aitzaki bihurtzeraino kontaktaren garapenerako. Piarresek istorioak kontatu ditzan ezinbesteko da honek entzule eta lekuko bat behar duelako, baina erabat mugatzen da pertsonaia betetzen duen paperera, estakuru huts izatera heltzen da, protagonistaren zerbitzurako tramankulu. Literaturan nahiz mundu honetatik at oso ezaguna den topiko batera joz —bizitzaren eskolan urteen igarotzean hartutako jakinduria azaldu nahia oraindik hainbesterako egokierarik izan ez duen mutiko bati— taxutzen da eleberria, eta ez mutikoaren ezagupen-goseak edo olgeta-gogoak sortutako beharrari erantzuteko. Pello egin zaion proposamena gogo onez jasotzen duen entzule soila besterik ez da, bere eginkizuna horretara murriztu zaio, izaera konplexu baten garapenak ez du tokirik, betetzen duen funtzioa etengabe azpimarkatzeak bestetarako ez tarterik, ez egokierarik eta ezta justifikaziorik ere utzi ez duelako.

Piarres funtzioaren ikuspegitik ez ezik, izanaren ikuspegitik ere olgeta bilatzen duen eta besteek ongi igaro dezaten egindako pertsonaia da.

Beraren karakterizazio fisikotik bertatik hasten da ezaugarrizketa-modu hau: sudur izugarria du, istorioak kontatzea gogoko du, adarra jotzea, ongi jan, edan eta dantza egitea biziki atsegin du. Ezaguna eta ospetsua da bere herritarren eta ingurukoen artean olgeta bilatzen duelako eta besteak bide honetan jartzen dituelako. Gorputza bera, Erdi Aroko Gorreetako bufoiak bezala, jendearen algara sortzeko markatua dauka. Hauen eginkizuna ere bereganatzen du. Dena den, hain urrutira joan gabe —ez lekuz, ez denboraz— aurki daiteke bertsolaririk festa prestatzeari eta festa egiteari abegi ona egin dionik, jaia sortzea bizitzako interes-gune bihurtu duenik. Txirritarentzat, esate baterako, aldaparik gabeko lantegia zen eta osasunak galerazi arte ez zuen bertan behera utzi bere eta besteen bizitza alaitu zezaketen bitarteko haietaz baliatzea, hitz neurtu eta zorrozaren erabilera tramankulu bikain bihurtuz aipatu eginkizunerako.

Pertsonaia prototipoa da, ziria nola sartu aztertzen duten horietakoa. Istorio autobiografikotan kontatzen diren gertaeren arrazoiak oso modu sinplean azaltzen dira: txanpon batzuk bildu edo bere gutizia eta abilezia erakutsi. Gertaeren arrazoiak ez daude guztiz banako eta konplexu den barne-prozesua mamitu ondoren beren erabakia hartzen duten pertsonaien jokabideetan. Garrantzizkoena ez da psikea, baizik eta gertaerak egotea. Berdin gertatzen da suertatutako egoerek hizpidea sortzen diotenean Piarresi: bere alderdi zirikatzailea da motorea. Eta kontalari huts denean aurkezten dituen istorioetako pertsonaiek ere motibo bakar batek eraginda jokatuko dute: ziri-sartzaileari ziria sartu. Piarres prototipoa da, irakurri edo ezagutzen dituen istorioetako pertsonaiaiek ere prototipoak dira. Ez dago lekurik azterketa psikologikoarentzat, ez lekurik, ez asmorik. Emaizak du garrantzia, giza-ahuleziak erakusteko presa dago. Abilezia izateak, injeniosidatea izateak, azkarra izateak, erne egoteak, azken batez, pertsonaia automata bihurtzen du egilearen eskutan. Kinada edo estimulu-mota batzuen aurrean erantzuten duen automata.

### 1.1. Olgetaren elementu eratzailak

Piarres eta Pello Olhetako festetara doaz, bidean, Piarresen egitaruari erantzunez, Azkainen hamaiketakoa, ardo eta pipari ohoreak egiten dizkiola dastatu aurretik, bazkari ederra Olhetan jakiei abegi ezin hobea luzatuz, bazkal ondoan Olhetako plaza nagusian ikusten duen bakoitzari bertso bana eskainiko dio, jarraian dantza lehertzearaino, jauzi askodun dantza, dantzan ari zirenak gelditzea lortzearaino berari begiratzeko eta ikusleak agurtuz bukatzeko. Hurrengo egunean Pello ohetik jeiki aurretik gosari txiki eta handiak eginak ditu, erreak zenbait pipa. Olhetarako joan-etorria jan-edanaren, bertsoaren eta dantzaren gorestekanta bihurtzen da Piarres pertsonaiarengan, istorioak kontatzeak sor-

tzen dion atseginari gehitzen dion jai-kanta. Hitz batean, zentzuei eskainitako kanta, dastamenari, entzumenari, ikusmenari eta baita adimenari ere kontaktetan barrena erakusten den injeniosidadea dela eta.

Ongi izatearen giro honetan garatzen dira istorioak. Ez da doktrina hedonista hutsa, bizitzaren azken helmuga ez dago gozatzean. Piarresek baditu beste balore batzuk ere: zenbait istoriotan, batez ere autobiografikotan, zuzentasunaren eta okerraren artean bereizten badakiela erakutsiko du, baita ezbeharraren aurrean konfidantza euskarri bakartzat hartzen ere, txikitari gurasoak hil eta zer janik gabe gelditu zela, zorigaitz honetatik onik irtetea Jaungoikoaren borondate eta ontasun handiari egotziko dio... eta orain Piarres adinean sartuta dagoela, zuhurra da, ongi izatea etengabe bilatzen du baina muga erreal batzuen barnean; bi baso-erdi ardo aski du ardoari ohore egiteko, tripakiak munduko jakirik onenak izan daitezke, dantza, istorioa eta bertsoa debalde jartzen du. Ez da ase ezin dena, baizik ezer gutxirekin ase daitekeena eta konformidade honetatik sortzen da bere zorion eta amaierarik gabeko umore ona. Diru askorik ez, injenio ugari, haurtzaro behartsu eta zoritxarrekoaren ondorengo koformidade eta jarrera erakusten du.

Kontatzen dituen istorioek badute loturarik. Istorio bakoitza independente bada ere, istorio bakoitza batasun eta osotasun baten barnean taxutzen bada ere, elementu semantiko errekorren baten gain eraikitzen dira: ziri-sartzaileari ziria sartu. Hala gertatu zitzaion Piarresi, alargunari ziria sartzea lortu ez eta honek belarri batetik harturik elizatik atera zuenean, edo mandozainari, Piarres iraindu nahian esandakoaren ordaina jasotzen duenean, edo aranak ebasterakoan igarotako estualdien ondoren eskolaren erdian errientak izugarritzko astinaldia ematen dionean. Hala gertatu zitzaion Don Pachecori, gogor egurtzen bazuen emazte Doña Incarnacione, honek bilatu zuen modua Don Pacheco egur zezaten. Beste hainbeste gertatu zitzaion Zugarramurdiko fraideei: Erremundegi-behere Sarako auzapezaren berrehun ardi beren ahariekin ostu bazituzten lauhun itzulirik bukatzen dute.

*Piarres Adameko* istorioen morfologiak zera erakusten du: “krisi-une” moduan muga daitekeen puntuaren alde bakoitzera lauki narratibo bat lekutzen dela. Krisi-unearen alde batera ziria sartzea bilatzen duen pertsonaia dago, krisi-unearen beste aldera, pertsonaia bera, baina norbaitek ziria sartu diola. Berdinketa ematen da egiturari: ziri-sartzaileari, zeharo ez-ustekoa den ziri-sartzaileak ziria sartzen dio: alargunak, eskolako errientak... Ziri-sartzailearen abilezia berdinduta gelditzen da ziriaren jasotzailearengatik, lehen itxura batean ziria sartzeko erabakia hartu duenak trebeago izatearen itxura erakutsi arren. Edo bestela esanda: ziri-sartzailea trebea izanik, alderdiren batetik porrot egiten du bere eginkizunean.



## 1.2. *Piarres Adamaren zaina euskal eleberraren sorreraren testuinguruan*

Oso modu oparoan ez bada ere, euskal kontagintzak *Piarres Adame* argitaratu aurretik eta argitaratu ondorengo lehen hamarkadetan beraietan idoro du istorioak kontatzeari darion atsegina. Ez gara ari ahoz-ahozko herri-kontaerei buruz soil-soilik, noizbait ahoz-ahozkoak izan bazitezkeen ere, jadanik mundu idatzian murgildu direnei buruz baizik. Jatorrian negu parteko lanaldiren bat izan ala ez, artazuriketa, linarien lan edo beste eginkizunen bat, noizbait testuinguru horretan kontatutako istorioak izan ala ez, bada idazkerak ematen duen iraunkortasuna erdietsi duen kontaketa-entretenean helburu izan duenik. Baliapide erretorikoaren erabilera-mailan lekutu ala abiapuntu erreal bati erantzun, honela ematen dio hasiera Jean Duvoisinek bere *Baigorriko zazpi liliak* kontaketa-ari:

“Beihalako egunetan, behin batez, Baigorriko jauregi zahar-  
rean ziren arto-xuritzeak. Badakizue arto-xuritzeetara biltzen ohi  
dela inguruetako gazteria, eta holako bilkuetan laket dutela kantu  
zaharren kantatzea eta noizbaiteko konderen erreberritzea.

Halako solasak Baigorriko herjaunaren gogoko ziren; goan  
zen beraz arto-xuritzaleetara bere alaba andrearekin.

Han baziren zazpi neskatxa gazte deitzen zituztenak *Herriko  
Zazpi-Liliak*. Hekieri buruz hau erran zuen herjaunak:

Aurten, ene alaba andrearen ezkonarazteko gogotan naiz.  
Zuetarik zeinak-ere pollikienik erranen bait-u kondera xahar bat,  
hainari dote on bat emanen diot ene alabarekin batean ezkontze-  
ko bere hautuko gizon gazte batekin” (3).

Istorioen kontaketa-entretenean artazuriketarena dela esaten da kondaira zaharren azalpenari markoa jartzen dion ihardunean eta, honen bestez, besterik gabe, fikzio-mailan egiten den planteamendua *entzundako* istorioena da. Jakina, kontalariak baliapide erretoriko horren erabilera-  
ra jotzeko lizentzia osoa du entzundako istorioak ez izan arren eta, edozein modutan, Duvoisinek berak frantsesez eginiko hitzaurrean dion bezala, 1832. urtean bildutako ipuinez osatua bada ere (4), mundu idatzira igaro dira, honek dakartzan aldaketa kualitatiboekin (egiletasuna gorde, kodeketa finkatua etab.), azken batez, beste sistema-modu bateko partaide izatera heldu dira eta, ondorioz, aipatu markoan egiten den azalpenari so zera baieztatu daiteke: kontaketa-entretenean dastatzeak sortzen duen atsegina mundu idatzira ere heldu dela. Ahoz-ahozko igorpena zuten kontaketa-entretenean biltzaile hutsa izan Duvoisin, ala sorketarako jartzen duen mozorroa izan

(3) DUVOISIN, Jean, 1987, *Baigorriko zazpi liliak*, Elkar, Donostia, 17. or. (Edizio-  
prestaketa eta aintzinsolasa: Juan San Martin).

(4) DUVOISIN, Jean: op. cit., 6. or.

biltzailearena, istorioak testuratzean funtzionamendu-modu bat utzi eta beste batera igarotzen da. Urrutirago joan gabe, entzuleei zuzentzeko eraturako konbentzioetatik irakurleei zuzentzeko eraturakoetara. Jatorrian ahoz-ahozko kontaktak egonda ere, Duvoisinek eginerazi dien bidaiak beste harreman-modu bat eskatzen duen komunikazio-sistemara eraman ditu.

Liliek kontaturiko kondairei “herjaunak” bukaeran markoa jartzen dienean honela dio:

“Ez dut aspaldian horrenbertze atsegin hartu nola gaurko gauan” (5).

Ipuinak entzuteak sortzen duen atsegina ez zaio arrotza euskal kontakteta idatziari, kontaktak olgetari lotzea. *Baigorriko zazpi liliak* kontaketako herjaunaren zaletasunak aurkitu du jarraitzailerik beste zenbait eleberritako pertsonaiengan. Hark bezala, kontaktak dastatu nahiak eraginda, bilatu dute hauen garapenerako testuingurua eta kontalaria. Txomin Agirrerren hiru eleberrietan eguneko lanak bukatu ondorengo atsedendialdiari eta zenbait lan-moduri lotzen zaio istorioak entzutearen atsegina. *Auñemendiko lorean* “txiki-txikitatik olango gauzetarako guztiz gogotsua” izan den Pedro Mari morroiari eskatuko dio Arnaldo nagusiak ipuin bat konta dezala: “Asi bada, asi” (6) esango diote morroi gazteek beren entzun nahi goseak bultzatuta. *Garoan*, Manueltxok aitona Joanesi lapur-ipuin bat kontatzea erregutuko dio; gauero-gauero Zabaleta baserriko sukaldetan “*Testamentu zar ta berriko* egi ederrak eta azkenean, oera orduko, beti zerbait esan bear izaten zien aitonak, bere burutik” (7). *Kresalan* “aterpen” lan egiten dutenean “Iñoiz bein, gazteak eresian aspertuta gero, gizon zarrak, antxiñetako ipuiñen bat edo euren gaztegunetako gertaerak esan eroiazan” (8). Mikolek gertaera polit bat badakiela aurrerazten dienean “Esaiguzu ba, Mikol; *tira*, esaiguzu, -deadar egin eutsen mutikoak” (9). Resurrección M. Azkueren *Bein da betikon* bertan “Txanton burutik zorgiñak kendutearren okerreriaren bat egin bear ekiola esan eban Errokek” (10). “Okerreria” ipuin baten kontaktetan gauzatuko da “Olgetan-Benetan” izenburua daraman kapitulua eratuz, aski izenburu esanguratsua dena, hain zuzen ere.

(5) DUVOISIN, Jean: op. cit., 73. or.

(6) AGIRRE, Domingo, 1966, *Auñemendi-ko Lorea*, I, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 2. argitalpena, 136. or.

(7) AGIRRE, Domingo, 1981, *Garoa*, Arantzazuko frantziskotar argitaldaria, Oñati, 5. argitalpena, 178. or.

(8) AGIRRE, Domingo, 1976, *Kresala*, Arantzazuko frantziskotar argitaldaria, 5. argitalpena, 85. or.

(9) AGIRRE, Domingo, *Kresala*, 90. or.

(10) AZKUE, Resurrección, M., 1986, *Bein da betiko. Batxi Guzur*, Klasikoak saila, Erein, Donostia (Edizio-prestatzailea: Ines Pagola), 69. or.

Eleberritan ez ezik, leiendetan beraietan ere azaltzen da ipuinak entzuteko zaletasuna (11).

Ahoz-ahozko kontaketak kokatzen ziren testuingurura joaz, zenbait lanaldi (artazuriketa, aterpeko lana arrantzaleentzat...) edo lan ondorengo atsedenaldira (ilunabarreko sukaldeko batzar, atariko batzar...) egile jakin-neko euskal kontaketa idatziak, markodun kontaketa bidez, eskuratu du kontaketak dastatzeak sortzen duen atsegina. Ongi igarotzeko ordua da. *Auñemendi-ko Loreako* ipuin-entzuleak, edo *Kresalakoak*, edo *Garaokoak*, edo Baigorriko zazpi lilien kondairak entzuten daudenak *Piarres Adameko* Pelloren antzekoak dira funtzioaren ikuspegitik: istorioak gogoko dituztenak, istorio-aditzaile eskertsuak. Ahozko munduko mezu itxiek, beste zenbait alderdirekin batera, zeramaten alderdi ludikoa bereganatu dute, itxura batean behintzat, egile ezaguna duten kontaketek, baina bada alderik *Piarres Adame* eta aipatu eleberrien artean, nola egituratze-mailan eta, ondorioz, istorioek testuaren osotasunari begira betetzen doazen funtzioan, hala istori-kontalariaren nortasun eta zereginari begira.

Lehenik eta behin, egituratze-mailari so honako bereizkuntza hau bederen egin beharra somatzen da: Iparraldeko eleberri laburrak marko batean barneratzen diren istorio-multzo batez osaturik daude, ez horrela Hegoaldekoak. *Piarres Adame* bidaia batek taxutzen duen batasunean eta aitzakian pertsonaia batek kontatutako istorioen gain eraikitzen da. Artazuriketaren eginkizunak eratutako bilera eta herjaunaren alabaren ezkontza bihurtzen dira aitzaki eta marko, bildutako liliek istorioak konta ditzaten. Hegoaldekoetan, berriz, enmarkaturiko kontaketak historia nagusi eta luzeago baten ataltxo besterik ez dira. Aldea ez da hutsala. Iparraldeko etan, azkenean, istorio labur batzuen bildumak moldatzen dira, Hego-aldekotan, berriz, historia nagusi eta luzeago bat eteten duen akzidente da istorioa, nahiz eta ekarriren bat egin, handiagoa ala txikiagoa, eteten duen historia horretara, jakina. Honela bada, lehenbizikoetan independentzia eta batasuna duen istorioa, bigarrenetan egitura handiago bateko partaide bihurtzen da, egitura handiago bateko atal izatera igarotzen da, egitura handiago horri begira funtzio-modu desberdinak beteaz: ohitura batzuen azalpen, bizitza-modu baten erakusle, egitura handiago horretako fikziozko pertsonai-kontalari hori karakterizatzeko bide, entzuleak modu atsegin batean hezitzeko bitarteko... Besterik da *Baigorriko zazpi liliak* edo *Piarres Adame*: istorio bakoitzak bere nortasuna du eta, edozein kasutan, istorio-multzoaren gainezartzeak emango du istorio des-

(11) Karmelo Etxegarairen "Andeka" leiendan, esate baterako, baserri-etxe bateko sukaldean zeuden "gizon ta emakume danak, asi zitzaiozkan esaten, exeri zanean: 'Etxeko-jauna, gure antziñako asaba euskaldunen kondaira bat, esan zaguzu'". ETXEGARAI, Karmelo eta beste, 1990, *Leiendak (1879-1891)*, Euskal Klasikoak saila, Etor, Donostia (Edizio-prestatzailea: Ana M.<sup>a</sup> Toledo), 156. or.

berdinen kidetasunaren berri. Hau da, batzuen eta besteen artean dagoen alde koordinazio/menpekotasun mailakoa da. Koordinazio-mailako jantagailuak lotzen ditu markodun kontaketen gain eraikitako eleberrietako istorioak, menpekotasun-mailakoak, berriz, egitura handiagoko atal diren haiek. Barne-joskera desberdin hau bitarteko koordinazioz elkartzen direnetan istorioen gainezarketak azalduko ditu istorio-multzoari amankomun zaizkion ezaugarri morfologiko edo semantikoak, menpekoetan, aldiz, egitura handiagoa izango da istorioaren funtzio eta ekarri semantiko mugatuko duena. Gainezarketa bide, zenbait ezaugarri morfologiko eta semantiko istorio desberdinetan errepikatu egiten direla atzeman daiteke eta, honenbestez, azpimarkaturik gelditzen direla.

Istorioen gainezarketa hori da, hain zuzen ere, hainbat alde ezartzen dituen markodun kontaketen gain eraikita dauden bi eleberrien artean: *Baigorriko zazpi liliak* deritzanak aldatu egiten du enuntziatioaren subjektua istorio batetik bestera, enuntziatuarena, berriz, alegi eta mitologian dabil. Leizarazuko Gana, Urdozeko Madalena, Geraxane Iriberrikoa, Extebeni Mokozaingoa, Fermina Leizpaz-Jauregikoa, Martha Okhilenberrokoa eta Maria Etxauzekoa doaz esakuntzaren subjektua osatuz eta, zazpi liliak bukatzean, herjaunaren alaba, Baigorriko Terexa, batuko zaie, aitararen eskariz zortzigarren istorioa kontatzean. *Piarres Adameko* istori-kontalaria bat eta bakarra da, Piarres, eta kontaktzen doan istorioak pertsonaia-kontalariaren karakterizazioaren elementu eratzaile garrantzitsu bihurtzen dira, bai besteei buruz kontaktzen dituen haiek eta, zer-esanik ez, bere bizitzari lotuak daudenak. Honela, multzo osoaren gainezarketak erakusten duenez, istorio guztiak elementu errekorrente baten gainean eraikita daude, —ziri-sartzaileari ziria sartu—, elementu errekorrente horrek irria eragitea bilatzen du eta istorioen kontaketa bera beste elementu jolaskoi eta atsegin-sortzaileen ingurumarian kokatzen da (jan-edana, bertsoa, dantza). Ez dago gisa honetako batasunik, ez istori-kontalari mailan, ez honen karakterizazio-mailan, ez kontatutako istori-mailan, ez istori-kontakteten testuinguruan *Baigorriko zazpi liliak* izenburutzat daramanean, nahiz eta kontaktak entzuteak sortzen duen atsegina izan bietan testuen garapena zilegiztatzen duen motorea.

Azterketa aktantzial batek honako alde hau nabarmenduko luke: Piarres aktante subjektuak bilatzen duena olgeta da istorioen kontaketen bidez, lili bakoitzak bilatzen duena, berriz, istorioa ahalik eta polikiarik kontatzea dotea eta senarra aukeratzeko askatasuna erdiesteko. Beste modu batera esanda, objektu desberdin baten bilaketak bereizten ditu. *Piarres Adameko* aktante-subjektuaren bilaketa olgeta sortzea da, jai-giroa debalde jartzea, nola besteentzat hala norberarentzat. Festa-moldatzaile nagusia istorioen kontaktetari darion atsegina da. *Baigorriko zazpi liliak* deritzanean, elementu berbera da festa-moldatzailea, baina lehiaketa bat irabaztea akuilua.

“*Piarres Adame* euskal kontaketa zain epikureoa” izenburupean eraikitzen genuen ihardunaldi hau. Alderagaitzat hartu ditugun eleberrietan, markodun kontaketen gain eraikita ez dauden haietan, markodun kontaketa egitura handiago baten atal denean, zain epikureo honi ezartzen zaion iragazia hain da estua, bere azalpena alderdi formal edo kanpo-alderdi soilera mugatzera heltzen dela: kontaketak entzuteak sortzen duen atseginera. Baina istorio beraren taxuketa eta, zer-esanik ez, historia nagusiarekiko betetzen duen funtzioa zain estoiko baten azalpen handiago bihurtzen da. Izan ere, kontaketez gozatzearen ezaugarri horri historia nagusiaren harian ateratzen zaion probetxuak (ohitura batzuen azalpen, bizitza-modu baten erakusle, egitura handiago horretako historiaren morroi... eta bereziki kontaketa egiten den erabilera didaktikodun iruzkinak) asko makaltzen du istorioaren kontaketa eragin duen arrazoiak: kontaketak dastatzeak sortzen duen atsegina. Itxura batean ahoz-ahozko kontaketez zeramaten alderdi ludikoa bereganatu badute ere, alderdi ludiko honen ingurumaria arras bestelakotzen dute: iruzkin didaktikoz betetakoa, kontaketa malgutasunik ez darion historia nagusi bateko osagai, konta-jarioa moteltzen duten komentario diskurtsibo-doktrinalen aldamenean. Jatorriz ahoz-ahozko kontaketa izan zitekeenak eleberrri hauek igarotzean jasaten duen “egokitze-lanak”, bere alderdi ludikoa ikasgaiaren zerbitzuan jartzean jasaten duen egokitzapenak, ito egiten du markodun kontaketa testuratzeak oinarrian zuen motiboa: kontaketak dastatzeak sortzen duen atsegina. Eta azken buruan, kontaketak dastatzeak sortzen duen atseginari erantzuteko zen istorioa, zain epikureo baten azaleratzea zena, zain estoiko baten azalpenerako bitarteko bihurtzen da, ezbeharraren edo zoritxarraren aurrean etsipena gomendatzera eta aldarrikatzera iristen den neurrian markoa jartzen dion historia nagusia. Zer da, etsipena ez bada, *Auñemendiko Loreako* Riktrudisek erakusten duena maitemindurik dagoela maitearen berririk ez duenean? Edo *Kresalako* Mañasirena bere maiteak jaramonik egiten ez dionean? Edo *Garoako* Joanesena bi seme bide zuzenetik okertu zaizkionean? Besterik da Piarresen jarrera ezbeharrari edo zoritxarrari aurre egiteko: trebes heldu diren gauzak zuzen ditu hartzen eta, irriz hartuz, zorigaitza zorion bilakatzen.

*Piarres Adamen* zain epikureoaren azaleratzea ez da mugatzen gora go ipatu den alderdi formal horretara: istori-kontalariak entzulea dibertitzea bilatzen du, irria eragitea, hartarako aproposak diren istorioak kontatuz; filosofia epikureo baten erakusle da. *Piarres Adamen* istorioak kontatzea bera da “historia nagusia” eta, jai-giroa sortzen duten elementuz inguratutako istorioak kontatuz, giza-jokabide batzuk arautzea bilatzen duen morala baino askoz nabarmenago da bizitza-jarrera epikureo baten azalpena. Bizitza-jarrera honen adierazpenak gehiago erantzuten dio ahoz-ahozko istorioak kontatzearen giroari historia luzeek erakutsi zutenak baino. Izan ere, gakoak ez dago gaian bakarrik, baita gaia erabiltzeko moduan ere.

Ahoz-ahozko kontaktak hamaika modutakoak ziren eta horien artean ez dira guztiak ez irri-eragileak, ezta olgeta olgetatik bilatzen dutenak, bada etikarekin edo gizalegea erakustearekin lotura duenik ere. Baina, edozein kasutan, istorioak daude eta ez istorio-itxurak, kontaketa dago eta ez diskurtsibitatea kontatzen jarria itoaz, filosofia baten azalpena dago, mundu-ikuskeraren batena, munduan kokatzeko modu batena, baina istorio-kontalari batek istorioak kontatuz emana, eta ez kontalari-filosofo baten pasarte doktrinalen ilustraziora eramanez kontaketa. Ahoz-ahozko mundu horretan atsedena-ordua edo lanaldia jai-giroan igarotzeko kontatzen da istorioa, mundu idatziko historia luzeetan giza-jokabideak arautzeko, giza-jokabideak izan beharko luketenaren errainuan lekutuz eta direna deskribatzea arbuatuz. *Piarres Adamen* istorioak kontatze hutsak adierazten duen jarrera jolaskoi horri istorio-kontalariaren ezaugarritzeta-modua batzen zaio: festak Piarres pertsonaiarengan gorputz hartzen du, bera da eleberriarren izenburutik bertatik erdigune, istorio-kontalari moduan kontatzearen ekingiza atsegin duena, berari nahiz besteri gertatuak izan istorio biziak jalgitzen dituen, ziztorlaria, bere ezaugarritzeta fisikotik alaitasuna sortzeko aproposa; hitz batean, bozkarioa darion bizitza-modua erreprezentatzeko egindako pertsonaia.

*Piarres Adamen* baserritar irri-eragilea aurkitzen dugu. Baserritar arlo-tearen irudia ez da izan ezezaguna Euskal Herrian, ezta falta izan, ezta ere, euskaldun baserritarrek bere baitan bildu beharko lituzkeen birtute guztien agerkaririk. Hauek aurrean baserritar "azkarra", erne dagoena dakar Elizanburuk, gerora damutu ala damutu gabe tranpa edo iruzurra bilatzen duena, tranpa edo iruzurra tentatzen duena. Pertsonaia honek, seguraski, folklorea eta ahoz-ahozko mezu itxietan ditu bere sustraiak.

Aurreko mendean hasten da herritartzen irakurketa-idazketen ikasketaren egintza. Euskaldunari, beste hizkuntza batean bada ere, heltzen zaizkio herritartze horren ondorioak. Ahoz-ahozko mezu itxien igorpenei ez zaie bukaera heltzen, begibistakoa denez, baina, bestek beste, aipatu gertaeraren herritartzeak euskal letren eta irakurleen ugalpena ekarriko du. Gai, maila, sortze-testuinguru etab. desberdinetako bertso-papera gehitzen da, kontaketa-mota desberdinak plazaratzen hasten dira herabeki... Euskal literaturaren zain epikureoak nonbait aurkitu badu arnasa, mende honetararte behintzat, mundu herritarrean izan da. Ahoz-ahozko igorpen hutsean edo testua euskarri zuela, bataren eta bestearen artean dagoen aldea gutxietsi gabe, geruza herritarrean aurkitu du bizitza iraunkorra. Herri-literaturan eta herri-literatura horren zenbait sortzailearengan sende gazte eta zaharragoak lagun izango ditu Piarresek: Fernando Amezketa-rra, Txirrita etab. Hauek bezain baserritar bizkorra, bizkortasun horrek ematen dion argia bizitzaren aurrean jarrera bozkariotsu bihurtuko du: jan-edana, dantza eta bereziki hitzaren erabilera zorrotza ongi igarotzearen euskarri.

## ELIZANBURU KONDATZAILEAREN EUSKARA

*Sara, 1991-XII-21*

*Beñat Oihartzabal*

Euskal literatura aipatzen duten liburuetan, laudorio ainitz bildu du Elizanbururen euskarak, mintzaira gozo eta malgua, *perekatzailea* zioen Lafittek, baitzerabilen, hala bere kobletan, nola bere hitz laxozko obran, harritzeko ez baita hizkuntza gaietan hain begi zorrotza zuen Mitxelenak, Lafon irakaslearen mirespena bereturik, Elizanburuk *euskararen gainean zuen nagusitasuna* deblauki aitortu baitzuen.

Beste hizlariak mintzatu zaizkizue jadanik, edo eginen aurki, Elizanbururen lanaren literaturazko balioaz, eta ez nuke orain haiek erran gauzarik errepikatu nahi. Hargatik haren euskararen aipatzea galdegina izan baitzait, mintzaira bera hartuko dut aztergai, estilistika eta literatur balibideak hunki gabe, eta ene azterketa *Piarres Adame* elaberrian mugaturik.

Zergatik gorde behar nuke: nahiago ere dut gauzak horrela diren. Alabaina, Elizanbururen umore fresko eta sanoa, eta, halaber, haren liberaltasun eskeptikoa ere, gogokoak baditut, ez naduka *Piarres Adame* elaberriak —literatur obra gisa— hain miretsirik, nola baitauzka, nekez uka dezaket, gauza horietan ni baino fidagarriago diren gutiz gehienak. Irakurgai pullita dela, laketuz eta atseginez irakurtzen dena, aitor dut, baina —hori aski ez balitz— gehiagoko anitzik gabe, ene aburuz, non ez den obra birtuala gogoan hartzen; horrek, ordean, ni beldur, zuhurtziari bizkar emanaraz bailiezaguke, eta balizko literaturako eremu zabalegietan menturaz.

Horiek hola, lot gakizkion, orain, gure gaiari, eta has gaitezen elaberri horretako euskararen aztertzen.

Lehenbizikorik eginbidea dut gure artean gai hori jadanik landua izan dela gogoraraztea, bai I. Sarasola, *Piarres Adame*-z egin den azken argitaraldian egin zuen aitzin solasean, eta bai, bereziki, G. Garate, euskal nobelaz idatzi duen historian, biak, zein bere moldean, entseiatu baitira Saratar idazleak zerabilen euskararen ikertzerak, eta mugatzerak. Egiaren errateko, hego aldeko irakurtzaileak bereziki gogoan zituztela

egin dituzte biek beren azterketak, Sarasolak literatur tradizioa kontuan harturik, eta Garatek, berriz, euskararen jatortasunaren arabera, arbuioak eta goresmenak, noiz nola, hari nola iduri, batere beldur gabe, baina ez beti zuzen ene gustuko, ematen zituela (1).

Saran hitza dudalarik, doi bat desberdina izanen da ene ikuspegia. Alde batetik Elizanbururen euskararen ezaugarri batzuk agerian emanen ditut: hiztegiaren partetik, bereziki; bestetik, gaur egun euskara batuaren arauetan emateko eztabaidagai diren zenbait pondutan, Elizanburuk zer eredu eskaintzen digun ikusiko dugu: bai adizkera alokutiboen erabilere-tan, eta bai aditz morfologiari dagozkion beste zenbait pondutan ere. Joskera eta kasuen morfologiak ere balizateke zer erran naski, baina beldur bainaiz luze lihoakigukeela orduan mintzaldi hau, gai horiek hunki gabe utziko ditut hemen.

Hona beraz, ohar batzuk, *Piarres Adame* elaberriko hiztegiak eta aditz morfologiak.

## 1. HIZTEGIA

*Piarres Adame* elaberri herrikoa (hitz hori mugaz beste aldean ematen dioten edukin bereziarekin konpreni bedi) da arras, 1880.eko hamarkadan sortu ziren ipar aldeko kazeta zenbaitetan (*La Nivelle* eta *Le Réveil Basque* delakoetan) hostoka agertzeko gisan egina, irakurtzaileen azikartzeko helburu garbiarekin. Eta, hain zuzen, herrikoitasun hori hobekienik erakusten duena, beharbada, hiztegia bera da.

Bost pondutan bil daitezke *Piarres Adame*-ko hiztegiaren ezaugarri nagusiak:

1. Lapurteraren gainean finkatua da; 2. nahiz hitz kasik guztiak ipar aldeko eta bereziki baxenabartar gehienek konprenitzeko modukoak diren; 3. guti dira, beraz, liburuetarik ateraiak diren, eta eguneroko euskara mintzatuari ez dagozkion hitzak; 4. horrek ondorio baitu hitz mailegatu anitz agertzen dela elaberrian; 5. bestalde, irakurtzailearen konplizitatearen erdiesteko eta herrikoitasunaren indartzeko, euskarak eskaintzen dituen bide berezi batzuk; baliatuak dira, hala-nola errepikapenak, onomatopeiak, eta forma hipokoristikoak.

---

(1) Gehienetan euskalki kontuetako ponduak dira Garatek altxatzen dituen, eta dakigun bezala, irriskutsua da juje moduan kontu horietan ibiltzea. Zergatik datibo pluralaren aditz marka den *-ote* (*-o + te*) forma (*-e* formaren orde, erran nahi baitu *-o + e > e*) "akats" ote da? Zer funts du, duela ehun urte lapurteraz idatzi testu batez delarik solasa, *eragin* forma, *egin arazi* baino "hobe" dela errateak? Beste batzuetan, oharrak euskalkiaren berezitasunetik harago doaz: nork erran dezake *Sarako herria* sintagma "gaizki dago(ela)" euskaraz, eta *Sara herria* baizik ez dela "ongi"?



Bost pondu horiek nola obratzen diren hurbilagotik ikusiko dugu orain.

### 1.1. Lapurterazko hiztegia (2)

Lapurteraz idazten zuen Elizanburuk, eta ez zuen indar berezirik egiten beste euskalkietarik hitzak harturik bere hiztegiaren zabaltzeko. Badakigu, Manterolari idatzi zizkion gutunak lekuko ditugularik, Elizanburuk euskararen inguruko goiti-beheitiak hein batean segitzen zituela, hiztegiko kontuetan bereziki. Horren hatzik kasik batere ez da ageri, ordean, haren idazlanean, eta, irakurtzaile anitz baxenabartarrak izanen zituela jakinik ere, baxenabartar hiztegi berezitik arras guti hartu zuen. Ez dugu, konparazione, *biziki*, *ontsa*, *ukhan* edo *bortha* bezalako hitzik aurkitzen elaberrian (3). Hain segur, kondatu ixtorio ia guztiak, Lapurdin,

---

